





# Justizia eta erreparazio estrategia feministak Guatemalan eta Kolonbian

Hainbat egile



Argitalpen hau Trantsiziozko justizia eta kritika feminista: giza eskubideen urraketa larrien ondoriozko zigorgabetasun patriarkalaren aurkako baliabideak Proiektuaren esparruan egin da. PRO-2018K30031. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Argentiaren (GLEA) laguntzarekin.



Justizia eta erreparazio estrategia feministak Guatemalan eta Kolonbian

Koordinazioa eta edizioa: Irantzu Mendia Azkue

Egileak: Gloria Guzmán Orellana, Amandine Fulchiron, Diana Marcela Gómez Correal eta Diana María Montealegre Mongrovejo.

Urtarrila 2021



[www.hegoa.ehu.es](http://www.hegoa.ehu.es)

UPV/EHU • Zubiria Etxea Eraikina  
Agirre Lehendakariaren etorbidea 81 • 48015 Bilbo  
Tel.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU • Carlos Santamaria Zentroa  
Elhuyar Plaza 2 • 20018 Donostia-San Sebastián  
Tel.: 943 01 74 64 • Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU • Arabako Campuseko Liburutegia  
Nieves Cano kalea 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz  
Tel.: 945 01 42 87 • Faxa: 945 01 42 87

Itzultzailea: Iñigo Gallastegi Zorrilla

Imprimatzailea: Printhus, S.L.

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Lege gordailua: BI 00884-2021

ISBN: 978-84-16257-83-6



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopiatu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik:  
<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

# Aurkibidea

<b>Aurkezpena</b> .....	9
Irantzu Mendia Azkue	
<b>Guatemalako gatazka armatuan gertatutako emakumeen giza eskubideen urraketa larrien kasuen prozesu judizialak</b> .....	13
Gloria Guzmán Orellana	
1. Kasuen auzipetzea Guatemalako sistema penalean .....	15
1.1. Gatazka armatuan gertatutako giza eskubideen urraketak	16
Rios Montt-en aurkako prozesua genozidioagatik, bukatu gabeko bidea	16
"Egia esatera etorri gara eta egia esan dugu". Sepur Zarco kasua	20
Guk justizia lortu behar dugu". Emakume atxien kasua	21
"Bizi izan genuen guzti hori ezin zen zigorrik gabe geratu". Emma Molina Theissen-en kasua	23
1.2. Gatazka armatuaren osteko giza eskubideen urraketak	25
"Egia besterik ez nuen esan, ez nintzen okertu". Juana Méndez-en kasua	25
"Gure eskubidea babesten dugu eta ezin gaitu inork atera". Lote Ocho edo Chacpayláko emakume kektxien kasua	26
2. Prozesu judizialen esanahiak, lorpenak eta ikaspenak .....	29
2.1. Eskubideen subjektu izatearen kontzientzia indartzea	29
2.2. Egia ezagutzea	30
2.3. Erantzuleak zigortzea	31
2.4. Gertatutakoa ez errepikatzeko oinarriak	33
2.5. Aurrekari motibagarriak ezartzea	34
2.6. Laguntza juridiko-legalaren inguruan antolaketa sortzea	35
3. Azken gogoetak .....	36
Erreferentziak .....	38

<b>Emakumeen legea. Gerrako sexu-indarkeria pairatu eta bizirik iraun duten emakume maiek justizia berrasmutzen dute gorputzetik, bizitzatik eta komunitatetik</b>	<b>45</b>
Amandine Fulchiron	
1. Kontraesan nagusia: justiziaren ideiak injustizia-sentimendua areagotzen du	48
1.1. Auzitegiak ez du justizia ezartzen emakumeen bizitzan	48
1.2. Zuzenbidearen "eraginkortasun sinbolikoa" kolokan	52
1.3. Justiziaren ezintasunaren atzean: kontratu sexual koloniala	54
2. Emakumeen legea: gure arteko aintzatespen-, maitasun- eta osatze-politika bat, injustizia konpondu eta ezabatzen duena	57
2.1. Osatzea justizia da	59
"Lehen inork ez zigun entzuten baina orain norbait gure alde dago"	59
Bihotza arindu	60
"Gertatu zitzaiguna egia da"	62
"Nire burua zigortzen nuen baina, azkenean, gobernuaren ardura izan zela konturatu nintzen"	62
"Ni Catarina handia naiz"	62
Gorputza berreskuratu, justiziaren erdigunean	65
Zer lotura dute maitasunak eta justiziak?	66
Justizia da "norbait nirekin dagoela"	68
2.2. Justizia-esperientzia: gorputzaren eta bizitzaren gainean berreskuratutako botere propioa	69
2.3. Justizia egin: emakumeen bizitza zilegitzeko eta defendatzeko ekintza kolektiboa	71
"Agertzea eta bere lekua hartzea": "ezdeus" izatetik "autoritate" izatera	71
"Inoiz ez berriro", ez nire alabei eta ez nire bilobei	73
Emakumeen legea: "orain badago guri entzuten digunik, gu defendatzen gaituenik"	75
Beldurra eta lotsa itzuli	77
3. Ondorioa	80
Erreferentziak	82

<b>Bakea eraikitzekeo estrategia feministak: Kolonbiako emakumeen eta feministen mugimenduen ikaspenak, lorpenak eta erronkak</b> .....	<b>87</b>
Diana Marcela Gómez Correal eta Diana María Montealegre Mongrovejo	
1. Bakea eraikitzekeo eta genero-ikuspegidun trantsizio politiko baterako estrategia feministak .....	89
1.1. Emakumeak kalera irtetearen, eragin politikoaren eta antolakuntza indartzearen artean .....	91
2. Emakumeen eta feministen mugimenduen parte-hartzea paramilitarren desmobilizazio-prozesuan eta Justizia eta Bakearen Legean .....	97
3. Bake-prozesu berri baterako ikaspen feministak .....	101
4. Lortutakoak piztutako ilusiotik ezarpen eskasak eragindako etsipenera .....	107
5. Ondorioak .....	110
Erreferentziak .....	112





# Egileak

**Gloria Guzmán Orellana.** Hezkuntza Zientzietako lizentziatua El Salvadorreko Unibertsitatean. Genero-ikerketetan espezializatua dago Universitat de Girona Innovació i Formació Fundazioan, eta Globalizazio, Garapen eta Nazioarteko Lankidetzako Diplomatuia da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). Hegoako kide da, UPV/EHUko Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua. Aktibista, feminista eta El Salvadorren dagoen memoria-eremu garrantzitsuena sustatu zuen Giza Eskubideen Urraketen Biktimen oroimenezko Monumentuaren aldeko Batzordearen sortzaileetako bat da. Argitaratu dituen bere lanen artean, *Generoa eta trantsiziozko justizia. Emakumeen mugimenduak zigorgabetasunaren aurka* (2017) liburuaren koedizioa eta *En tierra ocupada. Memoria y resistencia de las mujeres en el Sáhara Occidental* (2016) egilekidetasuna aurki ditzakegu.

**Amandine Fulchiron.** Aktibista feminista, Guatemalako Actoras del Cambio kolektiboko fundatzailea eta Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoko (UNAM) Ikasketa Latinoamerikarretan doktorea. Hauek dira bere ikerketa lerroak: feminismoak, sexu bortxaketa eta gerra, gorputza, sexualitatea, emozioak, memoria eta justizia. Hurrengoak bezalako argitalpenen egilea da: *Poner en el centro la vida de las mujeres mayas sobrevivientes de violación sexual en la guerra: una investigación feminista desde una mirada multidimensional del poder* (2014) eta *Tejidos que lleva el alma: memoria de las mujeres mayas sobrevivientes de violación sexual durante el conflicto armado*, Olga Alicia Paz eta Angélica López-ekin batera (2009).

**Diana Marcela Gómez Correal.** Antropologoa eta Historiako Magisterra. Antropologiako doktorea Ipar Carolinako Unibertsitatean; Chapel Hill, Estatu Batuak. Kolonbiako Andeetako Unibertsitateko Garapenari buruzko Ikasketen Diziplinarteko Zentroko (CIDER) irakasle laguntzailea da. Bakeari, trantsiziozko justiziar, eraldaketa sozialari, garapenaren alternatibei, genero-ikerketa eta ikerketa feministei buruzko ikerlanak egiten ditu. Bere argitalpenen artean, *Mujeres, género y el Acuerdo de La Habana*

(2017) artikulua eta *Tejiendo de otro modo: Feminismo, epistemología y apuestas descoloniales en Abya Yala* (2014) liburuaren koedizioa aipa ditzakegu.

**Diana María Montealegre Mogrovejo.** Zuzenbidean lizentziatua Kolonbiako Caucaoko Unibertsitatean. Giza Esbideen Nazioarteko Zuzenbideko Magisterra da Estatu Batuetako Notre Dame Unibertsitatean, bai eta Generoa eta Bakegintzako Magisterra Nazio Batuetara afiliatua dagoen Costa Ricako Bakerako Unibertsitatean ere. Kolonbiako Andeetako Unibertsitateko Garapenari buruzko Diziplinarteko Ikasketetan doktoregia da eta *Aportes y críticas feministas sobre la incorporación de las mujeres y el enfoque de género en el desarrollo* (2020) bezalako argitalpenak ditu.

# Aurkezpena

---

## Irantzu Mendia Azkue

Gerrei, erregimen errepresiboei edo gatazka armatuko egoerei buruzko ikerketa feministak lagungarriak izan dira testuinguru horietako emakumeen aurkako indarkeria-moduak eta horien ondorioak argitzeko, hauek askotarikoak baitira eta iraupen desberdinak baitituzte. Biktinek bizirik iraun duten kasuetan, haien testigantzek sarritan adierazten dute haien osasun fisiko eta psikologikoak okerrera egin duela, haien familia-, komunitate- eta gizarte-sareak desegituratu egin direla, harreman afektibo-sexualak kaltetu direla, hezkuntza aukerak galdu dituztela, lan-bazterketa pairatzen dutela eta haien bizi-baldintza materialak eta sozialak prekarizatu egin direla.

Gainera, emakumeen biktimizazio-moduak salatzea ez ezik, eragiletasun-gaitasuna leheneratzea ere garrantzitsua dela onartzen dute hainbat azterketa feministak. Horiek, bada, interesgarritzat jo dute gatazka armatuetatik bizirik atera diren pertsona askok nola parte hartzen duten banakako eta taldeko suspertze-prozesuetan, hala nola gogoeta eta praktika feministako eremuetan, emakumeen arteko laguntzarako eta elkartasunerako eremuetan, konpromiso eta aktibismo politikorako eremuetan, etab. Ekintza kolektiboko esparru horretan, gatazka armatuak izan dituzten hainbat herrialdetan, sexu eta genero-krimenen<sup>1</sup> biktima izan diren emakume askok egia, justizia eta erreparazioa lortzeko eskubidea babesteko lan espezifikoak egiten dute.

---

1 Nazioarteko Zigor Auzitegiaren *Documento de política sobre crímenes sexuales y por motivos de género* (2014) dokumentuaren arabera, sexu-krimenak dira bortxaketa, sexu-esklabotza, prostituzio behartua, bortxazko haurdunaldia, antzute behartua edo horiek bezain larria den sexu-indarkeriako beste edozein modu (adibidez, biluzte behartua). Genero-krimenak biktimaren sexuagatik eta sozialki eraikitako genero-rolengatik egindakoak dira eta ez dira nahitaez sexu-indarkeria moduan agertzen. Ikus dokumentua hemen: <<https://www.icc-cpi.int/iccdocs/otp/PolicyPaperOnSexualAndGender-BasedCrimesSpa.pdf>>.

Argitalpen honek emakume horien lanaren alderdi kontzeptual eta praktikoak aztertzea du helburu, biktimen eta hauek ikuspegi psiko-sozial eta juridiko batetik lagundu dituzten gizarte-erakundeen esperientzian oinarrituta. Horretarako bi kasu hartzen ditu hizpide, hain zuzen, Guatemalako eta Kolonbiako. Izan ere, herrialde horietan, emakumeen eta feministen mugimenduak biktimen eta giza eskubideen aldeko mugimenduarekin antolatu dira zigorgabetasunari aurre egiteko eta, hala, eskarmentu handia dute eta sormen eta aniztasun handiko estrategiak inplementatu eta aurrerapenak handiak lortu dituzte.

Herrialde bietan, zigorgabetasunaren aurkako borrokan, geratutakoari buruzko egia ikertzeko eta ezagutzeko, justizia exijitzeko eta biktimen erreparazio integrala eskatzeko ekimenak izan dira. Horiez gain, emakumeen aurkako indarkeria errepika ez dadin, politikan eta gizartean eragiteko helburua duten beste ekimen batzuk ditugu. Izan ere, inpunitatea da indarkeria hori gerraosteko testuinguruetan mantentzea eragiten duten faktoreetako bat. Hala gertatzen da Guatemalan eta Kolonbian; herrialde horietan 1996an eta 2016an hurrenez hurren bake akordioak sinatu bazituzten ere, feminizidio-tasak eta emakumeen aurkako indarkeriaren zigorgabetasuna kezagarriak dira oraindik ere.

Hala ere, justiziaren eta erreparazioaren gaineko ikuspegiak ez dira unibokoak, biktimek eta hauek laguntzen dituzten kolektibo guztiek ez baitituzte ekintza berak lehenesten. Krimenei erantzuteko helburuz, estrategia feminista batzuek legea aldatzeko eta justizia penala aplikatzeko lan egiten dute. Izan ere, estatu-mailako, eskualdeko eta nazioarteko arauetan berdintasunaren arloan eta indarkeriaren aurkako borrokan egindako aurrerapenak eta azken hamarkadetan epaitutako kasuen gorakada, feministek legearen esparruan egindako ahaleginaren emaitza dira. Antolaketa eta eragiteko-gaitasuna hainbat urtez indartu ondoren, ahalegin horiek aldaketa garrantzitsuak eragin dituzte Nazioarteko Zuzenbidean eta zigor-epaiak ekarri dituzte emakumeen giza-eskubideen urraketa larrien hainbat kasutan.

Aldi berean, biktima askorentzat justizia auzitegietan bilatzeak dakarren esperientzia latz eta birbiktimizatzaileak, erantzuleak zigortuak izango

direlako itxaropen eskas edo ezak, auzitegien deskredituak –hauek patriarkalak, kolonialak eta arrazistak diren heinean–, edo justizia zigorlogika batetik ulertzearekin ados ez egoteak ekarri dute beste justizia-, aintzatespen- eta erreparazio-formula batzuk bilatu nahi dituzten jarrera politiko feministak sortzea. Horien helburua, bada, emakume biktimen bizitzaren dimentsio guztien erreparazioa eta eraldaketa positiboa lortzea da, ekintza komunitario eta kolektiboaren bitartez.

Guatemalan zein Kolonbian emakumeen eta feministen mugimenduek garrantzi berezia izan dute gatazka armatuetan gertatutako sexu- eta genero-krimenen egiari, justiziari eta erreparazioari buruzko agenda bultzatzean. Herrialde horietan, ikuspegien artean dagoen aldea agerikoa da. Zenbait erakunde auzitegietan eta ekintza juridiko-legalaren bitartez borrokatzen ari dira zigorgabetasunaren aurka. Beste batzuk, aldiz, indarrean dagoen justizia-paradigmaren aurrean beste mekanismo alternatibo batzuk bilatzearen alde agertzen dira. Beraz, bi esperientzia interesgarri dira justiziaren kontzepzio eta praktika feministari buruzko gaur egungo eztabaidaren oinarri teoriko eta politikoa ezagutzeko eta elikatzeko.

Hala, lehenengo kapituluan, Gloria Guzmán Orellanak aztertzen du biktimen eta feministen eta giza eskubideen erakundeek Guatemalako esparru juridiko-penalean egindako bidearen zati oso garrantzitsu bat. Horretarako, epai-prozesu paradigmatico batzuk aurkezten ditu. Horiek, Estatuaren egituren bitartez justizia lortzearen konplexutasun izugarria erakusten dute, Estua baita auzitegietan salatutako krimenen erantzule nagusia. Aldi berean, prozesu horiek emaitza esanguratsuak lortu dituzten esperientzien adibide adierazgarriak dira, honako hauei dagokienez: herrialdean nagusi den inpunitatea haustea, gertatutakoa judizialki eta sozialki onartzea, erantzuleak zigortzea eta zuzenbideari doitutako erakunde demokratikoak indartzea.

Bigarren kapituluan, eta Guatemalaren esperientziari buruz hau ere, Amandine Fulchironen justiziaren ideia instituzionalizatuaren eta sexu-indarkeria pairatu duten emakumeek auzitegietara jotzen dutenean sufritzen duten esperientzia birbiktimizatzaileen arteko arrakala

aztertzen du. Hala, justizia patriarkal, arrazista eta kolonialaren aurrean alternatibak bilatzea proposatzen du eta, horretarako, emakumeen arteko aintzatespen-politika bat proposatzen du, maitasuna eta sendakuntza tresna gisa, bai kaltetutako bizitza konpontzeko, bai norberaren boterea eta botere kolektiboa berreskuratzeko, horrekin bizi-baldintza duin eta askeak lortze aldera. Hortik, mugimendu feminista interpelutzen du, emakumeen autoritatearen eta autonomiaren eraikuntza politikotik justizia birpentsa dezan.

Azkenik, hirugarren kapituluan Diana Gómez Correalek eta Diana Montealegre Mogrovejok Kolonbiako emakumeen eta feministen mugimenduaren esperientzia berrikusten dute. Hala, mugimendu horrek 1990ko hamarkadaz geroztik honako helburu hauekin erabilitako estrategiak aipatzen dituzte: gatazkari amaiera negoziatua emateko exijitzea, emakumeen aurkako indarkeria salatzea, herrialdean izandako bake prozesuetan eragitea (Gobernuaren eta FARC-EPren arteko azken negoziazioa barne) eta azken urteetan erakundeek bideratutako trantsizioko justiziako mekanismoetan parte hartzea. Egileek, bada, desmobilizazio paramilitarreko prozesuan mugimendu feministak biktimei emandako laguntza-moduak aipatzen dituzte espezifikoki. Prozesu horretan kokatzen da trantsizioko justiziako lehen esperientzia formala Kolonbian. Halaber, ekintza-estrategiak eta -agertokiak ikuspegi feminista kritikoetatik birpentsatu beharrari buruz hausnartzen dute, 2016ko Bake Akordioa ezartzeko zailtasunak ikusita.

# Guatemalako gatazka armatuan gertatutako emakumeen giza eskubideen urraketa larrien kasuen prozesu judizialak

---

Gloria Guzmán Orellana

CICIG Guatemalarako inpunitatearen aurkako nazioarteko batzordeak 2019an egindako *Una mirada a la justicia y al Estado de Guatemala* (Begirada bat Guatemalako justiziarri eta Estatuari) txostenaren arabera, 2008tik 2018ra bitartean, inpunitatearen batezbestekoa % 94,32 izan zen herrialdean eta, 2018an, emakumeen aurkako indarkeria delitu nagusienetako bat izan zen (% 97,05)<sup>1</sup>. Díez eta Herreraren hitzetan (2013), honako hauek dira Guatemalan zigorgabetasun hori instituzionalizatzearen arrazoietako batzuk: indarkeriaren kultura, beldurraren kultura, gatazka armatuko indarkeriaren erantzuleak ziren kargu militar eta zibilen aurka benetako epaiketak eta/edo prozesuak ez egotea; Estatuaren errepresio-aparatuak ez desgitea eta barne gatazka armatuaren biktimei erreparaziorik ez ematea, baita gatazka horren kausak ez konpontzea ere, hala nola lurrerako sarbidea.

Hain inpunitate-maila handia duen herrialde batean, biktimeen, giza eskubideen eta emakumeen eta feministen kolektiboek justizia exijitzeko egindako lana oso garrantzitsua da eta hainbat ikasketa eskaintzen die beste herrialde batzuei. Haien jarraitutasunari esker, gerrako 36 urte horietan eta Bake Akordioen (1996) ostean ere gertatutako giza

---

1 Delitu-motaren arabera, 2018an, zigorgabetasun handiena honako delitu hauetan izan zen: ustelkeria (% 98,75), lapurreta (% 97,45), emakumeen aurkako indarkeria (% 97,05), estortsioa (% 95,03), telefono mugikorren lapurreta (% 94,89) eta bizitzaren aurkako delituak (% 94,16). Ikus: <<https://www.efc.com/efc/america/sociedad/guatemala-cerro-2018-con-un-nivel-de-impunidad-mas-del-97-por-ciento/20000013-3994925>>.

eskubideen aurkako urraketak epaitzeko urratsak ematea lortu da. Gizarte-mugimenduek gerraostean justizia eskatzeko izan duten inplikazio handiak ondo erakusten du Guatemalako gizarte zibilak inplikazio handia izan duela, hainbat ikerketak adierazten duten bezala; bai gatazkari irtenbide negoziatua emateko eskatuz, bai kasuak dokumentatuz Historia Argitzeko Batzordearen (CEH) lana laguntzeko, eta bai gizarte-justiziaren aldeko eta herrialdean nagusi den arrazismo historikoaren aurkako borroka desberdinetan (Fisas, 2010; Mersky, 2015).

Gatazka armatuan zehar, emakumeen aurkako indarkeria Estatuaren politika genozida eta kontrainsurgentearen parte izan zen. CEHk erregistratutako biktimei dagokienez, lautik bat emakumeak izan ziren eta honako hauek pairatu zituzten: exekuzio arbitrarioak (% 33), torturak (% 19), askatasun-gabetzea (% 18), sexu-bortxaketa (% 14), bortxazko desagertzea (% 6), lekualdatzeagatiko heriotza (% 4) eta giza eskubideen beste urraketa batzuk (% 5). Talde etnikoari buruzko informazioa dugun kasuei dagokienez, sexu-bortxaketako biktimetatik % 88,7 maiak izan ziren, % 10,3 ladinoak eta % 1 beste talde batzuetakoak<sup>2</sup>.

Sexu-bortxaketei dagokienez, horiek pairatu eta bizirik irten diren emakume maien lana aipatzekoa da. Haiek, emakumeen eta feministen hainbat erakunderekin batera, ahaleginak batu dituzte kasu batzuk epaitegietara eramateko eta erantzuleak zigortzeko. Hala, justizia penalaren arloan emandako aurrerapausoek itxaropena piztu dute indarkeriaren biktimentzat, Guatemalan zein beste herrialde batzuetan. Rita Segato antropologoaren arabera (2019), kartzelak ez du birgaitzeko aukerarik ematen baina, ikuspegi sozial batetik, "zigorrek eredugarritasun-boterea dute", izaera pedagogikoa. Segatoren ustez, "zigor-epaia modu eraginkor bat da gizarteari esateko zer egin daitekeen eta zer ez, batez ere bortxaketa kasuetan; izan ere, hura oso krimen berezia da (...) eta botere-harreman bat adierazteko erabiltzen da, kontrolatutako edo bereganatutako lurralde bat menderatzeko ahalmena adierazteko". Gainera, krimena larriagoa da indarkeria hura Estatutik datorrenean.

---

2 Guatemalako CEHren genero-ikuspegiari buruzko azterketa baterako, ikus: Guzmán Orellana (2020).



Kapitulu honetan, eta dokumentuen berrikuspena oinarri hartuta, Guatemalako gatazka armatuan zehar eta bake akordioen ondoren egindako estatu-krimenak epaitzeko zenbait prozesu aurkeztuko ditut. Aipatutako adibide gehienetan, biktimekin batera, hainbat gizarte erakunde izan dira kereila jarri dutenak, biktimen premiei erantzuten ez dien sistema penal horri aurre eginez. Hala, sistema horretan, irismen kolektibo handiko emaitzak lortu dituzte justiziarako sarbideari dagokionez<sup>3</sup>. Kasuak aurkeztu ondoren, kapituluaren bigarren atalean, epai-prozesu horien esanahiei, ekarpenei eta ikaspenei buruzko zenbait ideia emango ditut, biktimen eta prozesuetan parte hartu duten erakundeen ikuspegitik.

## 1. Kasuen auzipetzea Guatemalako sistema penalean

Guatemalan, gatazka armatuaren biktimek nazioarteko justizian eta, pixkanaka, herrialdeko auzitegietan ere eragitea lortu dute. Alde batetik, herrialdean justizia lortzeko zailtasunen aurrean, biktimek Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrera (CoIDH) jo dute. 1999tik 2012ra bitartean, CoIDHk hamabi zigor-epai eman zituen Guatemalako Estatuaren aurka. Zigortutako kasu horietako batzuk kolektiboak dira, hala nola Plan Sanchez de Rabinaleko sarraskia –CEHk 268 biktima erregistratu zituen horretan– eta La Libertad udalerriko Dos Erres herrixkako sarraskia –300 biktimarekin–; eta beste batzuk indibidualak, hala nola Mirna Mack aktibistaren exekuzioa eta Molina Theissen familiaren kasua.

Beste aldetik, estatu mailan, 1993tik 2015era bitartean gatazka armatuarekin zerikusia zuten hamabost kasu epaitu eta zigortu ziren Guatemalako auzitegietan. Epaiketa gehienak 2008 eta 2015 artean izan ziren, Ministerio Publikoak betetzen hasi baitzen CoIDHk biktimen eskaerei erantzuteko agindutako ebazpenak (Impunity Watch, 2015: 45–58). 2019an, hoguei ziren gatazka armatuan gertatutako genozidio, tortura eta bortxazko desagertze kasuengatiko zigor-prozesuak (Hernández Alarcón, 2019).

---

3 Biktimek Guatemalako sistema penalean parte hartzeko lau bide dituzte: salatzaile gisa, lekuko gisa, kereilari gehigarri gisa eta erreparazio-subjektu gisa (Impunity Watch, 2015:43).

Aldi berean, 1990ko hamarkadan gatazka armatuko sexu- eta generokrimenei buruzko nazioarteko arauak eta jurisprudentziak izan duten garapena funtsezkoa izan da Guatemalan sexu-indarkeria genozidio, gizateriaren aurkako krimen eta gerrako krimen gisa epaitzen hasteko. Delitu horretan sartzen dira, Nazioarteko Zigor Auzitegiaren Erromako Estatutuaren arabera (1998), sexu-bortxaketa, sexu-esklabotza, prostituzio behartua, bortxazko haurdunaldia, antzutze behartua edo horiek bezain larria den beste edozein sexu-indarkeria mota.

Jarraian, labur aipatuko ditut Guatemalan epaitutako zenbait kasu, gatazka armatuan zehar eta ondoren izandako giza eskubideen urraketa larriak ulertzen lagunduko dutenak. Horien artean, bada, sexu-indarkeria aurkitzen dugu. Kasu horiek, gainera, justizia penala lortzeko bidean egindako aurrerapenak eta aurkitutako zailtasunak ulertzen lagunduko dute.

## 1.1. Gatazka armatuan gertatutako giza eskubideen urraketak

### **Rios Montt-en aurkako prozesua genozidioagatik, bukatu gabeko bidea**

2013an, Ixil herriaren aurkako genozidioa eta gizateriaren aurkako krimenak epaitzeko prozesuan Efraín Ríos Montt jeneral eta diktadore ohia kondenatu zuten. Epaiaketa oihartzun handia izan zuen herrialdean eta nazioartean. Genozidio gisa kondenatutako egitate horiek CEHK dokumentatu eta 1999ko *Guatemala Nunca Más* (Guatemala: berriro inoiz ez) txostenean erregistratu zituen. Handik gutxira, 2000. eta 2001. urteetan, Justizia eta Adiskidetzarako Elkarteak (AJR) –22 komunitate indigenako gatazka armatuaren hainbat biktimez osatua– eta Giza Eskubideen aldeko Ekintza Legalerako Zentroak (CALDH) bi kereila jarri zituzten Romeo Lucas Garcíaren eta Efraín Ríos Monttten lehendakaritzetan (1981-1982 eta 1982-1983, hurrenez hurren) egindako krimenak epaituak izan zitezten. 1981eko martxotik 1983ko martxora bitartean soilik Armadak 77 sarraski egin zituen Quiché departamenduko Ixil eta Ixcán eremuetan, non, dakigunez, 3.102 biktima izan ziren. Horietatik, Lucas Garcíari 45

sarraski leporatzen zaizkio, 1.678 biktimarekin, eta Ríos Montti 32, 1.424 biktimarekin (Sanford, 2012: 50)<sup>4</sup>.

Victoria Sanfordek, CEHren txosten batean eta bere ikerketa ugarietan oinarrituta, uste du Armadak hiru genozidio-kanpaina egin zituela herritar maien aurka. Lehenengoak sarraskiak eta "lur hondatuko" estrategia uztartu zituen, maia herria -jendea, herrixkak, etxeko abereak eta milpa sakratua- guztiz hondatzeko asmoz. Bigarrenak sarraskietatik bizirik irten ziren horiek jazartzeko eta hiltzeko helburua izan zuen. Horretarako helikopteroak ere erabili zituzten mendian babestutako zibilak bonbardatzeko, eta tropek bonbardaketetatik ihes egiten zutenei tiro egin zieten. Hirugarren kanpainak bizirik iraun zuten pertsonentzako kontzentrazio-esparruak ezarri zituen, "berreziketa-eremuak" eta "ereduzko herrixkak" deiturikoak. Aldi berean, Estatuaren terrorearen aurrean erresistentzia-komunitateak (CPR) sortu zituzten pertsonak jazartzen eta sarraskitzen zituzten (Sanford, 2012: 27).

Epaiketa hura, bada, biktimek justizia lortzeko egindako borroka luze baten emaitza da; izan ere, haientzat oso garrantzitsua zen genozidioaren erantzukizuna urte horietako kargu politiko-militar altuenei leporatzea. Hamarkada batez baino gehiagoz eta 2013an epaiketa egin zen arte, erakunde kereilariek mehatxuak pairatu eta hainbat blokeo gainditu behar izan zituzten. Epaietan 27 entzute izan ziren. Horietan, Ixil herriko 90 biktimak deklaratu zuten eta hainbat arlotako adituen txostenak, dokumentu historikoak eta plan militarrik aurkeztu ziren.

---

4 CEHk Estatuaren erantzukizuna dokumentatu zuen 626 sarraskitan. Quichéko departamenduan kopuru handiena erregistratu zen, 344, alegia; baita txostenean dokumentatutako giza eskubideen urraketan % 45 ere. Hori zenbatekorik altuena izan zen gainontzeko departamenduekin alderatuta (CEH, 1999). Quiché hiriburutik 145 kilometrora dago eta Ixil/Ixcan eremuak horren iparraldean. Ixil Triangelu izenez ezagutzen den eremua Nebaj, Chajul eta Cotzal herriek osatzen dute. 1982an, Guatemalako armadak garbiketa-operazio bat egin zuen Ixil Triangeluan. Horretan parte hartu zuten komandanteek Pobreen Armada Gerrillariari (EGP) laguntzen zioten herri eta herrixka guztiak eta erresistentzia-iturri guztiak suntsitzeko agindua zuten (Sanford, 2012: 40).

Sanforden arabera (2012: 56), "genozidioa generoko ankerkeria bat da, talde kultura suntsitzeko helburua baitu. Horrek esan nahi du komunitate baten oinarri materiala eta bere erreproduzio-gaitasuna suntsitzea. Hortaz, emakumeak eta haurrak dira genozidioaren helburu nagusiak<sup>5</sup>. Epaietan 37 emakume ixilek testigantza eman eta sarraskien esparruan gertatutako giza eskubideen hainbat urraketa salatu zituzten (Impunity Watch, 2015; CALDH, 2018). Testigantza eman zuten 37 emakumeetatik, hamarrek sexu-indarkeriari buruz hitz egin zuten espezifikoki. Hori lagungarria izan zen genozidio asmoa frogatzeko. Epaiaren arabera, sexu-bortxaketak publikoak, masiboak, orokorrak eta sistematikoak izan ziren (Acoguate, 2013) eta delitu hori Ixil herria suntsitzeko saiakerarekin lotuta zegoen:

"Emakumeen aurkako eraso sistematikoa izan zen eta Ixilak suntsitzeko estrategia baten parte. Erasoak neska adingabeen, emakume haurdunen eta andre zaharren aurka egin ziren (...) emakumeak gizakiaren ugalketaz eta kulturaren erreproduzioaz arduratzen dira, beraz, epaileek ulertu ahal izan zuten emakumeen bortxaketa ez zela gerrako ospila soilik, baizik eta gizarte-ehuna urratzeko eta Ixil hazia suntsitzeko bidea. Beraz, sexu-indarkeriako egitateak eta erabilitako metodoak taldea suntsitzeko modua ziren" (CPR, 2013).

Emakume ixilen testigantzari dagokionez, Aura Cumes antropologo kaktxikelaren arabera (2015), haiek "beren itxura hunkigarriarekin, beren egia bare, argi eta duinarekin gogorarazten digute memoria ofizialak mugak dituela" eta, isiltzera behartu bazituzten ere, emakume Ixilek ez zutela ahaztu. Indarkeria aztertzean, Cumesek dio hura ez zela arazo bakana izan, baizik eta emakumeak menderatuz maia herria menderatu nahi izan zutela.

---

5 Genozidioaren une gorenak ezartzeko, Sandfordek sarraskien biktimen generoaren mapaketa egiten du eta ondorioztatzen du, adibidez, 1981ean, emakumeak Rabinaleko sarraskien biktimen % 14 zirela; 1982an, ordea, emakumeak biktimen % 42 ziren. Urte horren erdialdean intersekzio-puntura heldu zen eta 1983an sarraskien biktima gehienak emakumeak ziren (Sandford, 2012: 56-57). Genozidioaren eta feminizidioaren arteko lotura Guatemalako kasuan aztertzeko ikus: Sanford (2019).

“Horrexegatik, ez da patriarkatuari soilik lotutako arazoa, genozidioa birkolonizazio-momentu nagusi bat izan baitzen. Patriarkatua eta kolonialismoa, sexismoa eta arrazismoa gaiztoki uztartu ziren, Armadak, patruiliariek eta ordezkari militarrek emakume maien –eta, gehienetan, landatarren– aurka egindako sexu-indarkeriako egitate sistematiko eta hedatuak normalizatzeko eta inpunitatez janzteko”.

Zentzu horretan, Irma Velásquez Nimatuj antropologo kitxearen ustez, gaur egun emakumeek pairatzen duten indarkeriaren historia historia kolonialarekin eta Guatemalako Estatuaren sorrerarekin lotuta dago. Izan ere, garai hartan ezarri zen gaur arte iraun duen ondare-, erlijio-, ekonomia- eta sexu-erregimena, non emakumeak konkistatzaileen objektu bilakatu ziren<sup>6</sup>.

2013ko maiatzean, Ríos Montti 80 urteko kartzela-zigorra ezarri zitzaion genozidio delituengatik eta gizateriaren aurkako delituengatik, baina epaiari helegitea jarri zioten eta epaiketa errepikatu behar izan zen. Bigarren prozesua 2016an izan zen. Ríos Monttek 90 urte zituen eta zahartzaroko dementziagatik testigantza emateko gai ez zela erabaki zuten. Urtebete geroago, eta 47 entzuzeren ostean, Montt hil zen eta auzitegiak zigor-prozesuari amaiera ematea erabaki zuen. Guatemalako justizia-sistemak ez zuen aplikatu “justizia azkar eta bete”ren printzipioa, nahiz eta hori bete beharra dagoen iraganeko eta oraingo kasuen biktimentzat (CALDH, 2018).

Ríos Montten aurkako prozesua bukatu gabeko bidea izan bazen ere, 2013an lortutako epaia aurrekaririk gabeko garaipena izan zen biktimentzat eta erakunde kereilariarentzat, genozidioaren egia judizial eta soziala nagusitu baitzen, botere politiko eta militarrek hura etengabe ukatzen zuten arren. Gainera, gaur egun ere jarraitzen duen borroka

---

6 Irma Velasquez Nimatuj, Casa Colibrí/Rochoch Tz’ünüm zentroak eta Hegoa Institutuak koordinatutako *Voces Plurales. Estrategias de mujeres contra la impunidad en Guatemala* dokumentaleko elkarrizketa (2020): <<https://multimedia.hegoa.ehu.es/es/videos/127>>. Ikus ere horri buruz lan egiteko Gida didaktikoa hemen: <[https://multimedia.hegoa.ehu.es/videos/127/Guia\\_didactica\\_del\\_documental\\_Voces\\_plurales.pdf](https://multimedia.hegoa.ehu.es/videos/127/Guia_didactica_del_documental_Voces_plurales.pdf)>.

judiziala da; izan ere, 2019ko urrian prozesu penal berri bat abiatu zen Romeo Lucas Garcíaren diktadurako (1978-1982) hiru ordezkari militarren aurka, Ixil herriaren kontra egindako genozidio eta gizateriaren aurkako krimenengatik. Kereila hura 2000. urtean aurkeztu zuten AJR elkarteak eta Artzapezpikutzaren Giza Eskubideen Bulegoak (ODHAG). 2020an egindako tarteko etapako entzuteetan, goi-agintari militarrei sarraskiak eta giza eskubideen beste urraketa larri batzuk leporatu zitzaizkien. Ministerio Publikoak 265 testigantza, 154 auzitegi-txosten, 15 peritu eta 45 dokumentu eta txosten aurkeztu zituen, plan militarrek barne (Impunity Watch, 2020).

### **“Egia esatera etorri gara eta egia esan dugu”.**

#### **Sepur Zarco kasua**

2016ko otsailean, Guatemalako auzitegi batek militar ohi bat eta ordezkari militar ohi bat kondenatu zituen Izabal departamentuan dagoen Polochic haraneko Sepur Zarco komunitateko hamaika emakume maia kektxiren aurka egindako sexu-ındarkeriako, sexu-esklabotzako eta etxeko esklabotzako delituengatik. Gainera, hiru emakume hiltzeagatik eta komunitateko zazpi buruzagi desagertzeagatik ere kondenatu zituzten. Epai horrek garrantzi handia izan du 2011an salaketa jarri zuten biktimentzat, kereilari gehigarri diren erakundeentzat eta emakumeen aurkako sexu-ındarkeria salatzeke mobilizatu den emakumeen eta feministen mugimendu zabal batentzat ere.

1982an, Armadak, ordezkari militarren eta bertako lur-jabe handien laguntzaz, komunitateko zenbait lider identifikatu, atxilotu eta erail edo desagertu zituen, hauek mobilizatu zirelako lantzen zituzten lurren jabe izateko eta lursailetakoa langileek soldata duinak izan zitzaten. Halaber, soldaduek emakumeak bortxatu eta familien etxebizitzak, uztak eta abereak suntsitu zituzten. Handik gutxira, Armadak behin betiko destakamenduak ezarri zituen eskualdean, horietako bat Sepur Zarcon. Horretan, militarrentzako janaria prestatzera eta garbitzera behartu zituzten hainbat emakume eta hauek behin eta berriro eta sistematikoki bortxatu zituzten (Velásquez Nimatuj, 2019).

Epaietan egindako 22 entzuteetan, salaketa egin zuten emakume kektxiak beren testigantza eman zuten eta hainbat peritu-txosten aurkeztu ziren (antropologiko forentseak, militarrek, psikologikoak, generokoak, kulturalak, medikuak, linguistikoak, soziologikoak, etab.). Epaiaren arabera, maia herriaren jazarpenean –hura “barneko etsai”tzat hartzen zuten–, Armadak gerrako xede bilakatu zituen emakumeak; gainera, biktimentzat eta beren komunitateentzat 18 erreparazio-neurri eman zituen. Kasu horretako biktimak, Jalok U kolektiboan antolatuta, neurri horiek bete daitezten lan egiten jarraitzen dute, beren borroka judizialarekin jarraituz:

“Gure ahaleginak, lehenik emakume gisa eta bigarrenik amama gisa, oso garrantzitsuak dira. Egia da justizia egin dela. Orain gure seme-alabentzako eta ilobentzako hezkuntza eskatzen dugu, komunitateko gazteek aukerak izan ditzaten, ez nagusion moduan, ezin izan genuela ikasi. Gobernuak gure aldarrikapenak ezagutzen ditu jada. Urte askoz justizia egiteko zain izan ginen; orain erreparazioaren zain gaude” (Demecia Yat, hemen aipatua: NBE Emakumeak, 2018).

Kasua gogoangarria da gatazka armatuko sexu-krimenengatik justizia exijitzeari dagokionez. Lortutakoa biktimen beren erabakitasunaren emaitza izan zen; baita prozesu juridiko-legal osoa lagundu zuten erakundeen lan zorrotz eta handiarena ere. Erakunde horien artean ditugu, Mujeres Transformando el Mundo (MTM), Guatemalako Emakumeen Batasun Nazionala (UNAMG) eta Ikasketa Komunitarioen eta Ekintza Psikosozialeko taldea (ECAP). Epai 2018ko azaroan izan zen irmoa. Aipatutako erakundeen esanetan, Sepur Zarcoko Amamek “beldurra baztertu eta isiltasuna hautsi zuten barne gatazka armatuan pairatutako sexu-esklabotza eta etxeko esklabotza salatzeke. Hala, aitzindari izan ziren Guatemalako justizian, zeren hura 1960 eta 1996 arteko gerran egindako delituak epaitzeko lehen kasua izan baitzen (MTM, 2018).

### **“Guk justizia lortu behar dugu”. Emakume atxien kasua**

Baja Verapaz departamenduan dagoen Rabinal herriko hainbat komunitateko 35 emakume maia atxi Guatemalako sistema penalean justizia lortzeko prozesuan daude, Autodefentsa Zibileko Patruiletako

(PAC) hainbat kidek eta hainbat ordezkari militarrek 1980tik 1985era bitartean egindako gizateriaren aurkako krimenengatik. Biktimek honako egitate hauek leporatzen dizkiete auzipetuei: sexu-bortxaketak, hilketak, ondasunak kentzea eta giza eskubideen beste urraketa batzuk, gatazka armatuan komunitateen aurka egindako operazio militar kontrainsurgenteen esparruan eginak. Emakume horiek Baja Verapaz eskualdeko Chichupac, Rabinal, Río Negro eta Plan Sanchez herrietan egindako sarrasketatik bizirik irten ziren. Eskualde hura, bada, oso zigortua izan da, izan ere, 1981etik 1982ra bitartean soilik 16 sarraski zenbatu ziren bertan (Acoguate, 2013).

Salaketa hamaika emakumek jarri zuten 2011an eta, gero, beste zenbait salatzailek bat egin zuten. Hala, 2014an 36 ziren<sup>7</sup>, eta Rabinaleko Bufete Juridiko Popularra elkartearen laguntza zuten. Lucía Xiloj bufete horretako abokatu maiaren arabera (hemen aipatua: Coronado, 2018), sexu-indarkeria Atxi genozidioa dokumentatzeko jasotako testigantzetan ere agertzen zen. Kasu hori argitzea lortu ez denez, sexu-indarkeria pairatu eta beren testigantzak eman zituzten emakumeentzat justizia eskatzea erabaki zuten.

Azken urteotan, prozesuan aurrerapausoak eta geldialdiak izan dira, baina emakume atxiek lanean jarraitu dute. 2018an, operatibo bat agindu zen Rabinalen zazpi patruilari ohi atxilotzeko. Sexu-indarkeriako delituak leporatzen zitzaizkien. Hala ere, 2019an, Claudette Dominguez epaileak hiru patruilari ohien behin betiko largespena eta beste hiruren aurkako kasua behin-behinean ixtea ebatzi zuen, ebidentziak nahikoak ez zirela eta kereila-jartzailearen lanean akatsak zeudela argudiatuta; zazpigarren akusatua, berriz, ihes egin zuen Estatu Batuetara.

Irizpen horrek berehalako erreakzioak eragin zituen: emakume atxiek eta Rabinaleko Bufete Juridiko Popularrak helegitea jarri zioten epailearen erabakiari eta kasuaren errekusazioa eskatu zuten. Aldi berean, herrialdeko eta nazioarteko ehun erakundek baino gehiagok

---

7 Horietako bat 2018an hil zen, eta, beraz, gaur egun 35 dira prozesu judizialean jarraitzen duten emakumeak.



komunikatu bat sinatu zuten kereilaren eta epailearen errekusazioaren alde<sup>8</sup>. Nazioarteko emakumeen mugimenduaren beste elkartasun-adierazpen bat, Kolonbiako Cinco Claves Aliantzak 2020ko urtarrilean Guatemalako Apelazio Auzitegian aurkeztutako Amicus Curiae-a izan zen, auzitegi horrek erantzukizuna baitzuen auzi horretan. Amicus Curiae horren helburua zen sexu- eta genero-indarkeriari eta, giza eskubideen nazioarteko estandarren arabera, testigantzak froga gisa duen balioari buruzko azterketarako elementuak ematea<sup>9</sup>. Ahalegin horiei guztiei esker, beste epaile bat izendatu zuten kasu horretarako eta honek bai aurkitu zituen elementu nahikoak patruilari ohiek emakume atxien aurkako sexu-indarkerian parte hartu zutela frogatzeko (Choc Chub, 2020).

### **"Bizi izan genuen guzti hori ezin zen zigorrik gabe geratu".**

#### **Emma Molina Theissen-en kasua**

2018ko maiatzean Guatemalako auzitegi batek Guatemalako Armadako goi mailako lau militar ohi kondenatu zituen Emma Molina Theissenen legez kanpoko atxiloketagatik, torturagatik eta sexu-bortxaketagatik, eta bere neba adingabea, Marco Antonio Molina Theissen, bortxaz desagertzeagatik. Oraindik ere desagertuta jarraitzen du.

Kasu horrek inteligentzia militarrek gatazka armatuan zehar hiri-eremuan operatzeko erabili zuen moduetako bat erakusten du. 1981eko irailean, Emma Molina Theissen Sololá departamenduko Santa Lucía Utatlán herrian atxilotu zuten kontrol militar batean, Quetzaltenangora zihoala. Ikasteko materialak eta Guatemalako Lanaren Alderdiaren panfletoak

---

8 Ikuskomunikatua hemen: <<http://www.ghrc-usa.org/wp-content/uploads/2019/07/Mujeres-ACHIS-espanol-FINAL.pdf>>.

9 Women's Link Worldwide erakundeak eta Kolonbiako lau erakunde feminista hauek osatutako aliantza: Corporación Humanas, Red Nacional de Mujeres, Corporación Sisma Mujer y Colombia Diversa. Alianza 2015ean sortu zen, erakunde horiek bildutako esperientzia baliatuz eta Kolonbiako gatazka armatuko sexu-indarkeriari bestelako trataera bat emateko lan egiteko, nazioarteko estandarren arabera. Aurkeztutako Amicus Curiae-a hemen dago eskuragarri: <<https://www.womenslinkworldwide.org/files/3106/amicus-en-el-caso-de-las-mujeres-indigenas-achi-en-guatemala.pdf>>.

zeramatzan, horretan parte hartzen baitzuen. "Manuel Lisandro Barillas" base militarra eraman zuten eta, bertan, 9 egunez, galdeketak, torturak eta sexu-bortxaketak egin zizkieten. Azkenik, ustekabea, ihes egitea lortu zuen. Handik bi egunera, zigor gisa, bere familiaren etxean indarrez sartu ziren eta neba txikia matrikula ofizialeko ibilgailu batean eraman eta desagerrarazi zuten (CEJIL, 2019).

1997an, Molina Theissen familiak salaketa aurkeztu zuen Guatemalako epaitegi batean, baina herrialdeko sistema penalarren zabarkeria ikusita, giza eskubideen sistema interamerikarrera bideratu zituzten ahaleginak. 1998an, Justiziaren eta Nazioarteko Zuzenbidearen aldeko Zentroak (CEJIL) eta Elkar Laguntzeko Taldeak (GAM) Guatemalako Estatuaren aurkako salaketa bat aurkeztu zuten aipatutako egitateengatik Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrean (CIDH). Hala, 2004an, Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak zigorra ezarri zion Estatuari, giza eskubideak sistematikoki urratzeagatik eta horiek babesteko betebeharra ez betetzeagatik.

2016an, Guatemalako Ministerio Publikoak akusatutako bost militar ohiak atxilotu zituen. Epaiketa 2018an garatu zen eta, azkenik, Gorteak erruduntzat jo zituen bost militar ohietako lau, gizateriaren aurkako krimenengatik, Emmaren kasuan larrigarriarekin egindako bortxaketagatik, eta Marco Antonioren kasuan bortxazko desagertzeagatik. Lucrecia Molina biktimen senidearen ustez, epaiketak "irudi boteretsua" eskaini zuen, "erantzule horiek herri honetako beste edozein herritar bezala epaituak eta beren ekintzengatik kontuak ematen ikusteak". Epaia horrek garrantzi handia du, besteak beste, kondenatuek gatazka armatuko errepresio-politikan izan zuten maila, botere eta arduragatik<sup>10</sup>.

---

10 Honako hauek dira kondenatuak eta momentu horretan zuten karguak: Manuel Benedicto Lucas García, Defentsako Estatu Nagusiko burua 1981etik 1982ra bitartea; Manuel Antonio Callejas Callejas, Inteligentzia Militarreko burua; Francisco Luis Gordillo Martínez, Quetzaltenangoko "Manuel Lisandro Barillas" base militarreko burua; y Hugo Ramiro Zaldaña Rojas, Quetzaltenangoko Brigada Militarreko inteligentziako ofiziala (CEJIL, 2019).

## 1.2. Gatazka armatuaren osteko giza eskubideen urraketak

**“Egia besterik ez nuen esan, ez nintzen okertu”.**

**Juana Méndezen kasua**

Kasu hau inflexio-puntu bat da gatazka armatuaren ostean Estatuaren segurtasun-indarren eskutik sexu-indarkeria pairatu duten emakume indigenek justizia penala lortzeko borrokan. 2005eko urtarrilean, Polizia Nazional Zibileko zenbait agentek Juana Mendez bortxatu zuten polizia-etxean atxilotuta zegoela. Juana Mendezek eta hura prozesuan lagundu zuten Guatemalako Zientzia Penalei buruzko Ikasketa Konparatuen Institutuaren (ICCPG) Justizia Penaleko eta Generoko Programako zenbait abokatuk egindako ahalegin handiari esker<sup>11</sup>, 2008ko apirilaren 16an, Santa Cruz de Quichéko lehen instantziako epaitegiak 20 urteko kartzela-zigorra ezarri zion akusatutako polizietako bati.

Juana Méndez Ustapán udalerriko Macalajua herrixkako emakume maia kitxea da, elebakarra eta hamaika seme-alaba dituena. 2004ko abenduan atxilotu zuten, ustez bere etxetik hurbil marihuana landatzeagatik, eta inolako ikerketarik eta epailearen ikerketarik gabe. Hasiera batean Chimaltenangora eraman zuten eta 2005eko urtarrilaren 17an Nebajera eraman zuten lehen deklarazioa eman zezan<sup>12</sup>. Bertan, gizonentzako ziega batean sartu zuten eta barroteetara bilurto zuten. Gauez, hainbat poliziak bulego batera sartzera eta biluztera eta haien aurrean ibiltzera behartu zuten. Ondoren, bertan jarritako koltxoi baten bortxatu zuten. Gero, bainatzera behartu zuten, bortxaketaren aztarnak ezabatzeko helburuz. Hurrengo egunean, Juana Méndezek bortxaketa salatu zuen epailearen aurrean eta honek azterketa mediku bat eskatu zuen. Azterketa Nebajeko Ospitale Nazionaleko funtzionario batek egin zuen, sexu-indarkeriako protokoloak ezagutzen ez zituen (Gaviola 2008; Sieder, 2019).

---

11 Etapa horretan programa honako hauek osatu zuten: Ana Lucía Morán, Paula Barrios eta Nydia Corzantes, eta Claudia Paz y Paz Institutuaren zuzendaritzan.

12 Guatemalako legearen arabera, lehen deklarazioa 24 orduko epean egin behar da gehienez.

Prozesuaren sistematizazio sakon batean, Edda Gaviolak (2008) ICCPGren lau estrategia handi identifikatu ditu. Lehenik, kasuan zuzenean lan egiten ari ziren pertsonen babes eta segurtasun instituzionala ematea, larderia eta mehatxuak jasan baitzituzten<sup>13</sup>. Bigarrenik, biktimari ikuspegi integral batetik emandako laguntza psikosozialak irregulartasunez beteriko prozesu bati aurre egiten lagundu zion. Hirugarrenik, hedabideek gertatutakoari buruz informatzea eragiteko estrategiaz gain, prozesuak aliantzak eragin zituen erakunde feministen eta giza eskubideen erakundeen artean; izan ere, horiek Juana Méndezentzat justizia eskatzeaz gain, kasua paradigmatico gisa aurkeztearen indarra ulertu zuten, Estatuaren erakunde polizialen nagusikeria-kultura salatzeke. Azkenik, ICCPGk kasuak izan zituen gertaera eta premietara instituzionalki egokitu behar izan zuen. Institutuko abokatu kereilariak buru-belarri lan egin zuten ikerketan, frogak bilduz, adituen-txostenak bermatuz, etab. Hala, ICCPGk kereilari gehigarri gisa egindako lana Ministerio Publikoarena baino erabakigarriagoa eta aktiboagoa izan zen.

Prozesuan zehar, hainbat erakunde feminista mobilizatu ziren, besteak beste, Juana Méndez elkartasuna eta aintzatespena adieraziz; entzuteetan Juana politikoki lagunduz, martxan jarri zuten "Justiziaren Karabana"ren ekintzen bitartez; eta ikerketaren anomaliak salatuz; eta emakumeen aurkako indarkeria salatzen jarraitzeko baliatu zuten kasua. "Guztiak gara Juana Méndez" leloa erabili zen justiziaren aldeko borroka horren izaera kolektiboa azpimarratzeko (Gaviola, 2008).

**"Gure eskubidea babesten dugu eta ezin gaitu inork atera".**

**Lote Ocho edo Chacpayláko emakume kektxiaren kasua**

2020ko urrian, Mujeres Transformando el Mundo (MTM) erakunde feministaren laguntzaz, hamaika emakume maia kektxi kereila bat aurkeztu zuten 2007an Izabal departamenduan dagoen El Estor udalerriko Lote Ocho edo Chacpaylá komunitatetik irtenarazi zituztenean jasan zuten sexu-indarkeria salatzeke. Salaketa Guatemalako Nikelaren Konpainiaren

---

13 Adibidez, 2006an, Juana Méndezek kasuan lan egiten zuen Paula Barrios abokatuaren etxean indarrez sartu ziren.

(CGN) aurka aurkeztu zuten, garai hartan Kanadako Skye Resources konpainiarena zena. Meatzaritza-konpainia hura izan zen komunitatea indarkeriaz hustea eskatu zuena eta operazioa enpresaren beraren segurtasun pribatuko kide askok, Armadak eta Polizia Nazional elkarrekin Zibilak burutu zuten.

Luz Méndez eta Amanda Carrera ikertzaileek modu zehatzean dokumentatu dituzte gertakariak eta haien arabera (2014: 77-80), erasotzaileek organo eskudunen inolako jakinarazpenik gabe jardun zuten, negar eragiteko bonbak jaurti zituzten, su-armekin tiro egin zuten, etxebizitzak eta horien edukia erre zituzten, hala nola oinarritzko tresnak eta aleak, eta motozerrak erabili zituzten etxebizitzak eta erabilera komunitarioko beste gune batzuk eraisteko. Momentu horretan gizonak lanpoan zeuden nekazaritza-lanak egiten eta emakumeei galdeketak egin zizkieten gizonak eta batez ere Lurren Batzordeko kideak non zeuden jakiteko eta gero pistolaz bortxatu zituzten, operatiboaren plangintzaren zati gisa.

Kasu hura Sepur Zarcon 1980ko hamarkadan gertatutakoaren antzekoa da eta Estatuko segurtasun-indarrek gatazka armatuan zehar erabilitako *modus operandi* bera erakusten du, baita errepresioak lurraren auziarekin duen lotura estua ere. Gainera, erakusten du gatazka armatuaren amaierak ez zuela ekarri gatazka armatuan zehar sortutako egitura kontrainsurgenteak desagitea. Iraganeko jardunbideak –espoliazioaren aurrean eusten zuten komunitate maietako emakumeen aurkako sexu-indarkeria barne- mantentzen dira oraindik ere; eta biktimek eta gizarte erakundeek indarkeriaren eta zigorgabetasunaren jarraitutasun hori salatzen dute.

Lote Ocho edo Chacpayláko emakume kektxiak aurkeztutako kereilaren aurretik, beste ekintza legak batzuk egin ziren nazioartean. Hala, 2011an, Ontarioan, hiru salaketa aurkeztu zituzten Kanadako Hudbay Minerals, HMI Nikel eta azken honek Guatemalan zuen CGN enpresen aurka<sup>14</sup>. Lehenengo

---

14 2008an, Kanadan erregistratutako HudBay Minerals transnazionalak Skye Resources enpresa erosi eta HMI Nikel izena jarri zion. Gerora, enpresa biak fusionatu ziren.

salaketa horretan, hamaika emakumeek Torontoko Auzitegietan aurkeztu zuten sexu-indarkeriako kasua eta, hura onartu zenez, 2017an salatzaileek auzitegiaren aurrean hitz egiteko aukera izan zuten (Duyos, d.g.: 35). Kanadan aurkeztutako bigarren salaketa German Chub gazteak aurkeztu zuen. 2009an, Las Nubes komunitatetik ez botatzeko egindako protesta baketsu batean CGNren segurtasun pribatuko agenteek tiro egin zioten eta, horren ondorioz, paraplegiko geratu zen. Hirugarren salaketa Angélica Choc-ek aurkeztu zuen, bere senarra Adolfo Ich Chamán buruzagi komunitario, irakasle eta lurraren defendatzailearen hilketagatik. Hura ere CGNren segurtasun-agenteek hil zuten, 2009ko irailean.

Lote Ocho edo Chacpaylako emakume kektxiak egindako salaketa aurrera doa oraindik eta haiek egin bezala, German Chubek eta Angélica Chocek salaketak aurkeztu zituzten Guatemalako auzitegietan ere. Urte asko geroago, 2021eko urtarrilean, CGN enpresako gerente izandako Mynor Padilla teniente koronelaren aurkako zigor-epaiak eman ziren, hainbat pertsonari –haien artean German Chubi– eragindako lesioengatik eta Adolfo Ich Chamánen hilketagatik. Angélica Chocentzat hura "garaipen txiki eta baliotsua" da herrialdearentzat "oso zaila baita munstro horien aurka, hau da, dirua botatzea kostatzen ez zaien enpresa horien aurka borrokatzea". Angélica Choc gogoz borrokatu da justizia lortzeko eta horren ondorioz, jazarpena, mehatxuak eta bera eta bere seme-alabak hiltzeko saiakerak jasan ditu (Movimiento Mesoamericano contra el Modelo extractivo Minero, 2016). Hubday Mineralsen aurka Kanadan aurkeztutako salaketari dagokionez, Chocek argitasun beraz ikusten du prozesuaren balioa:

"Defendatzaile komunitario gisa, gure borroka ikusezinak dira agian, baina gauza handiak lortu ditugu. (...) Haiek dirua izango dute, baina nik justizia lortu arte borrokatzen jarraitzeko jakintza dut. (...) Lurren zaindaria izan gara hainbat urtez, gure aitaita-amamak bezala, baina enpresek ez dute hori ulertzen" (Angélica Choc, hemen aipatua: Pérez, 2021).

Emakume horiek prozesuaren kostu pertsonalez jabetzen dira eta aurre egiten ari diren enpresa transnazionalak Guatemalan zein Kanadan

botere ekonomiko eta politiko handia dutela dakite. Hala ere, historikoki espoliatua izan den herri baten parte izatearen kontzientzia politikoa dute eta horrek, bada, lortutakoa azpimarratzera eta meatzaritza-enpresek Guatemalan egindako krimenengatik erantzun dezaten lortzeko borrokatzen jarraitzera daramatza.

## 2. Prozesu judizialen esanahiak, lorpenak eta ikaspenak

### 2.1. Eskubideen subjektu izatearen kontzientzia indartzea

Estatuaren indarkeriaren aurrean justizia penala exijitzen duten biktimen presentzia publikoa gero eta handiagoa da Guatemalan. Kereila kriminalak aurkeztu dituzten emakume indigenen kasuan, erakusten duten erabakitasuna beren adonearen eta eskubideen subjektu izatearen kontzientziaren emaitza da, eskubide horiek erabili nahi baitituzte zigorgabetasunari aurre egiteko eta justizia lortzeko eta jasandako kalteengatik erreparazioa jasotzeko; hori guztia Estatuak herri indigenekin duen zorra ordaintzeko modu bezala.

“Nahi duguna da galera guztiak itzultzea; guk, emakume garen aldetik, osasun-arazo handiak ditugu. Gobernuari dagokionez, berak suntsitu zuena onartzea ere nahi dugu. Ez gaude limosna eskatzen ari, edo gustuz, ez; guk eskubidea dugu gobernuak aurreko gobernuak egindakoa aitortu eta konpon dezan” (Juana, emakumeen atxien taldeko auzi-jartzailea)<sup>15</sup>.

“Indigenontzat justizia egotea espero dut, gobernuak bere erantzukizuna betetzea, zeren indigena bezala askotan diskriminatuak baikara, pobreak garelako. Ez soilik diru edo botere asko dutenei edo

---

15 UNAMGek egindako *Desde las voces de las mujeres. El camino hacia la justicia* (2015) dokumentaleko elkarrizketa: <<https://v2.unamg.org/videos/caso-sepurzarco/desde-las-vozes-de-las-mujeres>>.

espainola hitz egiten dutenei; guri ere entzutea nahi dugu” (Cecilia, Ixil genozidioaren kasuko auzi-jartzailea)<sup>16</sup>.

Lurrak itzultzea eta titulartasuna lortzea erreparazio-neurri nagusi bezala eskatu izan da epaitutako kasu gehienetan. Sepur Zarco kasuko auzi-jartzaile ezagunetako bat den Demecia Yat-ek azpimarratu bezala (hemen aipatua: NBE Emakumeak, 2021):

“Oraindik justiziak onartu zizkigun erreparazio-neurrien zain gaude; horien artean, garrantzitsuena lurren arazo legala konpontzea da. Hura konpontzen ez bada, ezin izango ditugu gainontzeko erreparazio-neurriak jaso”.

Hortaz, elementu hori funtsezkoa da, lurrak kentzea herri indigenen aurkako indarkeriaren egiturazko arrazoietako bat baita, gatazka armatuaren 36 urteez harago doana. Hura, bada, kolonizazioarekin batera ezarri zen eta Estatuaren babesa duten enpresa transnazionalen eta nazionalen praktika orokortua da oraindik ere. Zentzu horretan, Aura Cumesen ustez (2015), “genozidioa eztabaidatzeak errepresio politikoko urteetan berrantolatutako indarkeria koloniala eztabaidatzea eskatzen du, emakume maien esperientzia erdigunean jarritz. Izan ere, indarkeria hura gaur egungo sistema da”.

## 2.2. Egia ezagutzea

Biktimen justizia eskaerei dagokionez, beste alderdi nabarmen bat da indarkeriari buruzko egia onartzeko eskaera. Izan ere, Estatuaren erakundeek, historikoki, egia hura ukatu dute. Egia onartzeko eskaera epaiketetan emandako testigantzetan ageri da behien eta berriro, baita emakumeek egindako salaketa sozialeko beste hainbat ekintzetan ere: “gertatutakoari buruzko egia jakitea nahi dugu”. Prozesu judizialeetan dauden emakumeentzat, jendaurrean jartzeak kostuak ditu, baina uste

---

16 UNAMGek egindako *Desde las voces de las mujeres. El camino hacia la justicia* dokumentaleko elkarrizketa (2015): <<https://v2.unamg.org/videos/caso-sepur-zarco/desde-las-vozes-de-las-mujeres>>.



dute oso garrantzitsua dela haientzat eta gizartearentzat egia hori sozialki eta juridikoki aintzat hartzea.

Egia hori, bada, Estatuaren politika genozidak eragindako sufrimendu kolektiboek dagokie, hala nola hilketek, goseari, lekualdatze behartuari, etxeak suntsitzeari, lurrak kentzeari eta abarri, baita emakumeen aurkako beste egitate batzuei ere –maiz, isilpean gorde behar izan dituztenak–, hala nola sexu-indarkeria. Batez ere sexu-indarkeria kasuei dagokienez, estrategikoa izan da emakumeen testigantzei froga-balioa ematea, sistema judizialak zalantzan jartzen baitu etengabe emakumeen sinesgarritasuna eta, maiz, ezinezko froga-betekizunak eskatzen baititu. Emakume horien jarraitutasunak, prozesu judizialean aurkitzen dituzten zailtasunak gorabehera, erakusten du funtsezko balioa ematen diotela sistema judizialak beren hitza aintzat hartzeari.

“Pozten nau nire testigantza epaitegian eman izanak, nik pentsatzen bainuen bakarrik geundela eta ez da hala; bertan beste pertsona asko zeuden eta pozten nau guztiek nire historia ezagutzea. [...] Emakumeek bortxaketak pairatzen dituzte oraindik ere baina salatze beldurra dute. Niretzat ez dago jada beldurrik, epaitegira jo behar dugu. Lehen ez zegoen legerik, baina orain badago, orain agintariak daude, dagoeneko ez dago beldurrik” (Elena, Ixil genozidioaren kasuan testigantza-emailea, hemen aipatua: Mujeres Ixchel, 2015).

Ikus dezakegunez, egia publikoki aintzat hartzeak duen garrantziaz gain, aurreko testigantzak erakusten du prozesu judizialean parte hartzeak gertatutakoari buruz hitz egiteko beldurra gainditzen lagundu diela zenbait emakumeri. Hala, indarkeria pairatzen ari diren beste emakume batzuk hori salatzerantz animatzen dituzte.

### 2.3. Erantzuleak zigortzea

Aurrekoari lotuta, zigor penalak lortzeko helburua ere justizia eskatzeko prozesuen elementu nagusietako bat da. Hala adierazten zuen Sepur Zarcoko Demencia Yatek 2015ean, oraindik prozesu judizialean

zegoenean: "niretzat justizia da atxilotu biak kondenatzea"<sup>17</sup>. Luz Méndez Gutiérrezek eta Amanda Carrera Guerrak egindako ikerketak hala berresten du (2014: 66):

"Sepur Zarcoko emakumeen justizia-eskaera nagusia da krimenen egileei zigor penala ezartzea. Justizia-sistemak egitate horiek ikertzea eta erantzuleak zigortzea eskatzen dute. Mariana Maquínek honako hau salatzen eta exijitzen du: 'Banatu gintuzten, senarrak hil eta bortxatu gintuzten. Justiziari aurre egin behar diote. Hiltzaileak kartzelara bidali behar dituzte' (SZ-01, elkarrizketa, 12/06/2020)".

Justizia bide penaletik bilatzeak eta zigor-epaiak eta erreparaziora bideratutako epaiak lortzeak giza eskubideen urraketak historian idatzita uzteko aukera da demandatzaileentzat. Edda Gaviolaren arabera (2008), Juana Méndezen kasuan, adibidez, zigor-epaiak hainbat helburu lortzeko aukera eman zuen: "Helburu nagusia Juana Méndezentzat justizia egitea izan zen, hain krimen larriagatik. Gainera, polizia-etxeetan abusu polizialeko eta sexu-torturako historia bat dagoela egiaztatu zen, hainbat agintarik ez baitzuten hori aintzat hartzen. Eta frogatu zen justizia-sistemak funtziona dezakeela, badaudelako legearekin konprometitutako justizia-funtzionarioak".

Kasu horren prozesu penalean epaiak duen balioari dagokionez, Emma Theissenen arabera (2018) "horrek esan nahi du historia beste modu batera idatziko dela eta frogatu ahal izango dela Armadak bere estrategia kontrainsurgentearen esparruan ekintza kriminalak egin zituela, bai haien lege errepresiboen ikuspegitik eta bai, jakina, giza eskubideen ikuspegitik, horiek gizateriaren lorpen nagusietako bat direlarik".

Antzeko adierazpenak egiten ditu Angélica Choc maia kektxi etniako aktibistak. Hark, epaitegietan hamabi urtez borrokatu eta CGN Guatemalako Nikel Konpainiaren segurtasun-gerente ohiarentzat kartzela-zigorra lortu

---

17 UNAMGek egindako *Desde las voces de las mujeres. El camino hacia la justicia* dokumentaleko elkarrizketa: <<https://v2.unamg.org/videos/caso-sepur-zarco/desde-las-vozes-de-las-mujeres>>.

zuen, bere senarra hiltzeagatik, eta antzeko egoeretan dauden emakumeak bide judizial horretan lan egitera animatzen ditu: "Bila dezagun justizia Guatemalan; izan ere, gure aurka egin diren urraketa guztiak salatzen ez baditugu ez da inoiz jakingo zenbat sufritu dugun. (...) Justizia bilatzea prozesu mingarria eta nekagarria da, baina justizia lortzeko indarra bilatu behar dugu" (Prensa Comunitaria, 2021).

## 2.4. Gertatutakoa ez errepikatzeko oinarriak

Emakume auzi-jartzaileek prebentibotzat ere hartzen dituzte prozesu judizialak; izan ere, beren helburuetako bat da indarkeria-egitate horiek berriro ez errepikatzea. Juana Méndezek honela azaldu zuen 2008an: "justizia egitea nahi dut, ez dut nahi nik bizi izandakoa beste emakume bati gertatzea, ez baita bidezkoa" (hemen aipatua: Alvarado, 2008).

2010ean, *Gatazka armatuko emakumeen aurkako indarkeria epaitzeko Kontzientzia Auzitegia*<sup>18</sup>, testigantza-emailetako batek honako hau adierazi zuen:

"Gure hitza entzuna izateak lasaitzen gaitu nolabait, eta emakumeen aurkako indarkeria hori betiko gelditzea. Izan ere, Bake Akordioak sinatu baziren ere, emakumeak bortxatzen jarraitzen dute. Albisteetan entzuten da emakumeak mutilatzen dituztela, neskak bortxatzen, eta

---

18 Sexu-indarkeriako delituaren inpunitate handiaren aurrean, Guatemalako emakumeen eta feministen hainbat erakundek auzitegi sinbolikoak antolatu dituzte, epaiketa arrunt baten prozesura gehienak eginez: akusazio fiskala, frogak eta testigantzak aurkeztea, adituen txostenak aurkeztea eta amaierako epaia. Adibidez, 2010ean *Gatazka armatuko emakumeen aurkako indarkeria epaitzeko Kontzientzia Auzitegia* egin zen. Auzitegi horren garapen eta eduki osoa hemen kontsulta daiteke: Mendia Azkue eta Guzmán Orellana (2012). Auzitegi horrek funtsezko eginkizuna izan zuen gatazka armatuan sexu-indarkeria pairatu zuten emakumeak sistema penalean justizia eskatzeko prestatzeari dagokionez. Paula Barrios abokatu feministaren arabera, ekintza sinboliko horrek indarra eman zien testigantza eman zuten biktimei, justizia formaleko froga-mekanismoak aurkezteko adibidea izan zen eta, batez ere, emakumeen hitza erdigunean jarri zuen (hemen aipatua: NBE Emakumeak, 2020).

hori isilpean geratzen da oraindik ere, ez baita egon indarkeria hori zigortzeko prozesu egokirik" (Alta Verapazeko testigantza-emailea, hemen aipatua: Mendia Azkue eta Guzmán Orellana, 2012: 33).

Emma Molina Theissenen ustez (2018), salaketak eta bizi izandako prozesu judizialak zentzua du, "gertatutakoa ez baita zigorrik gabe geratuko". Bere hitzetan "justizia aukera bat da pertsonen eskubideak urratzen dituzten pertsonak epaitzeko eta zigortzeko legeak egon daitezen, inolako bereizketarik gabe". Hala, epaiketak lagungarriak dira "legea eta justiziaren instituzionaltasuna indartzeko –gatazkak konpontzeko modu zibilizatu gisa– eta indarkeria baztertzeko –gizarte-harremanen modu nagusi gisa–".

## 2.5. Aurrekari motibagarriak ezartzea

Eremu penalean egindako azken lorpenak motibagarriak dira beste biktima batzuek borroka judizialak abiaraz, jarrai edo indar ditzaten. Hala, prozesu penalak garatzeari dagokionez, biktimen artean elkartasun-harremanak sortu dira pixkanaka. 2019ko ekainean, Kontzientzia auzitegia. Iraganeko eta gaur egungo sexu-indarkeria krimena da izenez ospatutako kontzientzia auzitegian, Sepur Zarcoko emakume kektxiak eta 35 emakume auzi-jartzaile atxiek elkar ezagutu zuten. Azken hauek, kasua bideratzen zuen epailearen blokeoa jasaten ari ziren. Sepur Zarcoko Demencia Yat-ek honako hau esan zien emakume atxiei:

"Zuek gure arreba maiak zarete eta orain zuekin hainbat ezagutza partekatzeke eta zuekin gaudela adierazteko momentua da. Ozen hitz egin behar dugu justiziak gure hitza entzun dezan".

Horrelako topaketa solidarioriek balio sinboliko eta politiko handia dute eta erakusten du batzuen esperientziek beste batzuenak indar ditzaketela. Emakume biktimen arteko elkartasuna da, Gutemalako mugak gainditzen dituen. Adibidez, 2019an, Sepur Zarco kasuko auzi-jartzaile kektxien taldeko zenbait kide, zenbait emakume ixil eta Emma Molina Theissen El Salvadorren elkartu ziren El Mozoten eta inguruan gertatutako sarraskiaren zenbait biktima eta seniderek. 1981ean, El Salvadorreko armadak 1.000

pertsona inguru hil zituen bertan eta biktima eta senide horiek justizia penala lortzeko prozesuan daude. Kasu horren biktimak laguntzen dituen Sol Yáñez psikologoaren arabera, Guatemalako emakumeen esperientzia entzutea inflexio-puntu bat izan zen El Salvadorreko biktimentzat eta prozesu psikosozial eta judizialean parte hartzeko motibazioa indartu zien<sup>19</sup>. Duela gutxi, Sepur Zarcoko emakumeek beren esperientzia partekatu dute Kolonbiako Justizia Sistema Integralean sartu diren gatazka armatuaren biktima diren emakume kolonbiarrekin ere (NBE Emakumeak, 2021).

## 2.6. Laguntza juridiko-legalaren inguruan antolaketa sortzea

Ministerio Publikoari eta horrek 2005ean sortutako Giza Eskubideen Fiskaltzari baino gehiago, aipatutako kasuen ibilbide judiziala zor zaio batez ere biktimek eta giza eskubideen eta emakumeen eta feministen erakundeek osatutako elkarte sareari; izan ere, haiek kereilari gisa parte hartu dute kasuetan eta, hala, funtsezko subjektu bilakatu dira demandak ikertzeari eta aurrera eramateari dagokionez. Aipatutako erakunde mistoek –besteak beste, AJRk, CALDHk, ICCPGk edo Bufete Popularrak– eta erakunde feministek –hala nola MTMk, UNAMGek eta ECAPeK–, zeregin estrategikoa izan dute kasuen judizializazioan eta auzi estrategikoan, hau da, kasu ezagunetan eta eragin sozial eta politiko handikoetan ahaleginak batzeko.

Zenbait kasutan, erakunde horiek prozesu judizialak indartzeko elkartu dira, batez ere paradigmaticoak izan zitezkeen horiek eta beste biktima batzuentzat eta, oro har, Guatemalako gizartearentzat esanguratsuak izan daitezkeen aurrekariak ezar zitzaketenak. Horren adibide da MTMk, UNAMGek eta ECAPeK osatutako "Alianza Rompiendo el Silencio y la Impunidad" (Isiltasuna eta Inpunitatea hautsiz Aliantza) ekimena. Erakunde horiek gaitasunak batzea erabaki zuten, sexu-indarkeriaren biktimak laguntzeko eta indartzeko estrategia zabalak egiteko helburuz, eta hori funtsezkoa izan da, adibidez, Sepur Zarco kasuan.

---

19 Elkarrizketa pertsonala Sol Yáñezekin, Bilbo, 2020ko abendua.

"Aliantzak sortzea funtsezko estrategia izan da justizia lortzeko, zeren talde edo erakunde bakar batek ere ezin baitu bere kabuz gatazka armatuko sexu-indarkeriako krimenen zigorgabetasunari aurre egin" (Méndez eta Carrera, 2014: 69).

Gainera, prozesu judizialekin batera beste estrategia batzuk ere bultzatu dira, hala nola biktimei laguntza psikosoziala ematea, eskubideen, ahalduntzearen eta antolakuntza indartzearen ikuspegi batetik; sentsibilizazio-kanpainak egitea, memoriaren eta erreparazioaren inguruan pedagogia soziala egiteko; mobilizazio-ekintzak egitea, epaiketetan blokeoak eta biktimen aurkako mehatxuak salatzeko; edo borroka judizialen artean esperientziak partekatzea.

### 3. Azken gogoetak

Guatemala Erdialdeko Amerikako herrialderik nabarmenena izan da gatazka armatuan eta estatu-politika genozida eta kontrainsurgenteen esparruan egindako giza eskubideen urraketa larriak zigortzea sozialki bultzatzeari dagokionez. Gainera, emakumeen –batez ere emakume maien– aurkako sexu-indarkeriako kasuen judizializazioan aurrerapen handiak egin dira. Azken hiru hamarkadetan Guatemalako justizia-sisteman sustatutako prozesuak ez dira inola ere proportzionalak gertatutako indarkeriaren eta Estatuak ordaintzeko duen zorraren dimentsioekiko. Hala ere, prozesu horiek eta lortutako zigor-epaiak oso positiboak dira, ez soilik biktima zuzenentzat baizik eta, oro har, Guatemalako gizartea osoarentzat. Izan ere, iraganeko indarkeria-egitateek orainaldia interpelatzen dute eta inpunitatea oso instituzionalizatuta dago.

Bide judiziala luzea eta oztopoz betea da. Maiz, biktimek laguntza behar izan dute epaiketei aurre egiteko eta eusteko. Zentzu horretan, Guatemalako esperientziak erakusten du laguntza psikosoziala salatzeko erabakiaren katalizatzailea izan dela estatu-indarkeriaren biktima diren emakume askorentzat, lagundu baitie indibidualki eta kolektiboki indartsu sentitzen justizia-sistemari aurre egiteko; izan ere, hura patriarkala, arrazista, klasista eta koloniala izan da eta izaten jarraitzen du.

Kasu gehienetan, auzi-jartzaileak emakume maia elebakarrak izan dira, espainola hitz egiten ez zutenak, landatarrak eta pobretuak. Haiek, Guatemalako Estatuaren aurrean duten mesfidantza gorabehera –hura baita beren herrien aurkako indarkeria historiko eta estrukturalaren erantzule nagusia–, auzitegietan justizia exijitu nahi izan dute. Sistema justizia- eta erreparazio-eskaera horiei erantzutetik urrun badago ere, auzi-jartzaileak, orain arte lortutako aurrerapenen bitartez, gatazka armatuko eta gerraosteko estatu-krimenen zigorgabetasun juridikoaren normalizazioa hausten laguntzen ari dira.

Justizia exijitzearen erronka handienetako bat lurra izateko eskubideari dagokio. Hori da, hain zuzen ere, prozesu judizialean parte hartzen duten emakume horiek argi adierazitako eskaera nagusietako bat, eta Guatemalako gatazka armatuaren eta gaur egun ere herri maien aurka erabiltzen den indarkeriaren oinarrizko auzietako bat da. Izan ere, CEHK dokumentatutako giza eskubideen urraketen % 90 jatorrizko herrien bizilekuetan gertatu ziren, hiriburuetatik eta departamendu-buruetatik urrun; hain zuzen ere, kolonia-garaitik lurra eta lurraldea bereganatzeko liskar historikoa duten landa-eremuetan. Hortaz, zenbait emakume maiak, hala nola Aura Cumesek (2015), patriarkatua ez ezik, beste azterketa-tresna batzuk kontuan hartzera gonbidatzen gaituzte, sexu-indarkeria eta arrazari, etniari eta klaseari dagozkien indarkeriak nola lotzen diren ulertzen lagunduko digutenak, horien bitartez justiziaren praktikak konplexutuko eta aberastuko baitira<sup>20</sup>.

Erakunde patriarkal, arrazista eta klasistetan justizia exijitzeko beharrezkoa da eskubide- eta duintasun-kontzientzia handia izatea, baita ardura-zentzu sakon bat ere, batez ere kaltea soziala eta kolektiboa izan denean. Isiltasuna haustean, beste batzuekin elkartzean eta justizia-sisteman bertan bideak urratzean, horrek dakarren kostuekin, emakume auzi-jartzaileek, beren errealitatea eraldatzen, gertatutakoaren historia berridazten eta Guatemalan eta beste herrialde batzuetan antzeko egoeran dauden emakumeen borrokak inspiratzen lagundu dute. Biktima maia ixil baten

---

20 Emakume indigenen justiziarako sarbideari buruzko hausnarketan ikuspegi integral eta intersektzionaletatik sakontzeko, ikus Sieder (2019).

hitza justizia-zentzu horren ildotik doa: "Justizia da guri entzutea, esaten duguna entzutea, galdu genuen hori berreskuratzen laguntzea (...). Ez naiz bakarra, hainbat emakume gara, elkarri laguntzen diogunak. Aske sentitzen naiz isiltasuna hautsi nuelako; dagoeneko, ez dut hitz egiteko beldurrik. Justizia bide bat da, datozen belaunaldiei uzten diedan historia"<sup>21</sup>.

## Erreferentziak

ACOGUATE Acompañamiento Internacional (2013): "Las mujeres como agentes de cambio del Sistema de Justicia", abenduaren 26a. <<https://acoguate.org/las-mujeres-como-agentes-de-cambio-del-sistema-de-justicia>>.

Alvarado Chávez, Maya (2008): "Todas somos Juana Méndez", *Periódico laCuerda*, 11. urtea, 110. zkia., Guatemala. <<http://lacuerdaguatemala.org/archivo-pdf>>.

CALDH (2018): *Juicio contra Ríos Montt por genocidio ixil*. <<https://caldh.org.gt/?p=89>>.

Casa Colibri/Rochoch Tz'ünüm eta Hegoa Institutua (2020): *Voces plurales. Estrategias de mujeres por la memoria y la justicia en Guatemala*. Dokumentala. <<https://multimedia.hegoa.ehu.es/es/videos/127>> eta Gida didaktikoa. <<https://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/441>>.

CEJIL (2019): *Caso Molina Theissen*, Prentsa-oharra, martxoaren 5a. <[https://www.cejil.org/sites/default/files/2019\\_03\\_05\\_brief\\_prensa\\_molina\\_theissen.pdf](https://www.cejil.org/sites/default/files/2019_03_05_brief_prensa_molina_theissen.pdf)>.

CPR (2013): "Sentencia por Genocidio. Lectura 10 de mayo de 2013", maiatzaren 19a. <<https://cpr-urbana.blogspot.com/2013/05/sentencia-preliminar-por-genocidio.html>>.

---

21 UNAMGek egindako *Desde las voces de las mujeres. El camino hacia la justicia* dokumentaleko elkarrizketa (2015): <<https://v2.unamg.org/videos/caso-sepurzarco/desde-las-vozes-de-las-mujeres>>.



- Comisión para el Esclarecimiento Histórico (CEH) (1999): *Guatemala, memoria del silencio*. Proiektuetarako Zerbitzuen Nazio Batuen Bulegoa UNOPS, Guatemala. <<http://www.centrodehistoriahistorica.gov.co/descargas/guatemala-memoria-silencio/guatemala-memoria-del-silencio.pdf>>.
- Coronado, Elsa (2018): "Las mujeres de Rabinal: un nuevo proceso judicial sobre los abusos sexuales durante la guerra", *Plaza Pública*, urriaren 16a. <<https://www.plazapublica.com.gt/content/las-mujeres-de-rabinal-un-nuevo-proceso-judicial-sobre-los-abusos-sexuales-durante-la-guerra>>.
- Cumes, Aura (2015): *Mujeres, genocidio y violencia sexual*. Blog Nuestra Memoria, nuestra verdad, Mujeres Ixchel Guatemala. <<https://nuestramemorianuestraverdad.wordpress.com/2015/06/15/mujeres-genocidio-y-violencia-sexual>>.
- Díez, Andrea (koord.) eta Kenia Herrera (koordinatzaileordea) (2003): *Violencia contra las mujeres. Tratamiento por parte de la justicia penal de Guatemala*, Centro de Estudios de Justicia de las Américas (CEJA). <<https://biblioteca.cejamericas.org/handle/2015/691>>.
- Duyós Álvarez-Arenas Sofía (d.g.): *La tierra o la vida. Guatemala, un drama sin fin en el país de la eterna primavera*. Mundubat eta PBI. <<https://www.vocesdefensoras.org/wp-content/uploads/2019/06/investigacion-guatemala-es.pdf>>.
- Fisas, Vicent (2010): "Procesos de paz comparados", *Cuaderns de Construcció de Pau*, 14. zkia., Escola de Cultura de Pau, Universitat Autònoma de Barcelona.
- Gaviola Artigas, Edda (2008): "*Sólo se hizo justicia*". *El Caso de Doña Juana Méndez Rodríguez Vrs. el Agente de la Policía Nacional Civil, Antonio Rutilo Matías López*. Sistematizazio-txostena, Instituto de Estudios Comparados en Ciencias Penales de Guatemala (ICCPG), Guatemala. <<http://www.bantaba.ehu.es/obs/ocont/obs/gen/doc/iccpjguamen>>.
- Guzmán Orellana, Gloria (2020): "Comisión de Esclarecimiento Histórico en Guatemala. Bases para un largo camino por la verdad y la justicia de

- género", in Mendia Azkue, Irantzu (argtz.) (2020): *Enfoque de Género en Comisiones de la Verdad. Experiencias comparadas en América Latina y África*. Hegoa Institutua, Bilbo. <<https://publicaciones.hegoa.ehu.es/es/publications/433>>.
- Hernández Alarcón, Rosalinda (2019): "Del silencio a la palabra: la lucha de las mujeres mayas por la justicia y la verdad en Guatemala", in Asociación Paz con Dignidad: *Resistimos a la guerra, Cuaderno sobre mujeres y ejercicios de construcción de paz*, Madril. <<https://www.pazcondignidad.org/wp-content/uploads/2020/02/RESISTIMOS-A-LA-GUERRA.-Cuaderno-sobre-mujeres-y-ejercicios-de-construccion-de-paz.pdf>>.
- Impunity Watch (2020): *Caso de genocidio contra el Pueblo Ixil durante la dictadura militar de Lucas García*, Guatemala. <[https://www.impunitywatch.nl/docs/Factsheet\\_Caso\\_Genocidio\\_Ixil-\\_March2020-spanish.pdf](https://www.impunitywatch.nl/docs/Factsheet_Caso_Genocidio_Ixil-_March2020-spanish.pdf)>.
- Impunity Watch (2015): *Luchamos con dignidad. Participación de las víctimas en la Justicia Transicional en Guatemala*. <<https://www.impunitywatch.org/post/luchamos-con-dignidad-participacion-de-las-victimas-en-la-justicia-transicional-en-guatemala>>.
- Méndez Gutiérrez, Luz eta Amanda Carrera Guerra (2014): *Mujeres indígenas: clamor por la justicia. Violencia sexual, conflicto armado y despojo violento de tierras*. Equipo de Estudios Comunitarios y Acción Psicosocial (ECAP), Guatemala.
- Mersky, Marcie (2015): "No es posible pedir la amnistía a cambio de la verdad", *Plaza Pública*, Oswaldo J. Hernándezek egindako elkarrizketa, Guatemala. <<https://www.plazapublica.com.gt/content/no-es-posible-pedir-amnistia-cambio-de-la-verdad>>.
- Mendia Azkue, Irantzu eta Gloria Guzmán Orellana (argtz.): *Ni olvido, ni silencio. Tribunal de Conciencia contra la violencia sexual hacia las mujeres durante el conflicto armado en Guatemala*, Hegoa Institutua eta UNAMG, Bilbo eta Guatemalako hiria. <<http://publicaciones.hegoa.ehu.es/es/publications/279>>.

Molina Theissen, Emma (2018): "No nos silenciaron pese a la brutalidad de sus acciones", Quimy De León egindako elkarrizketa, *Pikara Magazine*, uztaila. <<https://lab.pikaramagazine.com/emma-molina-theissen>>.

Movimiento Mesoamericano contra el Modelo extractivo Minero -M4- (2016): "Vivienda de Angélica Choc fue blanco de atentado con disparos mientras ella y dos niños dormían en su interior", irailaren 20a. <<https://movimientom4.org/2016/09/vivienda-de-angelica-choc-fue-blanco-de-atentado-con-disparos-mientras-ella-y-dos-ninos-dormian-en-su-interior>>.

Mujeres Ixchel Guatemala (2015): *La fuerza de Elena por la memoria y la verdad*, Blog Nuestra Memoria, nuestra verdad, Mujeres Ixchel Guatemala. <<https://nuestramemorianuestraverdad.wordpress.com/2015/11/19/la-fuerza-de-elena-por-la-memoria-y-la-verdad/>>.

Mujeres Transformando el Mundo (2018): *Sentencia por el caso Sepur Zarco queda en firme*, azaroaren 18a. <<https://mujerestransformandoelmundo.org/sentencia-por-el-caso-sepur-zarco-queda-en-firme>>.

Nazioarteko Zigor Auzitegia (1998). *Estatuto de la Corte Penal Internacional*, uztailaren 17a. <[https://www.un.org/spanish/law/icc/statute/spanish/rome\\_statute\(s\).pdf](https://www.un.org/spanish/law/icc/statute/spanish/rome_statute(s).pdf)>.

NBE Emakumeak (2021): "Mujeres de Colombia y Guatemala comparten sus experiencias en la búsqueda de la justicia y la construcción de paz", otsailaren 20a. <<https://lac.unwomen.org/es/noticias-y-eventos/articulos/2021/02/mujeres-de-colombia-y-guatemala-construccion-de-paz>>.

NBE Emakumeak (2020). "Litigio estratégico en casos de violencia hacia las mujeres en política en América Latina", abuztuaren 20a. <<https://lac.unwomen.org/es/noticias-y-eventos/articulos/2020/08/litigio-estrategico-violencia-hacia-las-mujeres-en-la-politica>>.

NBE Emakumeak (2018): "El Caso Sepur Zarco: Las mujeres guatemaltecas que exigieron justicia en una nación destrozada por la guerra", urriaren 18a. <<https://www.unwomen.org/es/news/stories/2018/10/feature-sepur-zarco-case>>.

Pérez, Regina (2021): "Angélica Choc recibe sentencia por crimen contra su esposo: 'Luchar contra las mineras es difícil'", *Prensa Comunitaria*, urtarrilaren 14a. <<https://www.prensacomunitaria.org/2021/01/angelica-choc-recibe-sentencia-por-crimen-contra-su-esposo-luchar-contra-las-mineras-es-dificil/>>.

Prensa Comunitaria (2021): "Luego de 12 años de impunidad, condenan al coronel Mynor Padilla por asesinato de líder comunitario Adolfo Ich", urtarrilaren 6a. <<https://www.prensacomunitaria.org/2021/01/luego-de-12-anos-de-impunidad-condenan-al-coronel-mynor-padilla-por-asesinato-de-lider-comunitario-adolfo-ich/>>.

Prensa Comunitaria (2020): "La compañía minera Suiza Solway Investment Group y militares Guatemaltecos amenazan a Angélica, Ramiro y María Choc, defensores de la comunidad Maya Q'eqchi'", uztailaren 27a. <<https://www.prensacomunitaria.org/2020/07/la-compania-minera-suiza-solway-investment-group-y-militares-guatemaltecos-amenazan-a-angelica-ramiro-y-maria-choc-defensores-de-la-comunidad-maya-qeqchi/>>.

Choc Chub, Carlos Ernesto (2020): "Ex paramilitar es enviado a juicio por delitos de violencia sexual contra mujeres achi", *Prensa Comunitaria*, urriaren 8a. <<https://www.prensacomunitaria.org/2020/10/exparamilitar-es-enviado-a-juicio-por-delitos-de-violencia-sexual-contra-mujeres-achi/>>.

Sanford, Victoria (2019): *Guatemala: Del genocidio al feminicidio*, F&G editores. Guatemala.

Sanford, Victoria (2012): *Violencia y Genocidio en Guatemala*, F&G editores. Guatemala.

Segato, Rita (2019): "Los crímenes contra las mujeres son vistos en general como un crimen menor", RTko elkarrizketa. <<https://www.youtube.com/watch?v=XIUsnBPZSe8>>.

Sieder, Rachel (2019): *Acceso a la justicia para las mujeres indígenas en Guatemala. Casos paradigmáticos, estrategias de judicialización y jurisprudencia emergente*, Asociación de Abogados y Notarios Mayas de Guatemala NIM AJPU, Guatemala. <<http://www.rachelsieder.com/>>

wp-content/uploads/2019/07/Sieder\_Acceso-a-la-justicia-para-las-mujeres-indie%CC%8Cgenas\_2019.pdf>.

UNAMG (2015): *Desde las voces de las mujeres. El camino hacia la justicia*. Dokumentala. <<https://v2.unamg.org/videos/caso-sepur-zarco/desde-las-vozes-de-las-mujeres>>.

Velázquez Nimatuj, Irma Alicia (2019): *"La justicia nunca estuvo de nuestro lado". Peritaje cultural sobre conflicto armado y violencia sexual en el caso Sepur Zarco, Guatemala*, Hegoa Institutua, Bilbo. <<https://publicaciones.hegoa.ehu.eus/es/publications/409>>.



# Emakumeen legea. Gerrako sexu-indarkeria pairatu eta bizirik iraun duten emakume maiek justizia berrasmutzen dute gorputzetik, bizitzatik eta komunitatetik

---

Amandine Fulchiron

"Lehen txarto tratatzen gintuzten legerik ez zegoelako, baina orain legea dago gure agintariek emakumeak babesten gaituztelako" (emakume txuj-a).

Hamasei urtez bizi izan nintzen Guatemalan eta nire historia bertan Actoras de Cambio<sup>1</sup> erakundearen historia kolektiboarekin gurutzatzen da; horren fundatzaileetako bat naiz eta. Feministen, emakume maien, mestizoen eta europarren arteko konplizitatearen historia da, emakume landatarren eta hiritarren, heterosexualen eta lesbianen artekoa; guztiak helburu komun batekin elkartuta: sexu-krimenen, gerraren eta arrazakeriaren zauriak sendatzea eta gizartea eraldatzeko baldintzak sortzea, gauza bera berriro ez gertatzeko, "ez gure alabei eta ez gure bilobei". Testu honetan justiziaren inguruan egiten dudan ariketa teorikoa Actoras de Cambio gisa kolektiboki garatu ditugun hausnarketa politikoen, esperientzia komunitarioen eta ekintza metodoen emaitza da. Hori praxi-ariketa etengabea izan da, gerrako sexu-bortxaketa pairatu duten emakume

---

1 2004. urtetik, Actoras de Cambio kolektibo feministak prozesu politiko, komunitario eta sozialak sustatzen ditu, isiltasuna hausteko, oroitzeko eta sexu-krimenek eragindako zauriak sendatzeko. Emakume maien aurkako sexu-krimen horiek modu sistematiko eta masiboan burutu ziren Guatemalako politika genozida eta kontrainsurgenteak iraun zuen bitartean. Actoras del Cambio kolektiboari buruzko informazio gehiago, hemen: <<https://www.actorasdecambio.org.gt/>>.

mam, txuk eta kektxiek batera. 2014tik 2018ra bitartean, Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoan nire doktoretza-tesiaren esparruan egindako ikerketa-ekintza feministaren bitartez jaso, sistematizatu eta teorizatu ditut hausnarketa esperientzia eta metodo horiek<sup>2</sup>.

Emakume mam, txuj eta kektxiek osatutako taldeak lagundu nituen hamar urte horietan, aukera paregabea izan dut haiekin batera justizia-bideak sortzen laguntzeko. Talde horiek funtsezko behar baten inguruan bildu ziren, hau da, Guatemalako gerra genozida eta kontrainsurgentean (1960-1996) emakume horiek pairatutako sexu-bortxaketaren gaineko isiltasuna haustea, eta indarkeria horrek haien bizitzan egindako kaltea aintzat hartzea gizarteak; izan ere, gizarteak eta komunitateek krimen horiek isilean gorde zituzten eta emakume horiek euren burua armadara "eskaini" edo "entregatu" izan balute bezala tratatu zituzten. Hala, talde bakoitzak justizia-bide bat hartu zuen, bere historiaren, testuinguruaren, justizia-ikuspegiaren eta lagun izan zituen erakunde feministen ikuspegiaren arabera. Ibilbide luze horretan Sepur Zarcoren auzia ikusteko aukera izan nuen. Hura auzi paradigmaticoa izan zen; izan ere, Guatemalaren historian lehen aldiz, justizia penalak aintzat hartu zituen armadak 15 emakume kektxiren aurka egindako sexu-esklabotzako krimenak<sup>3</sup>. Horrek, bada, aukera eman zidan epaia emakumeen bizitzan

---

2 Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoko Latinoamerikako Ikasketen doktoretza-programan egin nuen ikerketa-ekintza feminista hori, CONACYTen finantzamenduari esker. Hori gabe, ezin izango nukeen lau urte ikertzen eta idazten eman. Ikus nire doktoretza tesiaren *La ley de mujeres: amor, poder propio y autoridad* testua hemen: <[https://www.academia.edu/38551793/La\\_ley\\_de\\_mujeres\\_amor\\_poder\\_propio\\_y\\_autoridad\\_Mujeres\\_sobrevivientes\\_de\\_violacion\\_sexual\\_en\\_guerra\\_reinventan\\_la\\_justicia\\_desde\\_el\\_cuerpo\\_la\\_vida\\_y\\_la\\_comunidad](https://www.academia.edu/38551793/La_ley_de_mujeres_amor_poder_propio_y_autoridad_Mujeres_sobrevivientes_de_violacion_sexual_en_guerra_reinventan_la_justicia_desde_el_cuerpo_la_vida_y_la_comunidad)>.

3 2016ko otsailaren 26an, Guatemalako Arrisku Goreneko A Epaitegiak epai historikoa eman zuen, Esteelmen Francisco Reyes Girón teniente koronel erretiratu 120 urteko kartzelarekin eta Heriberto Valdéz Asij mandatarari militar ohia 240 urteko kartzelarekin zigortuz gizateriaren aurkako krimenengatik. Krimen horiek sexu-esklabotzaren bitartez eman ziren Sepur Zarco komunitateko 15 emakume kektxiren aurka. Epaia, bada, paradigmaticoa da, izan ere, Guatemalako historian lehenbiziz, legeak gerrako sexu-bortxaketen eta sexu-esklabotzaren biktimen egia baliozkotzat jotzen du.



izan zuen eraginaren arabera baloratzeko, eta ez soilik jurisprudentiako lorpen formalak bezala. Aukeratutako justizia-bideen arteko aldeak agerian uzten du biktimek euren prozesuekin duten gogobetetze- edo asegabetasun-maila desberdinak, hau da, justizia- edo injustizia-sentimendua duten. Hala, emakume mam eta txujak justizia azalean sentitzera eraman dituzten prozesu psikokorporal, sozial eta politikoak eta ekintza-metodoak identifikatu ahal izan nituen; eta zelan horien faltak injustizia-sentimendu bat sortu duen emakume kektxiengan.

Lan honen lehen zatian aztertuko dut justiziaren ideia instituzionalizatuaren eta emakumeek duten injustizia-esperientzia zehatzaren artean dagoen arrakala izugarria. Kontraesan horrek gonbidatzen gaitu feminista gisa gure justizia paradigmatik birpentsatzera eta biktimen justizia-grina sakonei erantzun dieten estrategia, prozesu eta metodoak asmatzera eta sustatzera. Bigarren zatian, emakume mam eta txujek justizia gisa sentitu izan dituzten justizia-bide propio eta komunitarioak garatuko ditut. Horiei "emakumeen lege" deitu diete. Hala, emakumeen arteko aintzatespen-, maitasun- eta osatze-politika justizia egiteko tresna egokia dela azaltzen dut, bai kalte bidegabea jasan zuten bizitzaren eremu guztiak erreparatzeko, bai guztientzat bizi-baldintza bidezkoak, askeak eta "alaiak"<sup>4</sup> sortzeko dugun botere propioa eta kolektiboa berreskuratzeko.

---

4 Emakume mam eta txujek erabiltzen duten "bizitza alai" esaera, duintasunari eta osotasunari dagokio. Hau da, "bizitza ona bere osotasunean" (Tortosa, 2009) ikusmoldea erabiltzen du, euren bizitzako justizia-esperientziari dagokiona. Esperientzia hori euren gorputzen eta bizitzen gaineko boterea berreskuratu izanaren eta bizitza merezi duen bizitza bat sortzeko duten gaitasunaren ondorio da: errespetatua izatea lortzea, "tokia hartzea", ereiteko eta bertan bizitzeko lurra edukitzea, beldurrik eta indarkeriarik gabe bizitzea, askatasunean eta bihotz alaiarekin.

# 1. Kontraesan nagusia: justiziaren ideiak injustizia-sentimendua areagotzen du

## 1.1. Auzitegiak ez du justizia ezartzen emakumeen bizitzan

Nire asmoa justizia aztertzea da, emakumeen eta euren bizitzaren itxaropen normatiboen arabera, eta ez justizia formala lortzeko aurkitzen ditugun oztopoak deskribatzea –duela berrogeita hamar urtetik hona, emakumeen elkarteek eta jurista feministek asko dokumentatu baitituzte horiek<sup>5</sup>-. Sepur Zarcoko kasu paradigmaticoa azertzean –kektxi emakumeen gogobetetze- edo asegabetasun-sentimendutik eta horrek haien bizitzan izan duen eraginetik abiatuta-, agerian geratzen da justizia formaleko sistemaren funtsezko paradoxa.

Epai-prozesu arrakastatsuak izan dituzten arren eta tortura eta sexu-esklabotzaren erantzule diren militar eta paramilitarrak zigortuak izatea lortu badute ere, emakumeak ez daude "justizia horrekin" gustura. Sexu-krimenek haien bizitzan eragindako injustiziak irauten du, zigor epaiatz harago: bortxaketaren ondoriozko mina, erru sentimendua, ikara azalean, zigorra eta gizarte bazterketa. Emakume kektxiaren taldeko lider batek honako hau esan zidan:

"Bai, egia da justizia heldu dela. Egia ere legeak entzun eta sinestu digula. Baina ni ez nengoen pozik epaia eman zutenean. Triste nengoen. Haiek

---

5 Amerikan azken hamabost urteetan emakumeen aurkako indarkeria-kasuen zigorgabetasuna aztertzen dituzten ikerketako batzuk ezagutzeko ikus: Guatemalari buruz, Diez (2006); Peruri buruz, DEMUS (2009); Ekuadorri buruz, Medina eta Carrillo (2007); AEBei buruz, Herman (2005); Nikaraguari buruz, Indarkeriaren aurkako emakumeen Sarea (2008); eta Kolonbiari buruz, Quintero Benavides (2009), ABColombia, Sisma mujer eta USOC (2013), Corporación Humanas (2016).

bizirik daudelako eta haien senideak dituztelako. Guri, ordea, nork itzuliko dizkigu gure senarrak? Nork erreparatuko du egindako kaltea?"<sup>6</sup>

Zigor-epaia ez da nahikoa haien gorputzen eta bizitzen inbasio ankerrak, okupazioak eta hondatzeak "bizitzari egindako kaltea" konpontzeko, ezta berriro ez gertatzeko baldintzak sortzeko ere. Behin egileen aurkako kondena lortuta ere –horrek ezohiko baldintzak eskatzen ditu eta urte askoz "lotsaren antzerki bat" (Herman, 2005) eta etengabeko mehatxuak pairatzea ere–, sexu-krimenek, gizarte-bazterketak eta sexu-indarkeriaren *continuum*ak haien bizitzan eragindako sufrimendua geratzen da. Biktimen minak eta gizarteak ezartzen dien zigorrak jarraitzen dute; prozesu penala, ordea, egileak zigortzera soilik bideratzen da. Zentzu horretan ados nago Veena Dasekin (2008) esaten duenean justizia penala ez dela erreparazio-baldintzak sortzeko agertokia, ezta gizarteko botere-harremanen eraldaketa laguntzekoa ere.

Emakume kektxiak adierazitako atsekabeak argi adierazten du "justizia ez direla arauak eta prozesuak bakarrik; justizia bizitza dela" (Piñeyroa Sierra, 2015: 286). "Horrek ez du ordainsari-justizia baliogabetzen; baina

---

6 Asegabetasun berdin bat aurkitu nuen Kolonbiako Libertad komunitateko emakume beltzen artean, horiekin sei hilabeteko sendatze-prozesu bat egin nuenean. Haiek "El Oso" (Hartza) izenez ezagutzen zen komandante paramilitarra kartzelaz zigortzea lortu zuten, horrek haien komunitatea okupatu eta sexu-esklabo izan zituelako hamar urtez. 2014ko irailaren 9an Barranquillako Auzitegi Gorenak "El Oso" Justizia eta Bakea Legeak (2005) ematen zituen onuretatik baztertea agindu zuen eta kasua ohiko justiziari eman zion, Libertad komunitateko emakumeen aurka egindako sexu-esklabotza krimenak ukatzeagatik. Bazterketa-epai horretatik lau urtera, 2018ko abuztuaren 31an, El Oso 24 urteko kartzela zigorrera kondenatu zuen Sucreko departamenduko Sincelejoko Zirkuitu Espezializatuko Auzitegi Penalak, Libertadeko bederatzia emakumeren aurkako bahiketa larriagotua, haragizko sarbide biolentoa, tortura, esklabotza, pertsonen salerosketa, kanporaketa, deportazioa eta lekualdatze behartua leporatuta. Arrakasta juridikoa da; izan ere, Kolonbiako kasu bakarra da, non buruzagi paramilitar batek Justizia eta Bakea Legearen onurak galtzen dituen eta ohiko justiziak hura sexu-krimenengatik kondenatzen duen. Hala ere, emakume horien esanetan: "Asko lortu dugu. [...] Baina justizia horrek ez gaitu barrutik suspertuko. Hobeto lortuko nukeen arma bat eduki izan banu, bera hilko nukeelako. Nire bizitza hondatu zuen, benetan hondatu ere".

hura beste formula batzuekin osatzea eskatzen du" (*ibid.*: 283). "Barrutik berpiztu", "bizitzara itzuli", "birsortu", "berriro ez gertatzea, ez nire alabei eta ez nire bilobei"... Horrelako adierazpenek bizitzan eta gorputzean errotutako justizia baten berri ematen dute; sexu-bortxaketa genozida eta kontrainsugenteak eragindako kalteak sendatzen eta erreparatzen dituen eta, aldi berean, hasiera berri bat eskaintzen duena, guztientzat bidezkoa den gune batetik. Epaitik harago irauten duen injustizia-sentimenduari arreta eskaintzea funtsezkoa da emakumeen justizia-grinak argitzeko. Emakume kektxien taldeko kide batek, negarrez, honako hau adierazten du: "Inork ez nau aintzat hartzen. Inork ez nau maite. Nire seme-alabek haserre daude nirekin diru bila joan nintzela uste dutelako. Bakarrik hilko naiz". Sexu-krimenek eragindako kalte moral eta sozialaren mamiak haien bizitzan jarraitzen du: bortxatua izanagatiko errua eta zigorra.

Erasotzailea zigortzeaz gain, "legeak" haien egia eta "armadak" egindako kaltea aintzat hartzea nahi zuten emakume kektxiek. "Hori legearen aurrean aitortzea nahi dugu. Hau guztia kalte bat da eta ez da nolana hikoia. Kalte izugarria da". "Legeak" haien egia aintzat hartu bitartez, euren familiek eta komunitateak honako hau jakitea nahi zuten: sexu-bortxaketa krimen bat dela eta min handia egin ziela, ez zitzaizkiola armadari eman eta are gutxiago nahi izan zutela. Komunitatean ibiltzen direnean umiliatzen dituen ahots patriarkala eta kontrainsurgentea isilarazi nahi zuten, "gizonekin gauzak egitea gustatzen zaion emakume"tzat eta "senar-lapur"tzat jotzen dituen. Gizartean emakume on gisa zuten lekua publikoki leheneratzea nahi zuten eta euren inguruak onar zitzan ez direla, ez errudunak, ez gezurtiak, euren burua barkatu ahal izateko. Rita Segatok Sepur Zarcori buruz egindako azterlan antropologikoak ere hori azpimarratzen du:

"Lekukotza guztietan argi geratu da emakumeen itxaropena dela justiziak garbitzea komunitatean duten estigma. [...] Estatuarengandik espero da, auzitegiaren epaiaren bitartez, lagunduko duela kaltetutako emakumeak Sepur Zarco komunitatean hartuak izan daitezen, euren senide eta lagunekin adiskidetu daitezen eta edozein susmotik garbi gera daitezen, eta horrela, estatuaren bitartez, guztion errespetua berreskuratuko dutela" (Segato, 2016: 46-47).

Gizartearen babesa bilatzea justizia bilatzearen eta sexu-torturaren osteko bizitzaren ardatz nagusi bilakatzen da. Horretarako, Sepur Zarcoko emakumeek denetarik egin zuen, baita komunitatearentzako erreparazio-neurriak bakarrik eskatzea ere, euren burua eta hainbeste min eragin zieten sexu-krimenak alde batera utziz. "Ez dugu guretzat ezer eskatu. Komunitatearen alde borrokatu gara, ez gugatik bakarrik. Horregatik eskatu dugu klinika". Auzitegiak 2016ko martxoaren 2ko epaian ezarritako erreparazio kolektiboko hamasei neurriak aztertzen baditugu, ikusiko dugu guztien helburua komunitatearen bizi-baldintzak hobetzea dela. Neurrietako bat ere ez da pentsatu komunitateko sexu-bortxaketarekin eta biktimen estigmatizazioarekin amaitzeko. Zergatik ez zuten komunitateko emakumeak publikoki duintzeko eta haien aurkako sexu-krimenak eta erasotzaileen erantzukizuna aintzat hartzeko neurriak ezarri? Zergatik ez zituzten erritual komunitarioak ospatu emakume horien bizitzak ohoratzeko eta pairatu zuten estigmatizazioagatik eta bazterketagatik barkamena eskatzeko? Zergatik ez zituzten sustatu komunitateko sexu-krimenak berriro gertatuko ez zirela bermatzeko prozesu komunitarioak? Neurri guztiek beste bidegabekeria batzuekin lotura duen birbanaketa-ikuspegi bat erabiltzen dute baina ez dute sexu-esklabotzak eragindako kalte handia aintzat hartzen. Emakumeek komunitatearen mesedeetan euren burua alde batera utzi bazuten ere, "emakume onak" izateko agindua bete bazuten ere, "besteek" ez dizkiete eskerrak ematen eta ez dituzte aintzat hartzen. Hortaz, Sepur Zarcoko emakumeek honako hau diote: "Ez dugu ikusiko borrokatu dugunaren ezer".

"Mingarriena da hemen komunitatean inork ez gaituela aintzat hartzen. Justizia lortzeko hainbeste borrokatu ondoren, ez digute eskertzen. Gezurtiak garelako diote, diruaren truke hitz egitera joan ginela, eta "gure ipurdiagatik" dirua jaso genuela. Gerran gertatutakoa bizitzen ari naizela sentitzen dut".

Estigmatizazioa errepikatu egiten da eta emakumeek ezin dute kolektiboki eraldatu euren inguruneak haiekin duen harremana: Horrek, bada, kaltea handitzen du. Zauria behin eta berriro zabaltzen da eta oinazea areagotzen da. Ez dute bakerik topatzen, bihotzek ezin dute atseden hartu. Kristen Campbellek "justiziaren trauma" deitzen dio horri

(2004). Kunarac kasuan, Jugoslavia ohirako Nazioarteko Zigo Auzitegia aipatuz, Campbellek hau dio:

"Auzitegi horrek eman dezakeen epai batek ere ez die erantzun egokia emango biktimek gizon horien eskuetan sufritu zituzten bidegabekeriei. [...] Horretan datza funtsezko paradoxa; Auzitegia lege-erakunde gisa ulertzeko moduan, alegia; [...] justizia egin behar da, baina ezin da egin, justiziak ezin duelako gizateriaren aurkako krimen baten injustizia erreparatu. [...] Beraz, [nazioarteko justiziak] *injustiziaren* errepikapen traumatiko bezala egituratzen du 'justizia' (Campbell, 2004: 341-345)<sup>7</sup>.

## 1.2. Zuzenbidearen "eraginkortasun sinbolikoa" kolokan

Sepur Zarcoko emakumeek epaiketa justua eta prozesu penal arrakastatsua izan duten arren, adierazten duten oinazeak agerian uzten du "gizartea zerbait bidegabea egiten ari dela" (Honneth, 2006a: 103). Emakumeek 30 urte eman dituzte neskame eta sexu-esklabo bihurtu zituzten eta bizitza hondatu zieten militarren aurkako zigor hori lortzeko eta orain, euren komunitatera itzultzean, sentitzen dute ez dela ezer aldatu: ingurukoek ez dituzte aintzat hartzen eta, gainera, "kritikak" berriro hasi dira. Epai paradigmatikoa ez da nahikoa izan estigma desagerrarazteko eta emakume kektxiak komunitatean

---

7 Lepa Mladjenovic Serbiako Beltzeko emakumeak mugimendu feministaren sortzaileetako bat da. Berak problematika hori azpimarratzen du Bosnia-Herzegovinako biktimen ahotsetik: "Gerran zehar sexu-bortxaketak pairatu zituzten emakumeek euren traumarekin lotutako emozioak bizi dituzte oraindik, maiz, krimena gertatu zen hiritik urrun. Bortxatzaileak, aldiz, hiri horietako kaleetatik aske jarraitzen dute, [...] boterean dauden buruzagi nazionalisten babesarekin. Hau da, erantzuleek askatasun guztiak dituzte eta biktimak itzalean geratzen dira. Horren ondorioz, Jugoslavia ohirako Nazioarteko Zigor Auzitegiaren eta auzitegi nazionalen lana eta kalte-ordainari buruzko lege berria gorabehera, oraindik ez dago "justizia"rik Bosnia-Herzegovinako gatazka armatuko sexu-bortxaketen biktimetzat. Hori da emakumeek justizia gisa behar dugun horren zati bat, baina zati bat bakarrik. Justiziaren beste esanahi bat ere pentsatu beharra dago" (Mladjenovic, 2011).

errespetatuak izan daitezzen. Sexu-krimenen inguruan dagoen kultura-ikuspegi patriarkal eta kontrainsurgentea emakumeen aldeko epaia baina indartsuagoa da. Emakumeek ez badute ahots kolektibo eta publiko propioa sexu-krimenen gainean, epaiak ez dira emakumeen hitzen arabera irakurtzen eta entzuten, baizik eta erabakia prostituitu egiten duen ikuspegi pornografiko patriarkal eta kolonial baten arabera. Patriarkatuaren ikuspegi zital horren arabera, emakume kektxiak gezurren bitartez eta, berriro ere, euren gorputza eskainiz lortu zuten aldeko epai hori. Testuinguru horretan, zigor-epaiak ezin ditu duintasun baldintzak sortu eta ez du emakumeak errespetatuak izateko baldintzak sortzen laguntzen. Aitzitik, emakumea "bortxatua", "traidorea" eta "gaiztoa" delako ikuspegia indartzen du.

Egia juridikoak ez du emakume horien egia egia sozial bihurtzen. Ez ditu emakumeen esperientzia entzuteko eta aintzat hartzeko gizarte-baldintzak sortzen. Auzitegiaren eta emakumeen artean adostutako egia pribatua ematen du, oraindik ere tabua dena eta ohiko eremuan immoraltzat jotzen dena. Izan ere, Sepur Zarcoko kasuaren epaiak ez du ekarri familiek eta komunitateak sexu-bortxaketa krimen gisa onartzea –justizia eta injustizia eremu horietan gauzatzen dira eta eguneroko bihurtzen dira–; ez du eragin emakume horien inguruko irudikapen sinbolikoa aldatzea, ezta eremu horietan emakume gisa duten giza-balioa aintzat hartzea ere. Halaber, epaia ez zen nahikoa izan gizartearen zigorra ezabatzeko: isilaraztea, umiliazioa, lotsaizun komunitarioa eta gizarte-bazterketa. Azkenik, ez du lortu emakumeak errespetatuak izateko baldintzak leheneratzea, nahiz eta hori izan den prozesu penala burutzeko arrazoi nagusia. Zentzu horretan, Estatuaren bitartekaritza, epai judizial baten bitartez, ez dirudi oso lagungarria biktimentzako aintzatespen soziala lortzeari dagokionez, Rita Segatok (2016: 47) Sepur Zarcori buruzko azterlanean kontrakoa dion arren.

Emakume kektxiak eta emakume mam eta txujen esperientzien arteko aldeak erakusten digu gizartearen errespetu hori emakumeek soilik eraiki, hartu eta zilegitu dezaketela, ahots kolektibo eta antolatua propio baten bitartez, ahots horrek ahots patriarkala eta kontrainsurgentea indargabetzeko ahalmena baitu komuna denaren eremuan.

Horren guztiaren ondorioz, zuzenbideak "eraginkortasun sinbolikoa" duelako postulatu berrikustera behartuta gaude (Segato, 2003: 122); izan ere, horren arabera, eraginkortasun sinboliko horrek moral patriarkala eta emakumeen gorputza bataila-eremutzat hartzen dituzten botere-egiturak eraldatzeko gaitasuna omen du. Halaber, Rita Segatoren arabera (Segato, 2016: 4, 46), epai justu bat "gai da pertsona guztien sentsibilitate etikoan eragiteko eta hori eraldatzeko" eta "gerran herrixkak pairatutako ankerkeriaren pedagogia inbertitzeko". Ez du kontuan hartzen, ordea, epai horren atzean dagoen botere-testuingurua.

Sepur Zarcoko emakume kektxiekin (eta Libertadeko emakume beltzekin) egin nuen ikerketa-ekintzak agerian uzten du zigor-epai batek ere ezin dituela gerrako eta gerraosteko gizarte bateko botere harremanak eraldatu, non biktimgileek boterea duten, non gizarte-harremanak muturreko indarkerian, ankerkerian, gorrotoan eta borroka kontrainsurgentean oinarritzen diren, eta non emakumeek ezin izan duten kontrabotere politiko bat sortu haien ahots propioarekin indarkeriari muga sendo bat jartzeko.

### **1.3. Justiziaren ezintasunaren atzean: kontratu sexual koloniala**

Sepur Zarcoko kasu paradigmaticoak, baita Kolonbiako Libertad komunitatekoak eta Jugoslavia ohiako Auzitegi Penalarenak erakusten digute justizia ez datzala bakarrik "ulermen" arazo batean, edo prozedurak hobetzean, edo justizia-agintarien pentsamoldea aldatzean, baizik eta legeen eta hauen aplikazioaren oinarrian dagoen boterea aldatzean datzala.

Gerra- edo bake-testuinguruetan sexu-krimenen inguruan dagoen zigorgabetasuna eta justizia-sistemak erreparazioko eta berriro ez errepikatzeko baldintzak sortzeko duen ezintasuna aztertzeak aukera ematen du estatu modernoaren eta horren lege eta erakundeen oinarrian dagoen gizarte-itunaren sexu-oinarriari heltzeko. Hala, Carole Patemanen (1995) "kontratu sexual" kategoriara jo beharra dago justizia-eredu liberalak edozein sexu-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzat



dituen mugak ulertzeko. Egilearen ustez, gizarte-kontratua, demokraziaren fikzio politiko modernoa ekarri zuena, gizonen arteko itun baten bitartez ezarri zen. Itun horrek gure gorputzak kontrolatzeko eskubidea ematen die gizonei eta,aldi berean, emakumeak gizarte-kontratutik eta kontu zibilak eta publikoak erabakitzen baztertzen gaitu eta, hortaz, justiziaren edukitik. Kontratu sexual hori, heterosexuala ere dena (Wittig: 2006)<sup>8</sup>, gizonen itundutako eta legearen oinarrian dagoen antolaketa politikoaren dimentsio nagusia eta ikusezina da.

Abya Yalan<sup>9</sup>, kontratu sexual hori koloniala da gainera. Izan ere, gizarteak eta estatuak sortu ostean, proiektu kapitalista koloniala ezarri zen eta honek emakume indigena eta beltzen gorputzak, bizitzak, ezagutzak eta lurraldeak hartu zituen, esklabo bihurtzeko, desjabetzeko eta masakratzeko objektu gisa, eta, emakumeen gorputzak arrazializatuz, gizatasuna kendu zien eta haien aurkako ankerkeria larriagotu zuen.

Guatemalako genozidio-politikaren esparruan emakume maiek sistematikoki eta masiboki pairatu zuten sexu-bortxaketak agerian uzten du estatuak, armadak, nazioarteko oligarkiek eta talde paramilitarizatu eta mafiosoek burututako kolonizazio prozesuak aurrera jarraitzen duela. Emakumeen gorputza, bereziki emakume indigena eta beltzena, kolonizatzeo lurraldea da, proiektu kapitalistak hedatzen jarraitu ahal izateko. Kontratu sexual kolonialaren eremu gogokoena da emakume arrazializatuen gorputzak indarrez bereganatzea eta hondatzea. Halaber,

- 
- 8 Monique Wittigen esanetan: "Eta hori da interesatzen zaidana gizarte-kontratuaz ari naizenean: hain zuzen ere, inoiz formalki aipatu ez diren arau eta ohiturak, pentsamendu zientifikoak eta jende arruntak jakintzat ematen dituzten arauak eta ohiturak. [...] Gizartean bizitzea heterossexualitatean bizitzea delako. Izan ere, niretzat, gizarte kontratua eta heterossexualitatea gainjartzen dira" (Wittig, 2006: 66). Abya Yalatik, ikus Ochy Curielek, *La nacion heterosexual* (2013) lanean, Kolonbiako konstituzioaren oinarrian dagoen erregimen heterossexualaren gainean egiten duen azterketa.
- 9 Kolonizazioak Amerika izendatu zuen kontinenteari Kuna herri indigenak emandako izena berreskuratzen dut. 1977an, Herri Indigenen Mundu Batzordeak kontinenteari Abya Yala deitzea adostu zuen, Takir Mamani lider aimararen proposamenez. Horrela, antzinatik ere habitatu duten lur hori hitz propioekin izendatzea lortu zuten (Revista de Estudios Latinoamericanos, 1992: 255).

kontratu hura sostengatzen eta babesten duten itun patriarkalak ezinezko egiten du emakumeen bizitza babesteko legeak ezartzea, baita horiek gizartean duten eragin eraldatzailea ere.

Kontratu sexual koloniala legearen oinarrian dago eta horren indar sinbolikoa eta hertsatzailea egituratzen du. Lege bilakatzean, gizon zurien nagusitasuna instituzionalizatzen da eta ikusezin bihurtzen da gizartean (MacKinnon, 1989: 428). Naturalizatu egiten da. Legea, beraz, gizonen emakumez jabetzeko duten eskubide koloniala erreproduzitzeko tresna boteretsu bilakatzen da. Ikuspegi patriarkal horren arabera interpretatutako legeak soilik du boterearen legitimitatea. Emakumeen bizitza, askatasuna eta osotasuna babesten duen beste edozein lege edo epai itun patriarkalen interesen aurkakoa da eta, hortaz, ez du legitimitaterik edo "eraginkortasun sinbolikorik" (Segato, 2003: 122). Emakume mam eta txujen esanetan "ez du lege-indarrik". Izan ere, "lege-indarra", Derridak azaldu bezala, autoritatean errotzen da, hau da, ordezkatzeko duen botere sinboliko zein hertsagarrian. "Legeak [...] ez dira betetzen bidezkoak direlako, autoritatea dutelako baizik" (Derrida, 2001: 138). Sexu-esklabotza gizateriaren aurkako krimenez hartzen eta hura zigortzen dituzten epaiak, bidezkoak badira ere, ez dute "lege-indarrik" gizartean, ez baitute botere sinboliko edo hertsagarririk. Hau da, ez dute autoritaterik. Testuinguru antidemokratikoetan, non gizonaren indarra eta indar kontrainsurgentea nagusi den, emakumeak, gizarte-klase bezala, ez dugu inolako botere sinboliko edo hertsagarririk, eta are gutxiago dute emakume indigenek eta beltzek. Gure bizitzak ez du inolako autoritaterik. Beraz, justiziaz ari garenean, "honako hau dago jokoan: nola sortzen da autoritatea?" (Tzul Tzul, 2016: 201).

Nola sortu geure autoritatea emakume, indigena, beltz, lesbiana edo nekazari gisa, gure bizitza gizartean legitimatua eta errespetatua izan dadin? Galdera hori funtsezkoa da, zeren gure autoritatearen eraikuntza politikotik justizia birpentsatzera eramaten baikaitu, sistema judizialaren arauak eta prozedurak hobetzen ahalegindu beharrean; izan ere, sistema horren oinarria gure gorputz, lurralde eta bizitzetan gizonen eta koloniak duten nagusitasuna betikotzea da. Baina, kontratu sexual koloniala eraldatzen ez badugu, ez dago justiziarik guretzat. Beraz, emakumeen

mugimendu eta mugimendu feminista gisa, oso garrantzitsua da gure justizia-estrategien lehenetsunak alderantzizkatzea eta gure burua subjektu politikotzat hartzea, ekintza kolektiborako dugun ahalmena berreskuratuz. Hala, berezko justizia-erreferente, -prozesu eta -mekanismoak sortu ahal izango ditugu gure injustizia-esperientzietatik eta bizitza duina, askea eta osoa izateko grinatik abiatuta.

## **2. Emakumeen legea: gure arteko aintzatespen-, maitasun- eta osatze-politika bat, injustizia konpondu eta ezabatzen duena**

“Justizia ez da soilik bortxatzailea kartzelaratzeari, niretzat ere zerbait egon behar du. Bortxatzailea kartzelara badoa, agian ohituko da, agian lasai biziko da, baina ni zaurituta geratzen naiz. Nire minarekin geratzen naiz, nire lotsarekin. Beraz, niretzat justizia da osatzea, zauri hori sendatzea, konpontzea; emakumeak ahalduntzea... hori baita gehien laguntzen duena, euren erabakiak hartu ahal izatea, alegia” (Josefa Lorenzo Sales, emakume mam liderra).

Gerran sexu-bortxaketaren biktima izandako emakume mam edo txujekin eguneroko osatze-, oroitze- eta antolakuntza-prozesu komunitarioak elkarrekin sortzeak aukera eman digu justizia bide alternatiboak daudela ulertzeko, estatuko eta komunitateko agintaritzak judizialeetatik kanpo. Pixkanaka, justiziaren ohiko bideak eta ordezkariak hegemonikoak utzi genituen, justizia zentzu instituzional eta formaletan definitzen dituztenak. Estatuarekiko fede itsua eta fetitxismo legala baztertu genuen eta emakumeon hitza, premiak eta bizitzak erdigunean kokatu genituen. Ikuspegia aldatu eta gure autoritatea berreskuratu genuen, hau da, subjektu politiko eta epistemologiko izateko gaitasuna, justiziari gogandik sortutako eduki berriak emanez. Hala, bide komunitario propioak sortu genituen, hainbat beharri erantzuten dietenak; hala nola, “barrutik berpizteko” giza-beharrari, “gure alabei eta gure bilobei” berriro ez gertatzeko premiari eta munduan errespetatuak eta maitatuak izateko eta askatasunez eta osotasunez bizitzeko lekua sortzeko premiari ere.

Horretarako, ezinbestekoa izan da sexu-krimenek emakumeen bizitzan eragin dituzten kalteen bidegabekeria eta osotasuna entzutea, sentitzea eta ulertzea. Ulermen hori gabe eta bidegabekeria horiek ezabatzeko eta kalteak konpontzeko eremu, prozesu, ekintza eta metodo espezifikoa diseinatu gabe ezin da justizia-esperientziarik egon. Sexu-krimenen injustizia honako hauetan datza: armadak eta paramilitarrek emakume maieen gorputzak bortizki inbaditzean, erabiltzean, torturatzen eta suntsitzean; eta, aldi berean, ideologia patriarkalak egindako alderantzikapen gaiztoan ere (horrek sexu-krimena nahitako sexu bihurtzen baitu, errua emakumeei leporatuz). Gorputzaren inbasioaren eta torturaren ostean isilik egon beharrak, estigmatizazioak eta gizarte-isolamenduak heriotza dakarte: "Bizirik nago baina hilda sentitzen naiz". Adierazpen ikaragarri horrek gerrako sexu-bortxaketaren asmoa erakusten du, baita biktimen bizitzan eragin duen hondamendia ere. Hortaz, emakume mam eta txujek "barrutik berpiztea" eta "emakume berri bezala birsortzea" esapideak erabiltzen dituzte euren justizia-esperientzia definitzeko.

"Berriro itzultzea" eta "emakume berri bezala birsortzea" eraman dituzten prozesuak aztertzean, ikusten da emakumeen arteko aintzatespen-, maitasun- eta osatze-politika tresna egokia dela norbera maitatzeko eta gorputza, bizitza eta komunitatea bidezko toki batetik birgaitzeko. Emakume talde batek haiei entzuteak, aintzat hartzeak, maitatzeak eta babesteak azalean justizia sentitzea eragin die biktimei. Zentzu horretan, ados nago Honnethek esaten duen honekin: "aintzatespenaren kontzeptu-esparrua tresna egokia da" subjektuen itxaropen normatiboak argitzeko. Egilearen arabera, hiru aintzatespen-esfera uztartu behar dira –maitasuna, gizarte-aintzatespena eta legea– (Honnet, 2006a: 106, 109-119) justizia-esperientzia bat sortu ahal izateko. Arazoa da mundu patriarkal batean emakume jaiotzean ez dagoela aintzatespen-baldintzarik eta erabateko ezagutza falta dagoela: arrazismoak, gerrak eta sexu-bortxaketak, gainera, gizatasuna galtze hori larriagotzen dute. Horregatik da beharrezkoa sinboloak aldatzea eta emakumeen arteko politikari autoritatea ematea, gugandik justizia egin ahal izateko. Hori da, hain zuzen, Milango Emakumeen Liburudendak (2004), Audre Lordek (2003) eta Margarita Pisanok (1998)

proposatzen dutena. Emakume mam eta txujen esperientziak agerian uzten du emakumeen arteko eguneroko aintzatespen-, maitasun- eta osatze-politikak lortzen duela isiltasuna hitz bihurtzea, umiliaziotik norbera maitatzera igarotzea, "haien [gizonen] eskuetan" egotetik euren buruaren jabe izatera, heriotza sozialetik legitimitatera, ikararik segurtasunera eta esklabotzatik askatasunera.

## 2.1. Osatzea justizia da

**"Lehen inork ez zigun entzuten baina orain norbait gure alde dago"**

Sexu-torturen ostean emakume maien aurka sortutako estigmatizazio ankerrak isilik egotera behartu zituen eta zama handia eraman behar izan zuten bihotzean. Horrek isolatu eta gaixotu zituen hogeitaz urtez, gutxiespen- eta autosuntsitze-prozesu sakonak sortuz. Horregatik, biktima gehien arabera, "justizia hitz egitea da", hitz horien bitartez aldarrikatzen baitute izateko duten eskubidea.

Uste ohi da emakumeek ez dutela hitz egin *nahi*; baina sexu-bortxaketako biktimak diren emakumeak hamabost urtez lagundu ostean, gauza frogatua da *ezin* dutela hitz egin. Ez dago emakumeei entzuteko eta segurtasuna emateko gizarte-baldintzarik. Gizarteak ez die entzuten eta, are gehiago, sinbolikoki, fisikoki eta sexualki bortxatzen ditu: "Putak garela diote, gauza txarrak egiten ditugula; horregatik ginen beldur eta dena egiten genuen, guri buruz hitz egin ez zezaten, gezur asko esaten dira eta".

Emakume mam eta txujen esanetan, hitz egiteko beharrezkoa da "entzuten diguten lagunak izatea, kritikatu ez gaituztenak". Emakumeen taldeak -sexu-indarkeriaren inguruko isiltasuna hausteko helburu argiaz bildu zena- entzun eta sinestu zien. Gizarte eremu horretan, bada, epaituak edo bortxatuak izateko beldurrik gabe hitz egin ahal izan zuten. "Nik gauza horien aurka hitz egin nahi nuen. Baina norekin? Inork ez zidan entzuten. Oso triste nengoen, eta sentitzen nuen hura guztia neure kolkorako gordetzen nuen. Emakumeen erakundeei esker galdu nuen

beldurra, indarra eman zidaten. Azkenean, kontatu ahal izan nuen eta entzun zidaten. Horrek indar handia eman zidan”.

## **Bihotza arindu**

Prozesuarekin hasi ginenean, emakume kektxiak hau esaten ziguten: Azkenean ere galdetzen didate zer gertatu zitzaidan niri, eta ez nire senarrari, seme-alabei edo abereei. Guk ere sufritzen dugu”. Injustiziak, lehenik, sufrimendua ekarri zuen, bihotzeko mina eta negar luze bat. Oinaze horren dimentsioa ezin zen hitzez adierazi. Hainbeste denboraz hainbeste sufrimendu gordetzen zuen bihotzaren hizkuntzak bakarrik adieraz zezakeen oinazearen dimentsioa. Mina konfiantzaz, segurtasunez eta neurritz adierazteko espazio bat edukita, bihotza husten hasi ahal izan zuten. Euren mina entzuna izatea merezi zuela sentitu zuten eta euren bizitzek ere garrantzia zutela konturatu ziren. Mina negarraren bitartez kanporatzean, garrantzia duten emakumetzat hartu ahal izan zuten euren burua eta “gizaki bezala osatu ziren” (Cumes, 2009: 41). “Negarra ere merezi ez duen bizitza batengatik ezin da dolua ekarri, bizitza hura ez baita bizi izan, hau da, ez da benetako bizitza izan” (Butler, 2010: 64).

Prozesua lasaigarria izan zen guztientzat eta sexu-torturak eta genozidioak eragindako kalte izugarria sendatzen hastea ahalbidetu zuen, baita inguruaren isiltasunak eta estigmatizazioak eragindako kaltea ere. “Hil egin nahi izan dut, baina jadanik ez. Badago senabiderik; negar egitean barruko gaitzak atera ditut. Orain zoriontsua naiz. [...] Nire bihotzean sentitzen dut erakundeei esker sendatu nintzela, zenbaitek lagundu zidatelako. Horregatik bizirik nago, ez zidaten hiltzen utzi”.

Actoras del Cambio kolektiboan laguntza-metodologia bat sortu genuen sexu-indarkeria genozida pairatu zuten emakumeen osatze-premietan

eta erritmoetan oinarrituz<sup>10</sup>. Denbora, espazioa eta neurritasuna egon zen negar egiteko eta sexu-bortxaketaren eta genozidioaren ondorioz haien bizitzan apurtutako edo galdutako guztiagatik dolua egiteko; izan ere, gizarteak ez zien dolu hori egiteko aukerarik eman, ez baitzituen haien aurkako krimenak aintzat hartu, eta horrela haien gizatasuna ukatzen zuen.

Hala, haien bizitzak berreraikitze prozesuaren zerbitzura jarri genituen gure ezagutzak, jakintzak, esperientziak, gorputzak eta bizitzak. Mundu-ikuskerara maiatik, sendatzeari buruzko jakintza zaharrak berreskuratu, aintzat hartu eta txertatu genituen. Biktimek, taldeko emakume maiek eta Liduvina Méndezek ere<sup>11</sup>, euren aitaita-amamengandik jaso zuten ikuskera hori. Arbasoekin loturan dolua egiten erakutsi ziguten eta suarekiko, urarekiko, airearekiko, lurrarekiko eta landareekiko loturaren bitartez sendatzen ere. Haien hitzetan, "horixe da gehien sendatu gintuena". [...] Emakume-taldeari, Amandineri eta Angelicari (jadanik ez dagoena) niretzako gauzak erakutsi izana eskertzen diet; izan ere, haiek eramane eta atera ninduten. Suarekin komunikatzen erakutsi zidaten eta horren sendatu ninduen; eta komunitatera itzultzerako beste bat nintzen".

---

10 Hainbat tresna terapeutikoren bitartez mina landu eta isilean gorde izanagatik gorputzean harrapatutako emozio traumatikoak askatu ahal izan genituen. Zehazki, Gestalt terapia berriaren (Perls, 2002; Perls, 1986); terapia Bioenergetikoaren (Lowen; 2011); Biodantzaren (Toro Araneda, 2000); eta psikologia transpertsionalaren (Vaughan *et al.*, 2003) terapiak txertatu genituen. Hala, maila mental, emozional, fisiko eta psikoespiritualean gertaera traumatikoen oroimena desprogramatzeko, eta eraldaketa eraginkorra, maitasunezkoa eta iraunkorra sortzeko, Advanced Integrative Therapy (AIT) terapia-eredu transpertsionala ezarri genuen, gorputzean eta energia-sisteman oinarritzen dena. Terapia-proposamen hori Asha Clintonek sistematizatu du. Ikus: <<http://www.aitherapy.org/wp/>>. Gary Craigek (2008) garatutako Emotional Freedom Techniques (EFT) psikoterapia ere antzekoa da, eta ikaserraza. EFTk bizi izandako traumengatik gorputz- eta energia-sisteman ezarritako sinesmen negatiboak eta emozio traumatikoak askatzeko helburua du.

11 Actoras de Cambio kolektiboaren sortzaileetako bat eta konplizea.

## **“Gertatu zitzaiguna egia da”**

Sentipenarekin konektatzean, bizi izandakoari izena eman zioten, euren bizitzan eragindako minari lotuta. Pixkanaka euren hitzak aurkitu zituzten aipaezina zen hori eta “besteek” isildutako hori aipatzeko. Euren izatetik beretik esanahi berri bat eman zioten historiari. Liduvina Mendez arabera: “Fase hori funtsezkoa da esperientziak eta bizipenak modu integral batean barneratzeko. Historia ulertu bitartez, bizi izandakoa prozesatu eta horri esanahi berri bat ematen zaio, eduki, emozio eta sententzio berriak emanez, erraztuz eta sortuz eta ikasitakoaren kodeak aldatuz (Méndez, 2014: 136).

Biktimek euren ahotsa aurkitu zuten, “besteen” ahots akusatzailetik kanpo, eta euren egia adierazi zuten. “Gertatu zitzaiguna egia da. Ez gara gezurrak esaten ari. Krimen horrek kalte handia egin zien: ez zuten euren burua eman eta ez zuten gustura egin. “Soldaduen arabera, gu, emakumeok, gezurretan ari gara. ‘Indigenak gezurretan ari dira’ diote ladinoek. Baina ez, guk ezin dugu gezurrik esan, gauza asko ikusi genituen eta min handia eman ziguten. Gobernuak bidali zituen, bortxatzaera, haurrak hiltzaera eta gazteak torturatzaera”.

Orduan hasi zen “esnatzeko” prozesua, bizitzaz jabetzeko prozesua, besteek inposatutako patuetatik kanpo. Gertatutakoari euren hitzak emanez, krimena izendatu zuten eta tabu, bekatu eta lotsa horretatik atera zituzten tortura eta sexu-esklabotza.

## **“Nire burua zigortzen nuen baina, azkenean, gobernuaren ardura izan zela konturatu nintzen”**

Antzeko egoerak bizi izan zituzten eta ulertu zituzten emakumeak topatzeari esker, biktimek egiaztatu zuten ez zeudela zoraturata. Bakarrik ere ez zeuden, beste askori ere gertatu baitzitzaien. Hala, erru-sentimendua gaintzen joan ziren: “Askok zigortzen nuen nire burua, baina azkenean konturatu nintzen emakume askok eramaten zutela iraganaren zama hori, ez nintzela ni bakarrik. Jendeak esaten zuen bekatuak ordaintzen ari ginela, baina ez zen hori. Gero erreakzionatu nuen; soldaduek emakumeak



eta umeak bortxatzen dituzte eta gizonak torturatzen dituzte gobernuak agintzen dielako. Gertatutakoa gobernuaren ardura da".

Prozesuari esker, konturatu ziren hura ez zela "baten arazoa", baizik eta arazo sozial eta politiko larria, gizateria osoari dagokiona. Hausnarketa kolektiboa egitean sexu-bortxaketa politizatu zuten. Identifikatu zuten sexu-tortura armadaren estrategietako bat izan zela, emakume maiek menderatzeko eta sarraskitzeko eta "haien eskubideak aldarrika zituzten" ekiditeko, batez ere lurra izateko eskubidea. Hala gerrako krimen eta genozidio deitu zioten, eta emakume izateagatik euren patua zelako ideia baztertu zuten.

Euren egiari balioa ematean eta azalpen sozial eta politiko bat izatean, haiek erruduntzat hartzen zituen bertsio ofizial patriarkalak indarra galdu zuen. Errua kanpora atera zuten eta erasotzaileei leporatu zieten. Hala, autonomia-sentimendu bat garatu zuten indarkeria horren aurrean (Burin, 2002): biktimek ez zuten bekatu egin, "armadek" baizik, azken haiek gizateriaren aurkako krimena egin baitzuten. Hala, biktimek errespetua eta tratu ona merezi zutelako onartu zuten. Duin ez sentitzetik haserre egotera igaro ziren: "Ez da bidezkoa gu bortxatuak izatea". Orduan, ekintza kolektiboko bideari ekin zioten, justizia bilatzeko eta berriro gerta ez dadin bermatzeko, "ez alabei eta ez bilobei ere".

### **"Ni Catarina handia naiz"**

Biktimei sinetsi zien eta legitimatu zituen eremu soziala da emakumeen talde. Hala, biktimek euren buruan sinisten eta euren bizitza garrantzitsua zela sentitzen hasi ziren. Euren balioa sortu zuten, taldeko emakumeen ahotsean, istorioetan, begiradan, besarkadetan eta sostenguan aurkitzen zuten islan oinarrituta. Milango Emakumeen Liburu-dendak azpimarratzen duen bezala (2004: 168), "munduaren aurrean beste emakume bati autoritatea eta balioa ematea, nork bere buruari, esperientziari eta nahiei autoritatea eta balioa emateko bidea da". Bakoitza taldean entzuna, legitimatua eta aintzat hartua sentitzen den neurrian, taldeko gainontzekoei legitimitatea ematen die trukean. Hala, bakoitzaren inguruan erreferente positiboak sortzen dira eta

horrek autoberrespen kolektiboko prozesu bat sustatzen du emakume maien artean. Hain zuzen, emakume maien artean emakume maia gisa aitortzeak, haien historiatik eta esperientziatik abiatuta, aukera eman zien euren buruaren zentzu positibo bat sortzeko, bakoitza den eta izan nahi duen hori aintzat hartuz, haien gizatasuna kentzeko erregistro horiek ordeztuz.

Autobalorazio eta autoberrespen prozesuek itzuli zituzten pairatutako umiliazio, indarkeria, eraso, zapalkuntza eta desjabetze esperientziak, baita sexu-bortxaketa genozida eta kontrainsurgenteak areagotutako ezintasun, porrot eta baliorik ezezko sentimenduak ere. Emakumeek euren buruaren aurkako gorrotoa gainditu zuten eta orain badakite eta sentitzen dute balio dutela. Dagoeneko ez dira penatzen emakume jaio izanaz eta zilegitasun osoz berresten dute emakumeak direla: "Orain, erakundeari esker, emakumeok gure balioa ezagutzen dugu. Ez da lehen bezala. Indartsuak eta baliotsuak garela uste dugu". "Agian jendeak uste du txikia naizela, baina nire lana egiten dudanean nik erabakitzen dut. Catarina handia naiz". "Handi" sentitzen dira, mina gainditzeko eta euren bizitza aldatzeko boterea eta botere kolektiboa dutelako.

Baliotsuak eta garrantzitsuak izateagatik emakume mam eta txujek adierazitako poza handiaren aurrean, Sepur Zarcoko emakume kektxiak adierazitako frustrazioa eta oinazea oso bestelakoa da –"inork ez gaitu aintzat hartzen, inork ez digu eskerrak ematen"–. Kontraste horrek agerian uzten du epaitegi batean lortutako boterea ez dela gizartean botere propio gisa ezartzen, gizonen autoritateak hura onartzearen menpe baitago. Tribuna judizialaren botereak hori onartzeak, arlo sinboliko patriarkaetik, ez du emakumeen arteko aintzatespen-politikak sortzen duen legitimitate sentimendua ekartzen. Emakume-talde batean eman eta jasotzen den aintzatespena elkarrekin eta modu horizontal batean eraikitzen da, bakoitzaren berezko balioaren eta askatasun nahien arabera. Balio propioa sortzen du. Aitzitik, epaitegiak emandako giza-balioa kanpoko autoritate batek onartu behar du, hierarkian gainetik dagoena, eta ez da gizartean aplikatzen emakumeek auzitegitik irteten direnean.

## Gorputza berreskuratu, justiziaren erdigunean

Gorputza da gerraren ankerkeria pairatu duen eremu materiala; izan ere, inbaditua, torturatua, umiliatua eta sarraskitua izan da; gertakari traumatikoa gogoratzen duen tokia da. Eremu jakin horretatik abiatu behar gara justizia egin ahal izateko. Gorputza injustiziaren, inbasioaren, ankerkeriaren eta heriotzaren lekua izan bada ere, justiziaren, botere berreskuratuaren, duintasunaren, asetasunaren, askatasunaren eta bizitzaren leku bihur daiteke. Gorputza mapa eta bide bihurtzen da, injustiziatik justiziara igarotzeko metodologia eta metodoa. Injustiziaren kausa izatetik justiziaren printzipio izatera. Sexu-bortxaketa genozida eta kontrainsurgentearen injustiziak emakumei euren gorputzaren eta bizitzaren gaineko boterea kendu bazien, justizia botere hori eraikitzeke baldintzak sortzea da. Lorena Cabnal komunitate maia xincako liderra da eta Guatemalako feminista komunitario indigenen ahots publikoa. Bere hitzetan, "Gorputza berreskuratzea, bere aurkako eraso historiko estrukturalaren aurrean babesteko, eguneroko funtsezko borroka bihurtzen da; izan ere, gorputz-lurraldea patriarkatuaren helburu izan da milaka urtez, horien iraunkortasuna emakumeen gorputzaren bitartez eta gainean bermatzeko. [...] Plantamendu horrek gorputza berreskuratzerara eramaten gaitu, leku zehatz batetik bizitza duina sustatzeko" (Cabnal, 2010: 22).

Gorputza eta bizitza gauza bera da. Feminista komunitario indigenek azaltzen duten bezala, gorputza "gure lehen lurraldea" da; bizitza habitatzeko, sentitzeko eta esperimintatzeko eremua, eta hortik besteekin eta unibertsoarekin harremanetan jartzekoa. Hala, "barrutik berpizteko", arima gorputzean berrintegratu behar dugu eta hura errurik eta beldurrik gabe habitatu behar dugu berriro. Animaliak baino txarrago tratatuak izan ondoren, bizitza berregiteko eta gizatasuna berreskuratzeke, "beharrezkoa da gure gorputzasuna, nagusi den kulturak errua ezarri duen eremu hori berreskuratzea" (Pisano, 1996: 44). Sexu-bortxaketa oso krimen gaiztoa da, gorputza inbaditzen duelako eta krimenaren konplize izanaren sentsazio etengabea uzten duelako. Erruduna ez naizela *jakitea* ez da nahikoa errudun ez *sentitzeko*. Era berean, estrategia genozida eta kontrainsurgentean eta lurrak kentzean oinarritutako gerra-politika bat izan zela ulertzea ez da nahikoa "gaizto" ez *sentitzeko*. Izan ere, erruak gorputz osoa hartzen du, eta kontzientzia osoa ere.

Errua sendatzea gorputz-prozesu bat da. Hala, gorputzarekin berradiskidetzea eskatzen du, horretaz birjabetzea, horretan eroso eta seguru sentitzeko. Deskonektatu garen gorputz hori berriro sentitzea da, bizirik irauteko eta mina eta umiliazioa jasan ahal izateko; hau da, gorputza "anai bati bezala maitatzen ikastea", "bere erruagatik hau gertatu zitzaigulako" sortzen duen gorrotoa eta lotsa gainditzea. Halaber, sexu-bortxaketaren ostean azalean geratzen diren zikinkeria- eta gaiztakeria-sentimenduak ezabatzea da, baita arrisku-sentsazioa eta geldiarazten gaituen izua ere, gure gorputza berriro mobilizatzeko gaitasuna dugula sentitzeko, bai disfrutatzeke eta bai gure burua salbatzeko. Horrela bakarrik gauza daitezke ez errepikatzeke bermeak. Justizia gorputzean sentitu eta ikusi egiten da.

Marraskien, masajeen, dantzen, laztanen, besarkaden eta lurrarekiko, suarekiko, urarekiko eta airearekiko loturaren bitartez, biktimak haien gorputzak ezagutzen joan ziren, eta sentitzeko, mugitzeko eta disfrutatzeke aukerarekin birkonektatzen. Emma Chirixen esanetan, aukera izan zuten "euren gorputzak ezagutzeko, laztantzeko eta estimatzeko, berezko bezala ikusten ikasiz eta ez botereak arrazializatutako objektu bezala" (hemen aipatua: Gargallo Celentani, 2012: 271). Hala, dantza funtsezkoa izan zen gorputza gozamenaren eta pozaren bitartez mobilizatu eta berreskuratzeko. Izan ere, emakumeek aldakak, besoak eta mugimenduak askatu zituzten. Aske bizitzeko eta izateko baimena eman zioten euren buruari, inolako rolik bete eta agindurik jarraitu gabe. Dantzari esker gero eta erosoagoak sentitu ziren euren gorputzean. "Nik dantza egiten dut gustatzen zaidalako eta oso ondo sentitzen naizelako; dagoeneko ez nago makurtuta". Lotsa gorputzetik atera zuten. "Lehen lotsa genuen dantzatzeko eta gure gorputza ukitzeko. Orain mugitu egin gaitzeko eta gustatzen zaigu. Barre-argaren bitartez, bizitzeko eta lurrean bizirik jarraitzeko gogoia pizten zaigu".

## **Zer lotura dute maitasunak eta justiziak?**

Actoras de Cambio kolektiboak nahita eta kontzienteki martxan jarri genuen emakumeen arteko aintzatespen-politika bat eta horrek erakutsi zigun besteak aintzat hartzeko beharrezkoa dela bakoitzak bere burua

aintzat hartzea eta bere buruarengan konfiantza izatea eta, hala, desadostasunak onartzea –horrek, aldi berean, taldean onartua eta maitatua sentitzea eskatzen du–.

Prozesu honetan, elkarri entzuteaz eta elkar aintzat hartzeaz gain, geure burua maitatzen ikasi dugu, besteak maitatzen ikastearekin batera. Hori da, hain zuzen, Actora de Cambio kolektiboak sustatutako eta lagundutako prozesuaren alderdirik subertsiboena. Hala, maitasuna besteei entzutean eta bakoitzak duen adorea eta bizi-indarra aintzat hartzean sortzen da, eta sakonagoa eta esanguratsuagoa da gure arima biluzten eta, besteei esker, bizitza eraldatzeko aukera elkarrekin esperimendatzen dugun neurrian. Maitasunak –bihotza zabaltze horrek posible bihurtzen du ezinezkoa eta ametsak elikatzen eta gorpuzten ditu– indarra eman zigun, eta, aldi berean, leuntasuna: Horiei esker, mina eta gorrotoa gainditu ahal izan zuten, eta desparekotasun historikoez zeharkatutako emakume talde anitz batek prozesu sozial eta politiko bat eraiki eta sostengatu ahal izan zuen, erronkei aurre egin ahal izateko. Maitasunetik, guztiak gara garrantzitsuak; guztion izatea eta hitza zilegi eta baliotsuak dira. Guztiok dugu leku bat. Hala, maitasunak borondate politikoa, konfiantza, irmotasuna eta sormena eman zigun, emakumeon artean harremanak izateko eta eragiteko metodologia espezifikoak diseinatzeko eta abian jartzeko. "Energia sortzaile eta indartsu hori da, (...) besteekin sakon partekatzen datorrena", benetako ezagutza sortzen duena eta "partekatzen dutenen artean zubi bat ezartzen duena, partekatzen ez den hori ulertzeko eta desberdinarekiko beldurra gainditzeko oinarria izan daitekeena" (Lorde, 2003: 41). Maitasuna, beraz, "emantzipazio-metodologia" bat da, "ulermena eta komunitatea lortzeko edozein kontrol zeharkatzea" ahalbidetzen duena (Sandoval, 2015: 236-237).

Maitasuna indar gozo bilakatu zen eta bizitza sortu zuen, eta segurtasuna, partaide izatea eta poza ekarri ere. Maitasunari eskez, emakumeak konfiantzan eta taldean maitatuak eta onartuak sentitu ziren. Hala, sexu-krimenek eragindako isolamendua, indarkeria eta gizarte-bazterkeria sendatu zuten. Maitasunak, bada, euren burua gorrotatzeari uzteko indarra eman zien. Izan ere, gorroto hura mirabe bezala –edo, are okerrago, abere bezala– tratatzen dituen kultura patriarkal kolonialak introiektatu zien

eta gorputzean modu basatian inprimatu zien sexu-bortxaketa genozida eta kontrainsurgentearen bitartez.

"Ez nuen sentitzen nire buruagatik benetako maitasuna. Ez nuen sentitzen. Actoras-en ulertu nuen hori. Hobe nire burua maitatzea, Chavela naizen aldetik dudan berezko ezaugarria antzematea, nola maite dudan nire burua. Ez nuen ispiluan begiratu nahi, baina dena ulertu nuenetik begira dezaket [...] Hala, nire izaera aurkitu nuen" (Chavela, txuj herriko Chacula komunitateko liderra).

Norbera den hori onartzea, argi-ilun eta kontraesan guztiekin, norbera maitatzeko iturria da. Beraz, gorputz- eta emozio-erregistro berriak sortu genituen. "Elkar samurtasunez tratatzen" ikasi genuen, hori ohitura bihurtu zen arte (Lorde, 2003: 207). Harremanaren berotasunaren bitartez, bakoitza izatearen garrantzia aintzat hartu genuen. Hala, begirada leunek, besarkada sostengatzaileek eta laztan lagungarriek patriarkatuaren, gerraren eta arrazakeriaren erruz gure baitan instalatutako indarkeria, ankerkeria eta gorrotoa sendatu eta ordeztu zituzten. Gurekin erabilitako (guk geuk ere) gogortasuna eta ankerkeria -eta ondorioz, besteekin erabiltzen ditugunak- desegin genituen. Konfiantza berrehundu genuen eta emakumeen arteko harremanetarako irakatsi diguten misoginia hariz hari desegin genuen. Indar kolektibo izugarria ehundu genuen: errebeldea, kohesionatua, alaia eta maitasunezkoa. Eta horrek gure artean "benetako batasun batek duen boterea"ren berri ematen du (Lorde, 2003: 177).

### **Justizia da "nor bait nirekin dagoela"**

Emakume maia jaio izanagatik inposatutako gizatasun-gabetzeko patua itzuli egin zuten biktimek (patu horren formarik krudelena, bada, sexu-bortxaketa genozida izan zen). Honela diote: Justizia da "nor bait nirekin dagoela". Gaur, hainbat emakumek osatutako gizarte-eremu bat dago komunitatean, biktimei entzuten diena, haiek aintzat hartzen eta maitatzen dituen eta haien behar eta erabakiak sostengatzen eta babesten dituen. Ez daude bakarrik. Partaide dira berriro, eta horrela familian, komunitatean eta gizartean bizi izandako bazterketa ankerra sendatzen

dute. Berriz ere, leku bat dute munduan; hau da, eurek eta eurentzat diseinatutako leku bidezkoa, euren nahien arabera eta ez bestek obeditzeko. Hura emakumeen taldeak legitimatutako, sostengatutako eta babestutako lekua da. Hala, Che Cruz komunitate mameko liderra den Doña Andrearen esanetan "Justizia emakumeen taldea da. Gure indarra da, gu babesten gaituena".

Emakumeen arteko aintzatespen- eta maitasun-politika, gizonen autoritatea tartean ez dagoela, erreparazio-iturria da; justizia-eremu bat da non emakumeok justizia ematen diogun elkarri, gugandik abiatuta (Milango Emakumeen Liburu-denda, 2004: 207). Erabateko aldaketa sinbolikoa da. Horretan, autoritate patriarkalak gudan duen boterea galtzen du, ez baitugu bere onespina behar existitzeko, ezta bere aintzatespena ere bere ankerkeria- eta heriotza-sistemak eragindako mina erreparatzeko. Gure artean sendatzea da justizia.

## **2.2. Justizia-esperientzia: gorputzaren eta bizitzaren gainean berreskuratutako botere propioa**

Bakoitzak sentitzen dituen eta taldearen indar kolektiboak babesten dituen maitasun propioa eta legitimitate-sentimendua ekintzarako eta euren bizitza eraldatzeko botere bilakatu ziren. Hala, boterea ez du goian dagoen autoritate maskulino batek "ematen" eta ez du zertan kanpotik onartua izan existitzeko eta erabilia izateko; aitzitik, norberaren legitimitate- eta baliotasun-sentimenduan oinarritzen da. Norberarekiko errespetuarekin lotuta, biktimek euren premiak, interesak eta nahiak identifikatu zituzten; eta euren boterearekin lotuta, "bizitza alai" izateko nahiaren arabera sortzen hasi ziren bizitza. Ondorioz, "ezin izate"aren sentimendua, testuinguru oso misogino eta arrazista batek euren subjektibitateetan ezarria eta sexu-bortxaketaren ondorioz larriagotua, "egiteko ahalmen" bilakatu zen. "Haien [gizonen] eskuetan" egotetik, orain, biktimek sentitzen dute euren gorputzak eta bizitzak euren eskuetan daudela eta euren bizitza eraldatzeko gai direla. "Orain ni gai naiz". "Orain hitz egiteko, ibiltzeko, irteteko, beldurrik gabe ibiltzeko, dantzatzeko eta nire burua defendatzeko gai naiz". Horiek dira euren bizitzetan gertatutako

aldaketen adierazpenak, biktimentzat justizia dakartenak. "Nik sentitzen dut orain badagoela erabakitzeko ahalmena", diote.

Emakumeen taldean harreman-modu berriak esperimentatu izanak – elkarki entzutetik, elkar aintzat hartzetik, samurtasunetik eta laztanetik– ulertarazi zien ondo tratatuak izatea merezi zutela eta indarkeria alde batera utz zitekeela. Orduan, hori familia- eta komunitate-eremuan sustatzen hasi ziren. Bizitza duina, zoriontsua, askea eta indarkeriarik gabekoa izateko beharrezkoak ziren aldaketak egiteko indarra eman zien taldeak. Dagoeneko ez dituzte indarkeriazko erantzunak onartzen edo jasaten eta ez dira horietara ohitzen. Hala, ez errepikatzeko baldintzak ezartzen dituzte euren bizitzan. "Nik ez dut jadanik onartzen senarrak niri oihukatzea edo jotzea. Ondo hitz egiteko esaten diot, pertsona naizela eta ulertzen dudala". Norbera "pertsona" gisa ikustearen eta taldearen babesa sentitzearen eraginez, aurre egin diote gizonen indarkeriari; izan ere, hura pizten da gizonek kontrola galtzen ari direla eta emakumeek haiek esandakoa betetzen ez dutela sentitzen dutenean. "Talde horretan egoteak adorea eta indarra ematen dit gizoni aurre egiteko eta ez naizela isiltzen frogatzeko [...] lotsarik ez dudalako eta errespetatu egin behar nautelako. Gauzak aldatu dira jada".

Azpitarratzekoa da emakumeek sexualitatearen arloan ere gauzatu dutela botere hori, "ez dudala nahi esateko boterea" eskuratu dute. "Dagoeneko, gai naiz esateko senarrarekin ohean egon nahi badut edo gaixorik banago edo ez badut nahi; esatera ausartzen naiz" dio Doña Andreak. "Ez nuela beldurrik izango erabaki nuen eta osasuntsuago sentitzen naiz. Hobe da. [...] Horrek sendatu ninduen" dio Chavelak. Hortik ikas dezakegu ezin ditugula sexu-bortxaketa genozida eta kontrainsurgenteak eragindako kalte sakonak erreparatu ez badugu lantzen emakumeek egunero bizi dugun nagusitasun eta indarkeria maskulinoa. Sexu-bortxaketaren biktimentzat justizia-baldintzak sortzeko beharrezkoa da, halaber, gizonek haien/gure gorputzengan duten boterea ezabatzea; hori gabe, ez dago sendatzerik ezta boterea berreskuratzerik ere. Era berean, ezin da justiziarik egon, ez baitira sortzen ez errepikatzeko baldintzak. Deskonexioa ematen da salatzen dutenaren/dugunaren eta bizi dutenaren/dugunaren artean, ezintasuna, larritasuna eta gutxiespen-prozesuak eraginez, kaltea, errua eta menperatzea sakontzen dutenak.



Norberaren bitzita norberaren nahien arabera sortzeko boterearen gainean kontzientzia hartzeak askatasun sentimendua dakar. "Orain libre naiz eta hori bidezkoa da niretzat", dio Doña Andreak. Askatasun hori justizia bezala bizi dute, aukera ematen baitie familian eta komunitatean bidezko leku bat sortzeko, estigmatizatuak, arbuiauak eta baztertuak izan ondoren. Askatasun politikoa da eta hura euren lurraldean emakume guztientzat bizi-baldintza duinak sortzeko erabiltzen dute. Hala, biktimak "komunitate-ehun"etik isolatu ordez (Gutiérrez Aguilar, 2015), emakumeen arteko aintzatespen- eta maitasun-politikari esker, biktinek emakumeen aldeko "erabaki politikoa sortze"an parte hartzeko baldintzak dituzte (Tzul Tzul, 2016: 167). Dagoeneko ez dute haien gizarteratzea eskatzen, ez dute iritzia emateko eta jarduteko baimenik eskatzen. Partaide sentitzen dira eta hala jokutzen dute. "Guretzat justizia gugatik zerbait egitea da, bortxatutako emakumeengatik zerbait egitea".

### **2.3. Justizia egin: emakumeen bitzita zilegitzeko eta defendatzeko ekintza kolektiboa**

Biktimentzat, justiziaren esanahi nagusia da "etorkizunean, ez oso urrun, neskei eta emakumeei kalterik ez egitea". Horretarako beharrezkoa da epe luzeko aldaketa sozial eta politikoak egitea, bai familia-eremuan eta bai emakumeen "mundu komunean" (Arendt, 1993). Emakume mam eta txujek egindako prozesu komunitarioen eta emakume kektxiak egindako prozesu penalaren arteko aldeak erakusten du garrantzitsua dela kolektiboki eremu komunean sartzea eta hura hartzea, erruaren tokitik kanpo, "emakumeen esperientzia, jakintza eta balioa errealitate sozial bihurtzeko" (Milango Emakumeen Liburu-denda, 2004: 107).

#### **"Agertzea eta bere lekua hartzea": "ezdeus" izatetik "autoritate" izatera**

Zazpi urtez sendatzeko, oroimen historikoko eta ez errepikatzeko antolakuntzako prozesuak egin ondoren emakume mam eta txujek komunitatean isiltasuna haustea eta kolektiboki eragitea erabaki zuten, "berriro gerta ez dakien, ez alabei eta ez bilobei". Ezkutatzera eta etxean geratzera behartuak izan ondoren, emakumeak "agertzen eta euren

lekua hartzen" hasi ziren; hau da, sozialki existitzen. Ekintza kolektiboak burutu zituzten sexu-bortxaketa krimen gisa aitortua izan zedin eta komunitateak hura gehiago onar ez zezan, baita gizonaren indarrak, indarkeriak, militarizazioak eta gerrak euren legitimitasun soziala gal zezaten ere. Hala, biktimek eremu publikoa hartzea – nagusiki, gizonen eremua dena-- ezinbestekoa izan zen euren bizitzan justizia lortzeko baldintzak ezartzeko, komunitatean gizonen eta emakumeen arteko botere-harremanak eraldatzeko, eta kontzientzia kolektiboak sexu-bortxaketa onartu ezineko krimena dela uler dezan<sup>12</sup>.

Oroimenaldien bitartez, biktimak komunitatean "agertzen" eta euren lekua hartzen hasi ziren, lotsarik eta errurik gabe<sup>13</sup>. Sexu-bortxaketaren eta gerraren inguruan oroimen historikoa gitea, bada, abiapuntua izan zen

---

12 Sexu-bortxaketa ez da krimena imaginario sozialean. Emakumeen esperientzia izendatzeko legitimitatea duen ahots bakarra ahots patriarkal koloniala da eta hark emakumeek onartutako sexu bihurtzen du bortxaketa. Hala, sexu-bortxaketa existitzea lortzen dutenean arrakala bat zabaltzen dute imaginario kolektibo patriarkalean, hura emakumeengan eragiten duen kaltearen arabera aintzat hartua izan dadin; hau da, krimen eta tortura bezala.

13 Oroimenaldiak gune sozialak dira. Horietan biztanleek biktimei entzun eta haiekin partekatu, eztabaidatu, negar egin, barre egin eta dantza egin dezakete, haiek bizitako gerraren istorioa ezagutzeko eta horren oinarrian dauden praktikak eta pentsamoldeak nola aldatu hausnartzeko, horiek gure bizitza eta harremanetatik ezabatzeko. Jaialdi ireki eta publiko horietan egiarako momentuak eta momentu artistikoak, foroak eta eztabaidarako eremuak uztartzen dira; mina askatzeko eremuak eta batukadarako eta bizitzarekin eta alaitasunarekin birkonektatzeko dantzarako momentuak. Eskualdeko lehen oroimenaldia Huehuetenangon ospatu zen 2008ko azaroan, "Sobreviví. Estoy aquí. Estoy viva" (Bizirik iraun dut. Hemen nago. Bizirik nago) izenarekin. Hura izan zen Guatemalako lehenbiziko tribuna publikoa non biktimek gerran pairatutako sexu-krimenen inguruko isiltasuna hautsi zuten. 2011z geroztik, biktimek, urtero, jaialdiak antolatu dituzte euren komunitateetan, Huehuetenangoko mam eskualdean eta txuj eskualdean, honako izen honekin: "Emakumeen ahotsaren, oroimenaren eta askatasunaren aldeko jaialdi komunitarioak". Ikus dokumental hauek: "Yo soy voz de la memoria y cuerpo de la libertad" (Oroimenaren ahotsa eta askatasunaren gorputza naiz): <<https://www.youtube.com/watch?v=qXmYey3gYsM>>; eta "Abramos el corazón para despertar la conciencia" (Ireki dezagun bihotza kontzientzia iratzartzeko): <<https://www.youtube.com/watch?v=ff62l8KsdDQ>>.

euren egia imajinario kolektiboan ezartzeko, emakumeen inguruan balio berriak eta erreferente positiboak sortzeko eta eurentzat bidezko leku bat berreraikitzeke. "Oroimenaldietan nire istorioa ezagutzera ematea oso lagungarria izan zer emakume berri gisa birsortzeko. Hitz egiteko lotsa handia neukan, nire ahoa estaltzen nuen, dar-dar batean nengoan. Orain boterea sentitzen dut, handia naiz".

Oroimenaldiak duintzeko eta erreparatzeko eremu bat izan dira. Biktimek ez dute behar, jadanik, besteek euren hitzaren balioa aintzat hartzea edo euren egia onartzea. Emakumeen botere kolektiboak aintzat hartzen eta babesten du euren ahotsa eta, hala, ahots hori autoritate bilakatzen da. "Agertuz" eta euren istorioa publikoki partekatuz, emakumeek sexu-bortxaketa ezabatu beharreko arazo gisa kokatzen dute arlo komunari buruzko deliberamenduaren eremuan. Hura politizatzen dute. Dagoeneko, ez da lotsagarria eta ez da norberaren arazoa. Sexu-bortxaketa ez da normala, ezta emakume izateagatik dugun patua ere. Krimena da. Hala, erasotzaileak ezagutzera ematen dituzte eta armadaren, autodefentsa zibileko patruilarien, agintari militarren eta emakumeak bortxatu zituzten senideen erantzukizuna adierazten dute; hau da, erantzukizun soziala dagokion lekuan kokatzea lortzen dute. Hala, estigmatizazio sozial bidegabea itzultzen dute eta justizia ematen diote euren buruari. "Besteen" begiradak ez die jada beldurrik ematen; ez baitira errudunak: "Lotsa haiena [erasotzaileena] da!".

### **"Inoiz ez berriro", ez nire alabei eta ez nire bilobei**

"Inoiz ez berriro" leloak izua gainditzera eta bizi izandako sexu-tortura eta -esklabotza ezagutzera ematera bultzatu zituen biktimak. 2008ko lehen oroimenaldi nazionaletik, emakume mam eta txujek euren istorioa ezagutzera ematea erabaki zuten oso helburu argi batekin: "etorkizun ez oso urrun batean neska eta emakumeei minik ez ematea".

"Emakumeek nik pairatu nuena pairatu ez dezaten kontatzen dut [nire istorioa]. Neska bat bortxatu dutela entzuten dudanean, min handia ematen dit [...] Lehen ezin genuen hau kontatu, lehen, soldaduen garaian, ez zigun inork galdetzen. Orain hitz egin dezakegu".

Sexu-bortxaketa isilaraztearen eraginez, historiatik ikasteko gaitasun kolektiboa kendu zaigu emakumeei; baita gure bizitza babesteko eta gure egoera aldatzeko estrategiak garatzeko gaitasuna ere. Beraz, euren istorioa publikoki partekatzean, biktimek intimitatearen eta tabuaren eremutik ateratzen dute sexu-bortxaketa. Horrela, emakume maiei min ematen dieten praktikak eta pentsamoldeak errotik ateratzera gonbidatzen dute komunitatea eta gizarte osoa. Bizi izandakoaren gaineko hausnarketan bitartez, tresnak eskaintzen dituzte, beste emakume eta neska batzuek euren gorputzen gaineko botere maskulinoa identifikatzeko eta gorputzaz eta sexualitateaz birjabetzeko, obediencia gisa ikasitako feminitatea deuseztatzeko, mugak jartzeko eta euren burua defendatzeko gai izateko: "Nire istorioa kontatzeak borrokatzen jarraitzeko adorea ematen dit. Ondo sentitzen naiz partekatzen dudalako eta ez dudalako nire kolporako gordetzen, eta pozik nago istorio honek bidea zabaldu dielako beste emakume batzuei". Biktimak lotsarik gabe, kopeta gora eta euren gorputzean eroso eta seguru hitz egiten ikusi zituztenean, beste emakume batzuek onartu zuten gauza bera bizi izan zutela, ez dela bidezkoa eta ez dutela zertan sexu-bortxaketa patu gisa onartu; ezta euren alabek ere. "Emakume asko gugana etortzen dira gugan aldaketa ikusi dutelako; ikusten dute nola gabiltzan. [...] Burua txakur bat bezala makurtzeari utzi diot" dio batek. Beste baten esanetan, aldiz: "jadanik ez dut aurpegia estaltzen". Eta hain handia izan da aldaketa non komunitateko pertsona askok zein botika hartu duten galdetzen dien:

"Suspertu nintzenean, galdetzen zidaten zer hartu nuen, zein zen botika, bizirik nengoelako. Lehen ia hilik nengoen. Ez nuen dantza egiten, ez hitz egiten, ez barre egiten, ez mugitzen. Orain, ordea, hitz egiteko eta dantzatzeko gogoak ditut; pozik nago, oso pozik".

Sepur Zarcoko emakume kektzien eta Huehuetenangoko emakume mam eta txujen esperientzien arteko aldeak argi erakusten du garrantzitsua dela emakumeek eurek euren egia sendotasunez adieraztea –gizonen eta erakundeen bitartekaritarik gabe– egia sozial bezala ezartzeko. Biktimen inguruko sinboloen eta esanahien aldaketa –"bortxatua", "puta" edo "senar-lapurra" izatetik, "autoritate" bilakatzera– eremu publikoa

kolektiboki okupatuz lortzen da, errurik eta lotsarik gabe, gorputz sexualizatu eta arrazializatu batean bizitzeak dakarrenari buruzko kontzientzia politikoarekin, eta norberaren boterea berreskuratuz. Haien hitzak eta haien egia, emakumeen indar kolektiboak zilegituta, arrakala bat zabaltzen dute imaginario kolektiboan eta eremu publikoan eta, horrela, hura ez da gehiago maskulinoa, kontrainsurgentea eta koloniala soilik. Ondorioz, emakumeen autoritatea sendotzen da, eurentzat eta euren familia eta komunitateentzat. Emakume bezala aintzat hartuak, baloratuak eta errespetatuak dira familiarrean eta komunitatean. Desterratuak eta paria bezala bizi izan eta gero, sozialki existitzen direla sentitzen dute, edo hobeto esanda, eurek aukeratutako leku berri eta bidezko batetik berrestitzen direla. "Garrantzitsu" sentitzen dira.

"Horixe da sentitzen dudana zirrara! Aldatzea lortu genuen! Nire ametsa lortu nuen! Komunitateetako emakumeak, bizilagun garen emakumeak, oso apal ikusten gaituzte, oso sinple; baina konturatzen bagara, garrantzitsuak gara!".

### **Emakumeen legea: "orain badago guri entzuten digunik, gu defendatzen gaituenik"**

Gerran sexu-bortxaketaren biktima eta gero estigmatizatuak eta baztertuak izan baziren ere, emakume mam eta txujak erreferente bilakatu ziren euren komunitateetan, hau da, komunitateko emakumeen eta nesken aurkako indarkeria, bortxaketa eta intzestuak prebenitzeko, zigortzeko eta ezabatzeko "autoritate". Autoritate moralaren ahotsa kanpotik barrura joan zen. Hierarkikoki altuagoa den kanpoko autoritate maskulino eta beldurgarri bati obeditzetik -jainkoa, epailea, ugazaba, komunitateko agintaria edo senarra-, kolektiboki euren autoritatea eraikitzen, elkar aintzat hartzeko prozesu horizontal baten bitartez. Etengabe egiaztatzen da komunitateko agintariak eta epaileak ez dutela ezer egiten sexu-bortxaketa kasuetan, biktimei "barre egiten dietela" eta "gutxiesten" dituztela; bortxatzailearekin ezkondu nahi dituzte edo harekin negoziatu. Horren aurrean, emakume mam eta chujen sareek autoritate kolektibo bezala jokatzeko erabaki dute justizia egiteko.

"Hau da ikusi dudana: epaileen eta agintarien legea ez da emakumeen aldekoa. Emakumeari gertatzen zaionaz barre egiten dute. Ez gaituzte aintzat hartzen, ez digute entzuten. Gizonek erabiltzen dute lege horrek ezabatzen nau, gutxien nau".

Emakume mamen sareetako beste lider baten esanetan:

"Guretzat legeak ez du funtzionatzen. Zergatik ez ditugu emakume bezala gure legeak sortzen, guretzat justiziarik ez badago eta gure komunitateetan neskak eta emakumeak bortxatzen ari badira? Asmoa emakume gehiago antolatzea da. Badago proposamen bat, bortxatzaileen aurkako lege horiek erabiltzen dituzten emakumeak egotea. Eta indartsu sentitzen gara emakumeen sare bat edukitzeko".

Haien hitzetan, "emakumeen lege" bat sortzen ari dira:

"Emakumeen legea esaten dugunean, sare bati buruz ari gara, hain zuzen ere, komunitateko hainbat emakumek osatutako sarea. Horren helburua da arazoak geuk konpontzea eta ondo sentitzeko beste modu batzuk bilatzea, ikasi ditugun terapiak erabiliz. Baina ez gehiago pentsatzea alkatearekin konponduko dugula".

Doña Andreak gehiago garatzen du ideia hori:

"Niretzat, emakumeen legea da gure artean indar handia izatea. Biltzen gara eta elkarri entzuten diogu ahalduntzeko. Emakumeen legea sendatzea da. Emakumeari eskaini dakioken sendabidea. Emakumeen legea gauzak esatea da, etxean hasita, bikotekideari esanez zer ez zaizun gustatzen. Ez naiz jo daitekeen animalia. Ezetz esateko indar hori izatea da. Justizia emakumeen taldea da. Gure indarra da babesten gaituena.

"Gizonen legeak" ez bezala, "emakumeen legeak" ez die biktimei barrerik egiten, ezta gutxien ere; aitzitik, entzuten die, eta sinesten ere. Ez du abstraziorik egiten, ezta bizi izandako oinazeaz barre egiten ere, baizik eta eremu kolektiboak zabaltzen ditu, oinazea sendatu eta eraldatu ahal

izateko. Bere ardatza sare bat da, sendatzeko, elkarri laguntzeko, babesteko eta komunitateko emakumeen eta izaki guztien bizitza, osotasuna eta askatasuna defendatzeko mobilizatzen dena. "Emakumeen lege" horrek lege-indarra du "norbait gurekin" dagoelako. "Lehen, gizonak nahi zutena egiten ziguten, edo guri buruzko edozer asmatzen zuten, inork ez zigulako entzuten, inork ez gintuelako defendatzen. Baina orain badago guri entzuten digunik, badago gu defendatzen gaituenik",

"Emakumeen lege" hori ez da oinarritzen idatzizko eskubideetan, baizik eta emakumeen eta izaki guztien osotasuna, askatasuna eta bizitza lehenesten duen etika berri batean. Justizia komunitarioko ekintzak kolektiboki erabakitzen dira, emakumeen sareetan eta Actoras de Cambio kolektiboarekin batera, eraso-motaren eta erasoak jasan zuten emakumeek edo neskek duten justizia grinaren arabera. Hala, emakumeek kaltea sendatzeko, gertatutakoari esanahi berri bat emateko eta euren bizitzaren kontrola berreskuratzeko eremua sortzea da emakumeengandik sortutako justizia komunitario horren ardatz nagusia; izan ere, justizia horrek "zaintzaren etika" txertatzen du (Gilligan: 2013). Beste ardatz garrantzitsu bat da mezu sendo bat duten sendatze sozialeko ekintzak bultzatzea, hain zuzen, ez dela sexu indarkeria onartuko, edozein forman eta adierazpenean ere. Izan ere, Doña Andrearen esanetan, "guk, emakumeok, bakean eta indarkeriarik gabe bizi nahi dugu".

## **Beldurra eta lotsa itzuli**

Komunitateko emakumeen sareek egindako zigor-ekintzak publikoak dira eta bi helburu dituzte: lehenengoa, erasotzaileen botere soziala deuseztatzea, bortxatzen jarrai ez dezaten; eta, bigarrena, emakumeek eta neskek "hura bortxatzaile bat dela jakin dezaten eta euren burua babesteko aukera izan dezaten. Estrategia horren ardatz nagusia erasotzaileei lotsa itzultzea da, lotsa soziala erasotzaileengan jartzen dela bermatzea. Ekintza horiek gizarte-zigorreko mekanismo giza funtzionatzen dute eta muga material eta sinbolikoa jartzen diote indarkeriari. Gainera, justizia-ekintza bat dira emakumeentzat, errua eta lotsa gainetik kendu baititzakete. "Nire ustez, egin genuen ekintza hori [bortxatzailea publikoki salatzea], funtzionala da. Gizon hori, etxera erretiratu zen debora luzez, dagoeneko

ez doa Nentonera, ez doa Graciasera, ez da etxetik irteten pentsatzen duelako bestela 'harrapatuko nautela, batek daki non, eta kartzelaratu nautela berriz'. Ez da irteten berarentzat izugarria izan zelako, susto bat; ez berarentzat bakarrik, bazik eta gizonen mundu horrentzat ere"<sup>14</sup>.

Sexu-bortxaketako ekintzak ez direla isilpean eta zigor gabe geratu eta erasotzaileek euren ekintzen erantzukizuna izango dutela jakiteak muga bat ezarri die komunitateko gizonari. Honako hau diote: "emakume horiek zuzenean bidaliko gaituzte zerbait egiten badugu. 'Isildu!' Txintik ere ezin diogu esan emakume bati. Zer egingo diogu ba! Irabazi gaituzte emakume madarikatu horiek!". Hala, emakumeek kopeta gora eta beldurrik gabe ibil daitezke berrito kaletik. Beldurra eta lotsa alderdiz aldatu dute. Gizonen beldurra dute eta "emakumeek botere eta adorea". Justizia egin da.

Hala ere, gure esperientziaren arabera, erasotzaileak publikoki salatzea, horiek gizon arruntak, paramilitarrak edo militarrik izan, itun patriarkalaren muinean atzamarra sartzea da, hau da, gizonen gure gorputzen gainean duten eskubide oinarrikoan. Hori "sorgin-ehiza" bati aurre egitea da (Amorós, 1990: 15). Actoras del Cambio kolektiboaren konplizea den Virginia Gálvezek kontatzen digu zein gogorra izan zen errepresaliek izan zezaketen indarkeria-mailaz konturatzea:

"Ekintza horrekin muga bat ezarri nahi izan genuen, 'nahikoa da' esan. [...] Nik, hain zuzen ere, erasotzaileen errepresaliak jasan behar izan

---

14 Chavelak aipatzen dituen salaketa publikoko eta gizarte-zigorreko ekintzak El Aguacateko emakume txujen sareko kide bat bortxatu ondoren egin ziren. Bortxaketa 2014ko apirilean izan zen, emakumea merkatura zihoala. Emakumearen seme-alabek bortxatzailea atzematea eta polizia eramatea lortu zuten. Poliziak, bere aldetik, Nentoneko bake-epailearengana eraman zuen bortxatzailea eta epaitegi horretan erregistratu zuten salaketa. 24 ordu geroago, epaileak aske utzi zuen, senideek hura atzemateko eskumenik ez zutela argudiatuta. Bake-epailearen, komunitateko agintarien eta sexu-predatzaileen arteko kolusioa egiaztatuta, hainbat ekintza egitea erabaki genuen, bortxatzailea ezagutzera emateko, bere ekintzen ondorio sozialak onar zitzan eta mezu sendo bat transmititzeko; alegia, komunitatean ez dela inolako sexu-indarkeriarik onartuko. Kasua sakonago aztertzeko ikus *La Ley de Mujeres* (Emakumeen legea) laneko VIII. kapitulua (Fulchiron, 2018).



nituen, eta ez nuen pentsatzen hainbestearainokoak izango zirenik. Zentzugabekeria bat zen; 'kartzelara itzazue!' edo 'bortxa itzazue!'. [...] Ez dakit nola egon horretarako prest, baina kontziente izan behar dugu hori gerta daitekeela. Oso biolentzia da eta biolentzia, horrelako ekintza baten ondoren, lurraldea markatzea da. Zuk zeure muga markatzen duzu eta besteek erantzungo dute".

Horregatik da beharrezkoa bere buruaren kontzientzia duen emakumebotere bat sortzea, kohesionatuta dagoena eta errepresaliei aurre egiteko, guztion bizitza babesteko eta epe luzean indar kolektiboa eta ekintza antolatua sostengatzeko argitasun politikoa duena, azkenik, nagusi den botere-desoreka bihurtu ahal izateko. El Aguacaten, bortxatzailearen aurkako gizarte zigorra garrantzitsua izan zen komunitateko gizonen eta emakumeen arteko botere banaketari dagokionez. Arrakala bat zabaldu ahal izan zuten imajinario komunitarioan eta, horren bitartez, komunitateko kideak ulertzen hasi ziren sexu-bortxaketa ezin dela onartu. Emakume txujen sareko kide baten senarraren esanetan: "Ondo dago zure adiskideek egin dutena, berari eta guri, mainontziori, mainak kentzeko, [...] ikas dezagun badagoela emakumeak babesten dituen". Bestalde, neska txuj baten aitak hau esaten digu: "Norbaitek salatu behar badu, nik nire babes emango diot. Legeak hori jakin behar du, horrelakorik ez baita gertatu behar. Ez da bidezkoa gizon horrek egiten duena. Hori bortxaketa da".

Komunitatean, sinbolo berriak eta lege berri bat sortzen ari dira: bortxaketa krimena da, eta badago emakume-talde bat hori errepikatuko ez dela bermatzeko prest dagoena. Haiak esaten duten bezala, "orain legea dago, gure agintariak emakumeak babesten eta defendatzen gaituztelako". Emakumeen arteko aintzatespen-, maitasun- eta osatze-politikak emakumeen botere politikoa bat sortu du, indar sinboliko eta disuasio-indar nahikoa duena "komunitateko ehunean gizonen eta emakumeen tokia berrerekatzeko" (Tzul Tzul, 2016: 200).

"Emakumeen antolaketa esker, emakumeek euren balioa ezagutzen dute. Ezagutzen gaituzte eta badakite indartsuak garela. Orain, gure lekua ematen digute eta errespetatzen gaituzte. Gaur, badakigu ez dugula bortxaketa onartuko eta gugatik justizia egiten dela. Gizakiak gara eta eskubideak ditugu. Orain, altxatzen ari gara".

### 3. Ondorioa

Emakume mam eta txujak euren komunitateetan bizikidetzamodu berriak ezartzea lortzen ari dira, emakumeen autonomia, osotasuna, ongizatea eta askatasuna errespetatzean oinarrituta. Familiartean eta komunitateetan senidetasun-harremanak birnegoziatzen ari dira. Komunitateko emakumeen bizitza eta elkartasuna gizonen nagusitasunean oinarritutako senidetasun-harremanak baino garrantzi handiagoa dute. Hala, emakume horiek erakusten digute ezin dela justizia-proiekturik egon emakumeok ez badugu gure lurralde-gorputzaren gaineko boterea kolektiboki berreskuratzen, ez badiogu elkarri laguntzen eta ez badugu botere politiko bat sortzen, jokoaren arauak aldatzeko indar sinbolikoa eta materiala duena, bai gure etxe eta komunitateko arauak eta bai proiektu neoliberalak modu basatian ezarri nahi dituen horiek.

Euren artean laguntzean eta euren ahotsa eta bizitza sostengatzen, legitimatzen eta defendatzen duen kolektibo bat edukitzean, emakumeek euren bizitza eta mundua eraldatzeko indarra eta autoritatea dute; eta ez dute estatuak hori egiteko zain egon behar (hura baita erasotzailea). Ez dira jada biktima sentitzen; aitzitik, antolatzen dira eta modu kolektibo eta politiko batean jarduten dute euren justizia-grinetara egokitzen diren egiako, erreparazioko, gizarte-zigorreko eta ez errepikatzeko prozesuak elkarrekin eraikitzeko. Euren autoritate berriagatik indartsu diren aldetik, emakumeak ez dira jada "kulturaren zaindari", baizik eta euren komunitateko kultura sortzen dute, "erabaki politikoaren ekoizpen"ean parte hartzen dute (Tzul Tzul, 2016: 167) eta, batez ere, justiziaren edukiak sortzen laguntzen dute.

"Emakumeen legeak", bada, justizia birpentsatzera gonbidatzen gaitu, gure autoritatearen eraikuntza politikotik eta ez sistema judizial batean oinarrituta; izan ere, sistema horren interes patriarkalak ez datoz bat gure bizitzarekin, duintasunarekin eta askatasunarekin. Justiziak, gure ustez, kontratu sexual koloniala eraldatzea eskatzen du, horretan oinarritzen baitira boterea, gizarte-harremanak eta legea. Gure autoritatea sortzea premiazko lan politikoa da; legeak ordezkatu ezin duen zeregin bat eta mugimendu feminista eta emakume gisa egin behar duguna, "gure artean

desberdinak garelarik, bakoitzak bere mundu, denbora eta moduekin" (Emakume zapatistak, 2018). Emakume mam eta txujen justizia-bideek erakusten digute autoritate hori eraikitzea emakumeen arteko prozesu kolektiboa dela. Horretarako, gure artean harremanak izateko modu berriak asmatu behar ditugu, trukean oinarritutako ekonomia maskulintotik kanpo eta desberdintasun ez menperatzaileetan oinarrituta (Lorde, 2003: 177), baita gure arteko botere harremanak ezabatzeko eta sendatzeko moduak ere. Emakumeen botere politikoa, kolektiboa eta zirkularra sortzeaz ari gara, gure arteko aintzatespen- eta maitasun-politika batek legitimatuta. Izan ere, politika horrek indar sinboliko eta material nahikoa sortzen du lege berri bat egituratzeko, gure gorputz eta bizitzekiko gizarte-harreman mota berri bat, gizonek gure gorputzen gainean dute eskubidearen legea itzultzen duen etika berri bat, gure askatasuna, osotasuna eta bizitza errespetatzen eta babesten duen lege bat sortuz.

Justizia-ikuspegi hau justizia liberalaren eredutik urruntzen da. Izan ere, eredu hori legearen ustezko neutraltasunean oinarritzen da baina, egia esan, gizonen prozedura eta ohorea babesten du. Horren aurrean, dagokigun justizia-ikuspegiak "zaintzaren etika" txertatzen du (Gilligan, 2013). Horren barruan ditugu, alde batetik, bizi izandako injustiziek eragindako kalte emozionalak, korporalak, psikikoak, espiritualak eta sozialak erreparatzea eta, bestetik, guretzat mundu berri eta bidezkoak eraikitzea. Hala, horrek gure buruarekiko eta besteekiko ardurak sakona izatea eskatzen du.

Justizia-proposamen horren bitartez, Actoras de Cambio kolektibo bezala, "gure gizarte irudimena deskolonizatzen" (Sandoval, 2015) eta guretzat begiratzeko, izendatzeko eta justizia egiteko aukera berriak instalatzen lagundu nahi dugu. Hizkuntza eta ordena sinboliko berri batez ari gara, emakumeen arteko jardun politikoaren babesa duena eta bizi garen lurraldeak eraldatzeko aukera ematen diguna, sexu bortxaketa, arrazakeria eta gerra berriro onartuak izan ez daitezen eta guztiok bizitza duina, askea eta "alaia" izateko baldintzak sortzeko.

Gaur egungo munduan, gerrek, militarizazioak, desjabetzeak eta harrapakaritza neoliberalak euren heriotza-proiektua idazten dute,

gorputz eta lurralde jakinen gaineko ankerkeriaren eta gaiztakeriaren pedagogia -batez ere emakumeen eta herri indigena eta beltzen gainekoa-. Horren aurrean, emakume mam eta txujen sareek Actoras del Cambio kolektiboarekin batera eraikitako justizia-bide propio eta komunitarioak itxaropen mezu bat dira. Justizia-proposamen horretan, gizartea eraldatzeko boterea lekuz aldatzen da eta emakumeen eskuetan kokatzen da. Testu hau irakurtzera gonbidatzen zaituztet, dauden eta gauza daitezkeen justiziako zentzu-aukera, proposamen politiko eta ibilbide metodologiko zehatzak aurkitzeko aukera bezala. Emakumeen legea gure izatearen legitimitatean eta botere politiko eta desobediente propio bat eraikitzeko dugun gaitasunean konfiantza izateko deia da, hori beharrezkoa baita "esklabotza guztietatik irteteko" eta merezi dugun "bizitza alaia" eraikitzeko.

## Erreferentziak

- ABColumbia, Sisma Mujer eta USOC (2013): *Colombia: mujeres, violencia sexual en el conflicto y el proceso de paz*, ABColumbia, Londres.
- Amorós, Celia, (1990): "Violencia contra las mujeres y pactos patriarcales", in Maguieira, Virginia eta Cristina Sánchez (biltzaileak): *Violencia y sociedad patriarcal*, Editorial Pablo Iglesias, Madril, 1-15.
- Arendt, Hannah (1993): *La condición humana*, Paidós, Buenos Aires.
- Burin, Mabel (2002): *Estudios sobre la subjetividad femenina. Mujeres y salud mental*, Librería de Mujeres, Buenos Aires.
- Butler, Judith (2010): *Marcos de guerra. Las vidas lloradas*, Paidós, Mexiko Hiria.
- Cabnal, Lorena (2010): "Acercamiento a la construcción del pensamiento epistémico de las mujeres indígenas feministas comunitarias de Abya Yala", in ACSUR-Las Segovias: *Feminismos diversos: el feminismo comunitario*, Madril.
- Campbell, Kirsten (2004): "The Trauma of Justice: Sexual Violence, Crimes Against Humanity And The International Criminal Tribunal For the Former Yugoslavia", *Social & Legal Studies*, 13. libk., 3. zk., 329-350.

- Corporación Humanas (2016): *Datos y cifras claves para la superación de la violencia contra las mujeres*, 1. Modulua, Giza Eskubideen eta Genero Justiziaren Eskualde Zentroa, Bogotá, Kolonbia.
- Craig, Gary (2008): *The EFT Manual*, Energy Psychology Press, Santa Rosa, Kalifornia.
- Cumes, Aura Estela (2009): "Mujeres indígenas, poder y justicia: de guardianas a autoridades en la construcción de culturas y cosmovisiones", Memoria del *Encuentro internacional mujeres indígenas y justicia ancestral*, UNIFEM eta Simón Bolívar Unibertsitatea, Quito.
- Curiel, Ochy (2013): *La nación heterosexual. Análisis del discurso jurídico y el régimen heterosexual desde la antropología de la dominación*, Brecha Lésbica y en la Frontera, Bogotá.
- Chirix García, Emma (2010): *Ru Rayb'äl ri qach'akul. Los deseos de nuestro cuerpo*, El Pensativo, Guatemala.
- Das, Veena (2008): *Sujetos del dolor, agentes de dignidad*, Colección Lecturas CES, Kolonbiako Unibertsitate Nazionala eta Instituto Pensar, Pontificia Universidad Javeriana, Bogotá.
- DEMUS (2009): *Para una justicia diferente. Violencia sexual y reforma judicial con perspectiva de género*, Lima.
- Derrida, Jacques (2001): *Fuerza de ley: el "fundamento místico de la autoridad"*, Miguel de Cervantes Liburutegi Birtuala, Alacant.
- Diez, Andrea (2006): *Eso no se escucha: inclusión de los hechos de violencia sexual en las causas por violaciones a derechos humanos en Guatemala*, ICCPG, Guatemala.
- Emakume zapatistak (2018): *Palabras a nombre de las mujeres zapatistas al inicio del primer encuentro internacional, político, artístico, deportivo y cultural de mujeres que luchan*. Martxoaren 8a, Tzots Choj zonaldeko Karakola, Chiapas, Mexiko.
- Fraser, Nancy eta Axel Honneth (2006): *¿Redistribución o reconocimiento? Un debate político-filosófico*, Fundación Paideia Galiza eta Ediciones Morata, A Coruña eta Madril.

- Fulchiron, Amandine (2018): *La ley de mujeres: amor, poder propio y autoridad. Mujeres sobrevivientes de violación sexual en guerra reinventan la justicia desde el cuerpo, la vida y la comunidad*. Doktoretza-tesia. Mexikoko Unibertsitate Nazionala, Mexiko.
- Gargallo Celentani, Francesca (2012): *Feminismos desde Abya Yala. Ideas y proposiciones de las mujeres de 607 pueblos de nuestra América*, Ediciones desde Abajo, Bogotá.
- Gilligan, Carol (2013): *La ética del cuidado*, Víctor Grifols i Lucas Fundazioaren koadernoak, Bartzelona.
- Gutiérrez Aguilar, Raquel (2015): *Desandar el laberinto. Introspección en la feminidad contemporánea*, Tinta Limón, Buenos Aires.
- Herman, Judith Lewis (2005): "Justice From the Victim's Perspective", in *Violence Against Women Journal*, 11. libk., 5. zk., 571-602.
- Honneth, Axel (2006): "La cuestión del reconocimiento: réplica a la réplica", in Fraser, Nancy eta Axel Honneth: *¿Redistribución o reconocimiento? Un debate político-filosófico*, Fundación Paideia Galiza eta Ediciones Morata, A Coruña eta Madril, 176-196.
- Indarkeriaren aurkako Emakumeen Sarea (2008): *Para mí... no se hizo justicia. Historias de vida de mujeres en búsqueda de justicia ante situaciones de violencia vivida*, Managua.
- Lorde, Audre (2003): *La hermana, la extranjera*, Horas y Horas, Madril.
- Lowen, Alexander (2011): *La bioenergética. Una terapia revolucionaria que utiliza el lenguaje del cuerpo para curar los problemas de la mente*, Sirio, Bartzelona.
- MacKinnon, Catherine (1989): *Hacia una teoría feminista del Estado*, Colección Feminismos, Cátedra, Madril.
- Maguieira, Virginia y Cristina Sánchez (biltzaileak): *Violencia y sociedad patriarcal*, Editorial Pablo Iglesias, Madril.

- Medina, Cecilia eta Patricia Carrillo (2007): *Los lenguajes de la impunidad: informe de investigación delitos sexuales y administración de justicia*. Quito, CEPAM.
- Méndez, Liduvina (2014): *Sistematización de la metodología de formación sanción con mujeres sobrevivientes de violencia sexual en el marco del conflicto armado*, Actoras de Cambio, Guatemala.
- Milango Emakumeen Liburu-denda (2004): *No creas tener derechos. La generación de la libertad femenina en las ideas y vivencias de un grupo de mujeres*, Cuadernos Inacabados, 10. zk., Horas y Horas, Madrid.
- Pateman, Carole (1995): *El contrato sexual*, Anthropos, Bartzelona.
- Perls, Laura (1986): *Viviendo en los límites*, Promolibro, Valentzia.
- Perls, Frederick (2002): *Terapia Gestalt: excitación y crecimiento de la personalidad humana*, La sociedad de cultura Valle-Inclán, A Coruña.
- Piñeyroa Sierra, Carlos (2015): "Epílogo", in Bernuz Beneitez, María José eta Andrés García (koordinatzaileak): *Después de la violencia. Memoria y justicia*, Siglo del Hombre Editores eta EAFIT Unibertistatea, Bogotá.
- Pisano, Margarita (1998): *El triunfo de la masculinidad*, Surada, Santiago (Txile).
- Quintero Benavides, Alexandra (koord.) (2009): *Mujeres en Conflicto: Violencia Sexual y Paramilitarismo. La violencia sexual contra las mujeres ejercida por grupos paramilitares: estrategias, variantes e identificación de situaciones tipo*, Corporación Sisma Mujer, Bogotá.
- Revista de Estudios Latinoamericanos (1992): *Temas De Nuestra América*, 8. libk., 18. zk., Unibertsitate Nazionala, Costa Rica.
- Sandoval, Chela (2015): *Metodología de la emancipación*, Genero Ikasketen Unibertsitate Programa, Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoa, Mexiko Hiria.
- Segato, Rita Laura (2003): *Las estructuras elementales de la violencia. Ensayos sobre género entre la antropología, el psicoanálisis y los*

*derechos humanos*, Quilmeseko Unibertsitate Nazionala/Prometeo, Buenos Aires.

Segato, Rita Laura (2016): *Juicio Sepur Zarco: peritaje antropológico de género. Causa del Caso Sepur Zarco.*

Toro Araneda, Rolando (2000): *Definición y modelo teórico de biodanza, Escuela Modelo de Biodanza. Sistema Rolando Toro-Chile. Curso de Formación para profesores de Biodanza.*

Tzul Tzul, Gladys (2016): *Sistemas de gobierno comunal indígena: mujeres y tramas de parentesco en Chuimeq'ena'*, Ikasketa Estrategikoen Elkarte Komunitarioa; Tz'i'kin, Pluralismo Juridikoko Ikerketa Zentroa; Maya' Wuj Editorial, Guatemala Hiria.

Vaughan, Frances *et al.* (2003): *La evolución de la conciencia*, Editorial Kaidós, Bartzelona.

Wittig, Monique [1992] (2006): *El pensamiento heterosexual y otros ensayos*, EGALES, Bartzelona.



# Bakea eraikitzeko estrategia feministak: Kolonbiako emakumeen eta feministen mugimenduen ikaspenak, lorpenak eta erronkak<sup>1</sup>

---

Diana Marcela Gómez eta Diana María Montealegre

Kolonbiako gatazka armatu luzean zehar, emakumeak "hainbat ertzetik"<sup>2</sup> parte hartu dute, bai bake-ekimenetan, bai gerraren agertokian, honako hauetan parte hartuz: alderdi politikoak, akademia, emakumeen eta feministen mugimendua, sindikatuak, nekazarien, indigenen eta afrikar

- 
- 1 Testu hau Hegoa Institutuak koordinatutako "Justicia transicional y crítica feminista: recursos frente a la impunidad patriarcal tras graves violaciones de derechos humanos" (Trantsizioko justizia eta kritika feminista: zenbait baliabide giza eskubideen urraketa larrien zigorgabetasun patriarkalaren aurrean) proiektuaren parte da. Aldi berean, testu honek egileek egindako beste ikerketa kualitatibo eta historiko batzuetatik hartutako ekarpenak ere biltzen ditu, baita 2000tik aurrera Kolonbiako emakumeen eta feministen mugimenduan izan duten parte hartzetik eratorritakoak ere. Honako hauek dira aipatutako ikerketak: "La paz y el desarrollo en la transición política: imaginarios y prácticas de sujetos históricamente discriminados" (Bakea eta garapena trantsizio politikoan: historikoki baztertutako subjektuen imajinarioak eta praktikak) eta "Feminismos, resistencias y transiciones en Colombia: posturas políticas de las luchas feministas por la paz" (Feminismoak, erresistentziak eta trantsizioak Kolonbian: bakearen aldeko borroka feministen ikuspegi politikoak). Diana Gómezek Kolonbiako IMP (Iniciativa de Mujeres por la Paz) bakearen aldeko emakumeen ekimenean eta Huitaca, Desacato Feminista eta Colectiva Feministas Emancipatoria kolektiboetan parte hartu du. Diana Montealegre Bakearen aldeko Emakumeen Ibilbide Baketsuko (Ruta Pacifica de las Mujeres por la Paz) kidea izan da.
  - 2 Luz María Londoñoren *Desde diversas orillas* (Hainbat ertzetik) dokumentaletik hartuta. Horretan, bizirik iraun duten hainbat emakume biktimak, desmobilizatutak eta politikok gerrari, bakeari, egitari, justiziarri, erreparazioari eta adiskidetzeari buruz dituzten ikuspegiak eta bizipenak aurkezten dituzte.

jatorrikoen mugimenduak, giza eskubideen eta biktimen mugimenduak, herri erakundeak edota talde armatuak. Kolonbiako gatazkak 60 urte baino gehiago dituen arren, 1990ko hamarkadatik aurrera<sup>3</sup>, gizarte mugimenduetako emakume asko konponbide negoziatuaren eta bakea eskatzen duten proposamenen inguruan antolatu dira eta helburu horiek emakumeen eta feministen mugimenduen agendaren, ekintzen eta nortasun kolektiboaren alderdi nagusi bilakatu dira (Wills eta Gómez, 2006; Ibarra, 2007).

Orduz geroztik, mugimendu horiek garrantzitsuak izan diren hainbat estrategia abiarazi dituzte gatazka armatuari konponbidea ematea eskatzeko, bakearen eraikuntzan parte hartzeko, indarkeria soziopolitikoarekin amaitzea exijitzeko eta emakume biktimizatuen errealitatea bakegintza-prozesuetan eta trantsizioko justiziako mekanismoetan sartzeko. Estrategia horiek hainbat esparru landu dituzte, hala nola gizarte mobilizazioa, Estatuarekin hitz egitea, antolakuntza indartzea, laguntza juridikoa ematea eta emakumeen eraldaketa subjektiboko prozesuak sustatzea.

Lan honek estrategia horiek berritzen ditu, batez ere trantsizioko justiziako mekanismoei dagokienez. Hala, argudiatzen du, alde batetik, mugimendu horiek bakea eraikitzeke izugarri baliagarria den jakintza praktiko, politiko eta teorikoa sortu dutela (Gómez, 2017; Montealegre, 2020) eta, bestetik, jakintza hori funtsezkoa izan zela Kolonbiako estatuaren eta FARC-EPren arteko bake-prozesuan izandako arrakastak lortzeko<sup>4</sup>.

---

3 1980ko hamarkadan, emakumeen eta feministen erakundeak kalera irten ziren gobernuaren politikak (adibidez, Segurutasun Estatutua) eta eragile armatuek eragindako indarkeriaren aurrean (adibidez, 1985ean Justizia Jauregiaren hartzea eta berrartzea eta Union Patrioticaren genozidioa) erantzukizunak eta justizia eskatzeko (Chaparro eta Martínez, 2016). Halaber, ordezkariak izan zuten gerrillen eta Belisario Betancuren gobernuaren (1982-1986) arteko negoziatioetan (Sánchez, 2018; Gómez, 2011).

4 Kolonbiako estatuaren eta FARC-EP Kolonbiako Indar Armatu Iraultzaileak-Herriaren Armada gerrillen arteko negoziatio-prozesua 2012an hasi zen publikoki eta Gatazkarekin amaitzeko eta Bake Egonkor eta Iraunkorra Eraikitzeke Akordioarekin amaitu zen. Hura Cartagenan sinatu zen, 2016ko irailaren 26an.

Lehenik, emakumeen eta feministen mugimenduek 1990ko hamarkadatik abian jarritako estrategiak azaltzen ditu, baita mugimendu horiek bake agendei egindako proposamenak eta eskaerak ere. Estrategia horien helburua gatazkari amaiera negoziatua ematea eta emakumeei eragindako kalte espezifikoak kontuan hartzea izan da. Bigarrenik, mugimendu horien parte-hartzeko moduak, eragiteko estrategiak eta desmobilizazio paramilitarreko prozesuan biktimei laguntzeko estrategiak espezifikoki aipatzen ditugu, prozesu horrekin sortzen baita Kolonbiako lehen esperientzia formala trantsizioko justiziaren arloan. Hirugarrenik, emakumeen eta feministen mugimenduek gobernuaren eta FARC-EP gerrillaren arteko azken bake-prozesura heltzerakoan duten eskarmentua, egindako lorpenak, eta Bake Akordioa ezartzeko oraindik dauden erronkak aztertzen ditugu. Azkenik, ondorio modura, jarduera-estragiak eta -agertokia ikuspegi feminista kritikoetatik birpentsatu beharrari buruz hausnartzen dugu.

## **1. Bakea eraikitzeko eta genero-ikuspegidun trantsizio politiko baterako estrategia feministak**

Azken hiru hamarkadetan, 1980ko bake akordioez geroztik, gobernuak gatazka armatuaren aurrean izan duen jardunbidea irtenbide negoziatuaren eta bide militarren artean mugitu da. Bi bide horietako lehenengoarekin, esplorazio-elkarrizketak, akordio humanitarioak, borroka etetea eta gizarte zibilak eskatutako bake-prozesu formalak garatu dira. Cesar Gaviriaren (1990-1994), Ernesto Samperen (1994-1998), Andres Pastranaren (1998-2002) eta Juan Manuek Santosen (2010-2018) gobernuak talde gerrillarietako hurbilketak egin zituzten. Aipatutako azken bi gobernuetan, hurbilketa horien ondorioz, FARC-EPekin negoziatzeko mahaiak ezarri zituzten (1998-2002 eta 2012-2016). Halaber, Santosen gobernuak hasi zenean bake-prozesu bat abiatu zen ELNrekin (Chaparro eta Martinez, 2016).

Kolonbiako gobernuen jarrerak ez dira beti homogeenak eta koherenteak izan, ezta talde gerrillarienak ere. Gehienetan, negoziazio baterako baldintzak bilatzen edo beste negoziazio batzuetan aurrera egiten zen

bitartean, eragile biek -gerrillak eta estatua- gatazka armatua mantendu zuten eta, are gehiago, elkarriketen bitartez militarri sendotzen saiatu ziren. Hori izan zen, hain zuzen ere, Pastranaren gobernuaren eta FARC-EPren arteko negoziazio-mahaiaren kasua. Horrexegatik, azken negoziazio-prozesua oso garrantzitsua da, Bake Akordio batera heltzeko aukera eman duelako, horretarako traba eta gorabehera asko egon badira ere.

Bestalde, Alvaro Uriberen gobernu (2002-2010) amaitu zenean FARC-EPren esplorazio-hurbilketak egon zirela jakin zen; baina, publikoki eta bere diskurtsoan, gobernu horrek estrategia militarra lehenetsi zuen gerrillaren aurka borrokatzeko eta gatazka armatua zegoenik ere ukatu zuen. Aldi berean, paramilitarren desmobilizazio-prozesu bat abiarazi zuen. Askok prozesu hura kritikatu zuten, hala nola biktimen, giza eskubideen eta emakumeen eta feministen mugimenduek eta akademiak. Desmobilizazio hori, formalki, Kolonbian aplikatutako trantsizioko justiziako lehenbiziko esperientzia izan zen. Horrek polemika handia piztu zuen, indarkeria-egitateetan estatuaren agenteekin harreman zuzena izan zuen eragile batekin negoziatzea eskatzen zuelako -Uriberen gobernuaren hitzetan hura "bake-prozesua" izan zen-. Izan ere, hainbat gizarte-eragilerentzat paradoxikoa zen gobernuak bere buruarekin negoziatzea. Prozesua, beraz, oso eztabaidagarria izan zen, gerran murgildutako herrialde batean (talde paramilitarrak eta gutxienez bi gerrilla zituena) trantsizioaren ideia onartzen zuelako (Uprimny et ál., 2006) eta hainbat ikerketak (akademikoak, kazetaritzakoak eta giza eskubideei buruzkoak) Uriberen eta paramilitarren arteko harremanak identifikatzen zituztelako, adibidez, Convivir<sup>5</sup> taldeen sorrera Uribe Antioquiako gobernatzailea zenean.

Bakearen aldeko mugimenduan elkartzen diren erakundeak (horien artean ditugu emakumeen eta feministen erakundeak ere) gatazkari irtenbide negoziatu bat ematearen aldekoak dira eta negoziazio-agertokiak sortzeko proposamenak egin dituzte etengabe. Chaparro eta Martinezen

---

5 Convivir taldeak 1990ko hamarkadan armadak sustatutako talde zibil armatuak izan ziren. Hauek, hasieran zaintza- eta segurtasun-kooperatiben forma izan zuten eta, gerora, talde paramilitar bilakatu ziren.

arabera (2016), emakumeen eta feministen erakundeen kasuan, hori bake-prozesuen "ertzetatik" eman da, mobilizazioaren eta kalean eta erakundeetan bertan beren eskaerak adieraziz, eta oso gutxitan negoziazio-prozesu formaletan parte hartuz eta ordezkariak izanez. Azken hauetan, emakumeen parte-hartzea gorabeheratsua eta aldizkakoa izan da.

Emakumeen eta feministen mugimenduek hainbat estrategia erabili dituzte beren proposamenak sartzeko, bai gobernuaren eta FARC-EPren arteko negoziazio-prozesu bietan (1998-2002 eta 2012-2016) eta bai paramilitarren desmobilizazio-prozesuaren esparruan (2002-2010) sortutako trantsizioko justiziako tresna normatiboen aplikazioan. Jarraian, erabilitako estrategia nagusiak aztertuko ditugu.

### **1.1. Emakumeak kalera irtetearen, eragin politikoaren eta antolakuntza indartzearen artean**

1990ko hamarkadan, emakumeek gatazka armatuan pairatutako indarkeriari eta indarkeria soziopolitikoari begiratu zioten Kolonbiako emakumeen eta feministen mugimenduek. Hamarkada horretan gatazka nabarmen larriagotu zen, neurri batean paramilitarismoa Kolonbiako Autodefentsa Batua (AUC) erakundearen antolatzearen ondorioz; izan ere, talde hori estatuko agenteekin aliatu zen giza eskubideen urraketak egiteko, hala nola desagertze behartuak, hilketa selektiboak, sarraskiak eta lekualdatzeak. Aldi berean, talde gerrillariak gerrako jarduera mantendu zuten, besteak beste, militarrek eta zibilak bahituz, politikariak hilez, herriak hartuz, oliobideak lehertuz. Eragile armatu guztiek, estatuko indarrek ere, narkotrafikoarekin eta legez kanpoko landaketekin zuten harremanaren ondorioz ere larriagotu zen gatazka eta biztanle zibilak modu sistematikoagoan bilakatu ziren xede militar.

Indarkeria horren erabileran, emakumeen esperientzia partikularra gero eta agerikoagoa zen. Emakumeen eta feministen erakundeek emakumeek gatazka bizitzeko zuten modu partikularrei buruz hausnartu zuten eta horren arrazoiak aztertu zituzten. Hausnarketa horietan gero eta garrantzitsuagoa izan zen emakumeen aurkako sexu-indarkeria,

naturalizat hartzen ari zelako eta irauten zuelako, eta zenbait fenomenoren feminizazioa, hala nola lekualdatze behartuarena, baita familiako gizonak hiltzean edo desagertzean emakumeek etxeko buru bilakatzea ere.

1990ko hamarkada horretan ere, emakumeen eta feministen mugimenduen eskaerak eta proposamenak sartzeko estrategia politikoen artean, funtsezkoak izan ziren antolaketa-prozesuak sortzea eta gizarte-mobilizazioa. Horiek gatazkari irtenbide negoziatua emateko eta emakumeek pairatutako indarkeria partikularrak aintzat hartzeko eskaeren inguruan eman ziren. Hala, gizarte mobilizazioa emakumeen egoera eta haien mugimenduen eskaerak bistartzeko erabili zen, baita estatuari eta talde armatuari presioa egiteko, gatazkaren amaiera negoziatzea zezaten eta emakumeen eta haien familien, erakundeen, komunitateen eta lurraldeen aurkako indarkeriak eten zituzaten.

Horixe da 1995an sortutako Emakumeen Ibilbide Baketsuaren kasua. Ibilbideak milaka emakume eta ehunka erakunde bildu zituen gatazkak emakumeen lurraldeetan, bizitzetan eta gorputzetan zituen ondorioak arbuizatzeko. Bere estrategietako bat mobilizazioa izan zen: horietako lehenengoa Apartadókoa, 1996ko azaroaren 25ean egin. Horren helburua zen, erresistentzia-modu eta -ekintzen bitartez, herrialdeko eskualde horren biktimen minarekiko elkartasuna adieraztea eta gerrak emakumeen bizitzan eta gorputzetan dituen ondorioak bistartzea, bereziki sexu-indarkeria gerrako arma gisa erabiltzeak. Sanchezen hitzetan (2006), Ibilbidearen indar diskurtsibo, politiko eta mobilizatzailearen eraginez, erakundea gizarte mobilizazioko ekimen nagusietako bat izan zen gerraren aurkako eta irtenbide negoziatuaren aldeko emakumeen eta feministen mugimenduan.

Gatazka armatuari amaiera negoziatua emateko eskaerekin eta eskaera humanitarioekin batera, gerrak emakumeen bizitzan zituen ondorioak eta zentzugabekeriak salatu zituzten emakumeen eta feministen mugimenduek. Hainbat erakundek emakumeen aurkako indarkerien ikerketa- eta monitorizazio-lana indartu zuten, adibidez, behatoki iraunkorren eta aldizkako txostenen bitartez, arreata gatazka armatuko genero-indarkerietan jarriz. Aldi berean, emakume biktimizatuen

testigantzak jasotzeko eta babesteko gaitasuna indartu zuten, testigantza horiek informazio- eta azterketa-iturri garrantzitsu bihurtuz.

Hurbilketa hori metodologikoa ez ezik, politikoa ere izan zen, eta, horri esker, neurri batean itzuli ahal izan zuten genero-indarkerien azpierreregistroa, gaian ardura duten erakundeek emakumeei eragiten dieten birbiktimizazioa eta biktimizatutako emakumeek Estatuko aparatuaurrean duten mesfidantza. 2001ean, herrialdeko hainbat eskualdetako emakumeen eta giza eskubideen 23 erakunderen eta ikertzaile independenteren baterako koordinaziotik, hausnarketatik eta azterketatik abiatuta, Emakumea eta Gatazka Armatua izeneko lan-mahaia sortu zen, emakumeek pairatutako indarkeria hainbat urtez dokumentatzeaz arduratuko zena (Mesa de trabajo Mujer y Conflicto Armado, 2002).

Ordurako, kasuak dokumentatzea emakumeen eta feministen mugimenduen estrategia politiko garrantzitsu bat izan zen eta honako helburu hauek zituen: emakumeen aurkako indarkeriak zeudela agerian uztea, horien berezitasunak eta arrazoiak aztertzea, gertatutakoari buruzko memoria garatzea eta prozesu judizialak aurreratzeko beharrezko informazioa izatea. Lan-mahaia, esate baterako, emakumeen, gazteen eta nesken aurkako indarkeria soziopolitikoari buruzko txostenak aurkeztu zituen urtero, 15 urtez baino gehiagoz. Hala, nahitaezko erreferente bihurtu zen nazioan eta nazioartean, gatazkan emakumeek bizi duten egoera aztertzeke eta prebentzioari, ikerketari, erantzuleak zigortzeari eta biktimei ordaina emateari buruzko politika publikoko gomendioak emateko orduan.

Mobilizazioez gain, bakearen aldeko emakumeen erakundeak sortzeak eta emakumeek pairatutako indarkeriak dokumentatzeak, eta FARC-EP eta Pastranaren gobernuaren (1998-2002) artean negoziazio-mahaia ezartzeak ahalbidetu zuen emakumeen eta feministen mugimenduek gatazka amaitzera eta bakea eraikitzera bideratutako prozesuetan eragiten hastea, beste estrategia politiko bezala.

Negoiazioaren parte gisa, entzunaldi publikoak prestatu ziren, horietan gizarte zibilak parte har zezan. Emakumeen eta feministen mugimendua

keztatuta zegoen bake prozesuan emakumerik eta genero-ikuspeirik ez zegoelako eta, hortaz, eskatu zuen "entzunaldi bat, gatazka armatuari irtenbide negoziatu bat ematearen alde egiteko eta justizia sozialik eta ekitaterik gabe bakea lortzen ez delako tesia kokatzeko modu gisa" (Wills eta Gómez, 2006: 307). Parte-hartze horren aurretik, emakumeen eta feministen mugimenduen adierazpen ugari antolatu ziren. Dena den, agerian geratu ziren horien barruan ikuspegi politiko desberdinak zeudela. Izan ere, batzuek, hala nola Emakumeen Sare Nazionalak –emakumeen erakundeen bilgune garrantzitsu bat, 1990ko hamarkada hasieran sortua–, parte hartzea erabaki zuten, emakumeen eta feministen erakundeen proposamenak sartzeko helburu komunarekin; beste batzuek, aldiz, ez zuten entzunaldian parte hartu, baldintzak eta negoziazio-mahaiaren zeuden eragileen bake-borondatea zalantzan jartzen zituztelako.

Bake prozesu hark IMP bakearen aldeko emakume kolonbiarren ekimenean parte hartzen duten emakumeen eta feministen mugimenduen adierazpenak antolatzea ere ekarri zuen. IMP 2001ean sortu zen, gatazka armatuaren negoziazioan emakumeen parte-hartze erabakigarria lortzeko eta emakumeek pairatutako ondorio espezifikoak prozesuan sartzeko helburuz. Aliantza horretan, herrialdeko hainbat eskualdetako emakume indigena, afrikar jatorriko, gazte, sindikalista, nekazari, feminista eta akademiko askok parte hartzen zuten. Alabaina, IMP sortu berritan, bake-prozesua bertan behera geratu zen. Porrotak ez zuen ekarri, ordea, IMP desagertzea, nahiz eta haren helburua, aipatu bezala, gatazkaren negoziazio-prozesuetan parte-hartze erabakigarria izatea eta emakumeek pairatutako ondorio espezifikoek aintzatespena sustatzea izan. Aitzitik, bakea eraikitzeke estrategia politikoak birpentsatzeko aukera ekarri zuen, bai IMPn eta bai gatazka amaitzearen alde eta emakumeek pairatutako indarkeriak bistartzeko helburuz lan egiten zuten emakumeen eta feministen erakundeen multzo zabalean ere.

Negoiazio-mahaiaren amaierako eta gizarte zibilaren aurkako indarkeriaren gorakadako testuinguru horretan, Alvaro Uribe presidente bilakatu zen 2002an. Hark, hauteskunde-kanpainan zehar, jarrera zorrotzak erakutsi zituen gatazkaren kudeaketari dagokionez eta bake-elkarrizketak betirako etetearen alde agertu zen. Egoera horretan,



bakearen aldeko emakumeen eta feministen plataforma handiak, hala nola IMP, Emakumeen Ibilbide Baketsua, Emakumeen Adostasun Mahai Nazionala, Emakumeen Sare Nazionala eta Emakumeen Herri Erakundea, 2002ko uztailearen 25ean elkartu ziren gizarte mobilizazio bat antolatzeko: "Las Mujeres Pazharemos... Movilizándonos contra la guerra" (Emakumeok bakea egingo dugu... Gerraren aurka mobilizatuz). Hura Kolonbian egin den handienetariko bat izan zen eta bertan hainbat eskualdetako 40.000 emakumek baino gehiagok parte hartu zuten eta emakumeen eta feministen mugimendua mende berriko funtsezko eragile gisa kokatu zuen. Hala, Gerraren aurkako Emakumeen Mugimendua sortu zen, plataforma handiak eta tokiko eta departamentuetako 300 erakunde baino gehiago elkartzen zituena (Wills eta Gómez, 2006; Ibarra, 2007; Lamus, 2008).

Gatazka armatuaren esparruan indarkeria salatzeko, dokumentatzeko eta horren aurka mobilizatzeko beste estrategia feministak nagusi izan ziren bitartean, baita gatazkaren negoziazio-prozesuetan emakumeek parte-hartze aktiboa eta erabakitzailea izateko ahalegina ere; ekintza politiko feministako beste bi estrategiak indarra hartu zuten. Horietako lehenengoa izan zen bake agenda formalak sortzea. 2002ko azaroan, IMPk Emakumeen Eratzaile Emantzipatzailea (Constituyente Emancipatoria de Mujeres) sortu zuen. Hark eskualde mailan parte hartu zuten erakundeen eta emakumeen eskaerak eta proposamenak jaso zituen eta gero horiek Bakearen aldeko Emakumeen Agendan bildu ziren. Horretan gainera hainbat erakunde nazionalak ere parte hartu zuten (IMP, 2002), Horrelako agendekin, ekintza politiko feministako bigarren estrategia sortu zen, hots, emakumeek garapen-planetan eta tokiko eta departamentu-mailako gobernuen jardunean eragitea, behetik gorako agenda horiek bide-orri gisa hartuta.

2003tik aurrera, biktimen eskubideei eta trantsizioko justiziarri buruzko ekitaldiak ugaritu ziren. Horietan, desagertutako edo bahitutako senideak zituzten emakume askok parte hartu zuten. Ekitaldiek erakusten zuten nola emakume horiek eremu pribatutik publikora igarotzen ziren, eta nola emozioak eta maitasunak funtsezkoak ziren emakume horien mobilizatorako eta antolakuntzarako (Wills, 2011; Gómez, 2015). Ekitaldietan, munduko

beste leku batzuetako bake prozesuetan eta trantsizioko justizia-mekanismoetan parte hartutako hainbat emakume ere izan ziren. Hori guztia, bada, senideen eta emakume biktimizatuen eta mugimenduko beste kide guztien prestakuntzarako estrategia bilakatu zen.

Garai horretarako, trantsizioko justiziaren kontzeptua Kolonbiako emakumeen eta feministen mugimenduetan erabiltzen zen jada. Gauza bera gertatzen zen NBERen Emakumeei, Bakeari eta Segurtasunari buruzko 1325 Ebazpenarekin (2000); izan ere, horrek emakumeek negoziazio-prozesuetan parte hartzea exijitzeko tresna politikoak eman zituen. Hala, prestakuntza-estrategiari berariaz gehitu zitzaion antolakuntza-prozesuen eta horietako kideen kualifikazioa. Horren zati izan ziren hainbat gairi buruzko tailerrak eta ikastaroak, hala nola Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioari, giza eskubideei, emakumeen eskubideei, biktimen eskubideen, 1325 Ebazpenari, negoziazio-prozesuei eta trantsizio politikoari, Egiaren Batzordeei, Zuzenbide Estatu Sozialari eta eragin politikoari buruzkoak. Gai horiek guztiak bakearen aldeko eta gerraren aurkako emakumeen eta feministen erakundeek jakintzak eta apustuak marraztu zituzten.

Prestakuntza-estrategiak, aldi berean, balio izan zuen lurraldeetako indarkeriaren dokumentazio-prozesuari laguntzeko eta biktimen senideentzat eta emakume biktimizatuentzat, eragile politiko gisa, egiarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubideek zuten esanahia identifikatzeko. Antolaketa-esperientzia, estrategia politiko, eskaera eta proposamen multzo horrekin, emakumeen eta feministen mugimenduak erronka handi bati aurre egin zion: trantsizioko justiziaren aplikazio formala AUC eragile armatuaren inguruan, inor gutxik espero zuena bakea eraikitzeko mekanismoei helduko ziela.

## **2. Emakumeen eta feministen mugimenduen parte-hartzea paramilitarren desmobilizazio-prozesuan eta Justizia eta Bakearen Legean**

Bakearen aldeko emakumeen eta feministen mugimenduaren eraketak eta zabaltzeak ez dute jarrera homogeen bat erakutsi negoziazioen helburuei eta enfasei eta bakegintzari dagokienez. Agian, mende honen hasieran sortutako desberdintasun handienetako batek zerikusia izan zuen negoziatzeko solaskide baliozkotzat jotzen zirenekin, bai eta emakumeek eta biktimek parte hartzeko egokiak ziren moduekin eta agertokiekin ere (Wills eta Gomez, 2006; Ibarra-Melo, 2007).

Gerrillekin zegoen gatazkari irtenbide negoziatua bilatzeko helburu komuna agerikoa zen, baina ez zegoen adostasun bera paramilitarrekin negoziatzeari dagokionez. Izan ere, desadostasunak agerikoak izan ziren Alvaro Uriberen Gobernuak talde paramilitarrekin "bake-prozesu" bat egitea proposatu zuenean. Wills eta Gomezen ustez (2006: 292) "Estatuak eragile armatua lehenetsi izanak ezustean hartu zituen" gatazka armatua konpontzeko interesa zuten emakumeen eta feministen erakundeak eta, hala, negoziazioan zer rol beteko zuten erabakitzen behartu zituen.

Aipatu bezala, gizartearen zati handi batek zalantzak zituen prozesu horrekin, indar militarrek eta estatuko beste sektore politiko batzuek paramilitarrekin zituzten harremanengatik. Emakumeen eta feministen mugimenduetan, bada, bi jarrera sortu ziren paramilitarren desmobilizazioaren aurrean. Lehenengoaren ustez, prozesuan parte hartzeak edo eragiteak gizarte-mugimenduen instrumentalizazioa ekarriko zuen, gobernu legitimatze eta paramilitarrak eragile politiko gisa onartzeko. Jarrera hori erakutsi zutenek, giza eskubideen aldeko erakundeekin eta biktimekin mugimenduekin batera, errekurtsio judizialak aurkeztu zituzten, batez ere konstituzionaltasun-ekintzak, biktimekin eskubideen eta Estatuak giza eskubideen arloan zituen betebeharren aurkakoak ziren arau-

esparruko xedapenak geldiarazteko edo moldatzeko<sup>6</sup>. Aldi berean, auzitegi sinbolikoak antolatu zituzten eta Justizia eta Bakearen Legeak (2005eko 975 Legea) ezarritako trantsizioaren aurrean alternatiboak ziren egia, justizia eta memoria proposamenak lagundu zituzten.

Bigarren jarrerak ere Estatuaren eta paramilitarren arteko harreman estua kritikatzeko eragile armatu hori legitimatzearen eta hura legalizatzeko prozesuan parte hartzearen arriskuaz ohartzen zen. Hala ere, beharrezkotzat jo zuen prozesu hura "barrutik interpelatzea"; izan ere, prozesuak aurrera jarraituko zuen emakumeek horretan parte hartu ala ez. Bermatu beharra zegoen "trantsizioa" izan behar zuen prozesu horretan biktimen eskubideak gauzatzean genero ikuspegia txertatzen zela, bakearen aldeko eta gerraren kontrako emakumeen mugimenduen helburuen arabera.

IMP bigarren jarrera horren buruetako bat izan zen emakumeen eta feministen mugimenduen artean. Horren ordezkari politikoak Rialiton izan ziren paramilitarren desmobilizazioa koordinatu zenean eta, besteak beste, emakumeen eskubideak sartzeko, haiei eta haien senideei gertatutakoa argitzeko, eta lurrak itzultzeko eskaerak aurkeztu zizkieten AUCeko ordezkari nagusiei. Halaber, desmobilizazioari "interpelatze" hasierako prozesu horri esker, sortu berria zen CNRR Erreparazio eta Adiskidetze Batzorde Nazionalean bi emakume izendatu zituzten gizarte zibilaren ordezkari, horietako bat IMPko kidea zelarik.

Apurka-apurka, emakumeen eta feministen mugimenduaren sektore horrek eragin politikoko estrategia bat abian jarri zuen. Hori lagungarria

---

6 Adibidez, CAJAR Jose Alvear Restrepo abokatuen kolektiboak (2005) konstituzio-kontrakotasuneko demanda bat aurkeztu zuen. Emakumeen Herri Mugimendua eta Emakumeen Herri Erakundea eskari horren sinatzaile izan ziren, biktimen eta giza eskubideen aldeko beste erakunde batzuekin batera, baita ehunka biktima ere, bakoitza bere izenean. Juristen Kolonbiako Batzordeak, hainbat erakunderekin batera, deuseztapen-demanda bat jarri zien Justizia eta Bakeari buruzko Legearen erregelamendu-dekretuei. Hainbat erakunde feministak eskaera horren alde egin zuten, hala nola Emakumearen Etxeak eta Sisma Mujer erakundeak, baita mugimenduko hainbat emakumek ere, bakoitzak bere izenean (CCJ Juristen Kolonbiako Batzordea, 2007).

izan zen, adibidez, CNRRko Memoria Historikoko Taldeak (GMH) Kolonbian gertatutakoa argitzeko egin zuen lanean genero ikuspegia txerta zedin. Eginkizun hura, gerora, CNMH Memoria Historikoaren Zentro Nazionalak hartu zuen bere gain. Justizia eta Bakearen Legeari dagokionez, emakumeen erakundeek proposamen zehatzak egin zituzten biktimen eskubideen inguruan genero-ikuspegia nola txertatu jakiteko, biktimen eskubideak mekanismo horietan finkatu behar baitziren. Horren ondorioz, funtzionario publikoekin –legegileak eta fiskalak barne– elkarrizketak izan ziren, generoaren eta feminismoaren azterketa bat egin beharra zegoela afierazteko eta ildo horretan egindako aurrerapenak eta mugak monitorizatzeko.

Justizia eta Bakearen Legearen esparruan sartutako aurrerapen urriak, bistaratzearekin, memoria historikoarekin eta emakumeen pairatutako indarkeriak eta kalteak erreparatzearekin zerikusia zutenak, ez ziren posible izango proposamen eta eragin horiek gabe. Adibidez, biktimen eskubideak babesteko prozesuan sartutako elementuetako bat izan zen biktimei emandako laguntza juridikoa, Herritarren Defendatzailearen bitartez. Zoritxarrez, horren inplementazioa oso ahula izan zen, bai estalduraren, bai kalitatearen aldetik (IMP 2009). Horri gehitu zitzaion operadore judzialen prestakuntza eskasa eta emakumeen aurkako indarkeriako eta, bereziki, sexu-indarkeriako kasuei heltzeko prozedura berezirik ez zegoela. Testuinguru horretan, oso ohikoa izan zen birbiktimizazioa (IMP 2009). Paramilitar "bertsionatu" batzuek giza eskubideen urraketak "gerra-ekintza" gisa justifikatzen zituzten eta, haien kontakizunen bitartez, emakumeak birbiktimizatzen eta zalantzan jartzen zituzten, haiei "ospe zalantzagarrria" edo "terrorismoarekiko loturak" egotziz. Hala, epaileak eta fiskalak ez ziren biktimak errespetatzearen alde agertu (Montealegre eta Bautista 2011)<sup>7</sup>.

---

7 Desmobilizazio prozesuaren esparruan, bertsio libreetan parte hartu zuten paramilitarrei "bertsionatu" deitu zitzairen. Bertsio libre horiek, ustez, biktimek egileen eskutik gertatutakoari buruzko informazio jasotzeko eremu prozesalak izan ziren. Aitzitik, beren bertsioa eman zuten paramilitarren kopurua oso txikia izan zen talde horien dimentsioarekin alderatuta; ikerketa-erakundeek ez zuten haiek emandako informazioa egiaztatu eta ez zen biktimen egia jakiteko nahia bete. Halaber, bertsionatuei ez zitzairen erantzukizunak zehaztea exijitu, ezta emakumeen aurkako indarkerien testuingurua argitzea ere (Montealegre and Bautista 2011).

Biktimen laguntza juridiko eta psikosozialari dagokionez, beraz, Estatuaren erantzuna oso ahula izan zen eta, horren aurrean, emakumeen eta feministen mugimenduek beste bi estrategia indartu zituzten. Lehena ohiko justizian eta trantsizioko justizian prozesuak aurrera eramateko laguntza juridikoari dagokio eta bigarrena laguntza psikosozialari. Laguntza juridikoa izan zen, azken batean, kasuak dokumentatzea eta erakunde eskudunen aurrean aurkeztea, prozesu penalak eta administratiboak aktibatzeke edo erreparazioak eskatzeko aholkularitza juridikoa ematea eta, hainbat kasutan, auzi estrategikorako ordezkariak judiziala ematea. Bestalde, laguntza psikosozialak, biktimizazio esperientziak izan dituzten emakumeen ongizatea bilatzean, zaintza eta gorputza erdigunean jartzen duen ondare feminista jasotzen du. Ondare hori, bada, osasun mentalari, sendabideari, dueluei, erresilientziari eta bizi-proiektuei arreta emanez elikatu zen.

Paramilitarren desmobilizazio-prozesuaren esparruan ezarritako figura juridikoetako bat erreparazio administratiboa izan zen (2008ko 1290 Dekretua). Horren bitartez, biktimek kalte-ordain ekonomikoa –irrigarria– jaso zuten justiziako eta erreparazioko beste eskaera batzuei uko egitearen truke, hala nola kendutako lurra itzultzea edo senideen hilketa edo desagertzeari buruzko ikerketa arduratsua egitea. Giza eskubideen aldeko erakundeen eta emakumeen eta feministen erakundeen laguntza izandako biktimen erakunde guztiek argi ikusten zuten erreparazio-modu horiek oso eskasak zirela haien justizia eta egia eskaeren aurrean baina biktima antolatu askoren egoera sozioekonomiko estuak horiek onartzera eramane zituen.

Emakumeen eta feministen erakundeek, besteak beste, erreparazio-modu hori lortzeko tramite administratiboak egiteari uko egiten zioten, hura biktimen eskubideen aurkakoa iruditzen baitzitzaizen. Hala ere, jarreraz aldatu behar izan zuten hainbat kasutan biktimen eskaerak eta premiak ikusita. Egoera horrek, berriz ere, tirabira handiak sortu zituen emakumeen eta feministen mugimenduetan. Desmobilizazio-prozesuaren emaitza txarrak eta emakumeek justizia-sisteman eta, oro har, Estatuan zuten konfiantza urria gorabehera, emakume eta erakunde askorentzat “ezer baino hobea zen hori”.

Biktimen antolakuntza-ahalmenak eta aipatutako laguntza-moduek paramilitarren desmobilizazioaren inguruan abiatutako trantsizioaren lege-esparruaren hutsak eta aukerak agerian uztea lortu zuten, baita banakako eta taldeko kasuetan ibilbide juridiko eta galdagarritasun-estrategia bereziak sortzea ere. Zenbait emakume biktimek hainbeste jabetu ziren lege-esparruez eta prozedurez, non gero beste biktima batzuei edo abokatu eta erakunde auzilarien lanari lagundu baitzieten, kasuen segimendu arduratsua eginez. Jarduteko modu horretan, pixkanaka, emakumeen eta feministen erakundeek, batzuetan inolako irakurketa kritikorik gabe, trantsizioko justiziaren tresnak hartuz joan ziren, eta haren hizkuntza, egitura, kategoriak eta sailkapen-logikak ez ezik, trantsizioko justiziak bere bertsio hegemonikoan dakartzan aldaketa-helburu murriztaileak ere onartu zituzten.

Eragin politiko zein juridiko hori guztia, emakumeen eta feministen erakundeen ekintza-estrategia batzuekin batera, ikasketa-eremu bilakatu zen (Gomez, 2017). Prozesu horretan, erakunde horiek eragina izan zuten trantsizioko justiziaren erakunde-esparruan, prozesuaren ikuskaritzaren, gorte handien aurreko auzi estrategikoaren eta biktimen egiarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubidea finkatu zuten xedapenetan genero-ikuspegia txertatzearen bitartez. Halaber, horrek gatazka armatuaren indarkeria soziopolitiko hobeto ulertzen lagundu zuen, genero-aldagaiak sartuz<sup>8</sup>.

### **3. Bake-prozesu berri baterako ikaspen feministak**

Alvaro Uriberen gobernuak (2002–2010), Justizia eta Bakearen Legearen emaitza eskasen, gatazka armatua etengabe ukatzearen eta gerrillekin borrokatzera zuzendutako politika militarren ondorioz, eragile armatu horrekin negoziatzeko aukerak itxi zituen. Egoera horren aurrean, emakumeen eta feministen mugimenduek emakumeek pairatutako

---

8 Gure ustez, gatazka armatu kategorია ez da nahikoa Kolonbiako arrazoi politikoengatiko indarkeria ulertzeko (Gómez, 2016); hortaz, funtsezkotzat jotzen dugu indarkeria soziopolitiko kategorია erabiltzea.

indarkeriak dokumentatzeko eta sistematizatzeko estrategiak indartu zituzten. Horren adibide izan zen Emakumeen Ibilbide Baketsuak abian jarritako Emakumeen Egiaren Batzordea. Horrek herrialdeko hainbat eskualdetako mila emakume biktimaren hitza jasotzea lortu zuen (Ruta Pacífica de las Mujeres, 2013)<sup>9</sup>. Tokiko, eskualdeko eta nazio-mailako hainbat erakundek gertatutakoa berritzeko prozesu baliotsuak abiatu, txostenak egin, biktimak lagundu eta sendatze- eta memoria-ariketak egin zituzten. Nazio-mailan Sisma Mujer erakundeak lan aipagarria egin zuen dokumentazioan eta sexu-indarkeriaren biktimak laguntzean (Sisma Mujer, 2017).

Legezko eta legez kontrako talde armatuek eta batez ere eskuineko politikariek harreman estua zuten talde paramilitarrek gero eta indarkeria gehiago erabiltzen zuten lider sozialen, aurkarien, komunitateen eta zibilen aurka. Hori ikusita, hainbat gizarte mugimenduk mobilizaziora jo zuten gobernuaren politikak errefusatzeko eta gatazkari irtenbide negoziatua eman ziezaion eta Estatuak bere indarkeria bertan behera utz zezan eskatzeko. 2002ko mobilizazioa baino txikiagoa izan bazen ere, 2009ko azaroaren 25ean, hainbat erakundetako eta eskualdetako hamar mila emakume Bogotarantz abiatu ziren, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunean, gobernu nazionalari gerrillekin azkar negoziatzeko eskatzeko. Mobilizazioa *“Denok mahaira: negoziazio politikoa orain”* lelopean egin zen (Ruta Pacífica de las Mujeres, d.g.).

Ondorengo gobernuak kontuan hartu zuen aldarri hori, baita milaka biktimena eta beste gizarte-mugimendu, giza eskubideen erakunde,

---

9 Bere txostena, metodologia eta lantaldea emakumeen eta feministen mugimenduak emandako erreferente nagusietako bat izan ziren beranduago Gobernuaren eta FARC-EPren arteko negoziazio-prozesuaren esparruan eraturako Egiaren Batzordearentzat. Egiaren Batzordea eratzeko exijentzia Kolonbiako gizarte-mugimenduen zenbait adierazpenetatik etorri zen, batez ere biktimen eta giza eskubideen aldeko mugimenduetatik. Izan ere, haiek, 1990ko hamarkadan, Colombia Nunca Más (Kolonbia inoiz ez berriro) proiektua abiatu zuten. Proiektua, bada, gizarte zibilak estatuaren eta paramilitarren indarkeriaren erdian gertatutakoa dokumentatzeko eta berritzeko ariketa bat izan zen (ikus Gomez 2020).



akademiko eta kazetarirena ere. Izan ere, Juan Manuel Santosen lehendakaritzan (2010-2018) bi gertakari oso garrantzitsu izan ziren trantsizioko justiziari eta bakeari dagokienez: alde batetik, 2011n Biktimei eta Lurrak Itzultzeari buruzko Legea (1448 Legea) eman zen, biktimen mugimenduen eskaerei erantzunez; bestetik, gobernuaren eta FARC-EPren arteko lehen elkarrizketak egin ziren eta, gerora, 2012an, Habanako negoziazio-mahaia ofizialki ireki zen.

Biktimei eta Lurrak Itzultzeari buruzko Legean, gatazka armatua zegoela onartu zen –aurreko gobernuak hori ukatzen zuen– eta gatazkaren biktimek justizia eta erreparazioa lortzeko agertoki berri bat ezarri zen. Legeak, bada, lurrak itzultzeko programa, prozedura eta erakunde-esparrua ezarri zituen. Emakumeen eta feministen mugimenduen eraginak aukera eman zuen mekanismo horretan baieztatu hainbat neurri txertatzeko, emakumeek lurrak eskuratzeko dituzten oztopoei aurre egiteko helburuz. Eragiteko ekintza horiek mugimendu feministaren zati batek bideratu zituen, batez ere nekazarien oinarri sendo bat edo landa-eremuetan indarra zuten erakunde nazionalak, hala nola Kolonbiako Emakume Nekazari, Beltz eta Indigenen Elkarte Nazionalak (ANMUCIC).

Lortutako baieztatu neurrien artean honako hauek dira azpimarratzekoak: i) emakumeei lehentasunezko arreta ematea tramite administratibo eta judizialean (114. art.); ii) lurrak itzultzeko eskaerei dagokienez, etxeko buru ziren emakumeek eta lurrak kendutako emakumeek lehentasuna izatea (115. art.); iii) lurrak behar bezala entregatzea, hitzartutako moduan eta segurtasun-baldintzekin (116. art.); iv) Emakume Landatarraren Legearen onurak lortzeko lehentasuna, hala nola kreditu eta hezkuntza arloetan (117. art.); eta v) titulazio bikoitzaren figura; horren arabera jabetzaren titulazioa prozesuaren etapa goiztiarretatik ordenatu behar da, bai eskatzailearentzat, bai haren ezkontide edo bikotekide iraunkorarentzat (URT, 2019).

Legeak biktimen eskubidea kokatzea lortu zuen, eskubideen erreklamatzailerik bezala eta zehazki lurren erreklamatzailerik bezala, baina hori ez zen nahikoa izan legea eta, oro har, trantsizioko justiziaren esparrua eraldatzeko asmoak gauzatzeko (Merteens, 2015). Arau-aurrerapenak gorabehera

eta itxaropen handiak sortu ziren arren, hauek legea onartu eta gutxira murriztu ziren, hura ezartzeko oztopoak ikusi zirenean<sup>10</sup>.

Legearen emaitza eskasez gain, lurrak itzultzeko eskaerei laguntzeko ahaleginek, biktimei erreparazioa emateko mekanismo gisa, berekin ekarri zuten emakumeen eta feministen mugimenduko erakundeak eremu juridiko batean sartzea, non batzuek esperientzia zuten, baina trebetasun espezifikoak eskatzen zituenen, zuzenbide zibilean eta nekazaritza-zuzenbidean, adibidez. Laguntza juridikoa ematearekin batera gaiari buruzko ezagutza sortuz joan zen, bai emakumeek lurra eskuratzeko zuten egoeraren berri emateko (Coll-Agudelo, 2015), bai lurrak eskuratzen zituztela bermatzeko estrategia eta alternatiba juridikoak garatzeko (Sisma Mujer, Diakonia, Humanas, Casa de la Mujer, Ruta Pacífica de las Mujeres, 2014).

Gobernuaren eta FARC-EPren arteko negoziazioak iragartzearekin batera haize berri bat sartu zen antolakuntza-prozesuetan eta bake-ekimenetan. Negoziatioetatik eta aurreko esperientzietatik ikasitakoa kontuan hartu zen eta gizarte zibileko emakumeek osatutako antolakuntza-oinarri bat finkatu zen, negoziatio-mahaiarekin elkarrizketa bat ezartzeko gai zena. Hala, honako hauek dira, besteak beste, emakumeen eta feministen mugimenduek fase berri honetan abian jarritako estrategiak: bake-agendak sortzea; Negoziatio mahaiari interpelatzea, presioa egitea eta harekin zuzenean hitz egitea negoziatzaileen artean emakumeak har zitzan; erakunde berriak sortzea, hala nola Bakearen aldeko Emakumeak; eta emakumeen prozesuen artean antolatzea, Emakumeen eta Bakearen Goi Bilera Nazionalaren bitartez. Goi Bilera emakumeen zortzi erakundek, sarek eta plataformak osatutako aliantza da. Horietan "herrialde osoko 1.500 erakunde mistok, etnikok, emakumeen, nekazarien, indigenen

---

10 Legea ia bederatzi urtez luzatu ondoren, 125 mila itzulketa-eskaera baino gehiago aurkeztu dira, horietatik 39.000 emakumeenak. Hala ere, azaldutakoa dela eta, eskabide guztietatik, bost milak baino gutxiagok izan dute epaian itzultzeko agindua (URT 2020). Judizialki itzulketa agindu den kasu bakanetan, horrek ez du bermatu lur horietarako benetako sarbidea egon denik; izan ere, gatazka armatuaren iraupenez gain, itzulerarako segurtasun-baldintzak eskasak izan dira.

eta afrikar jatorrikoen erakundek baino gehiagok parte hartzen dute”<sup>11</sup>, beren eskaerak eta ekarpenak negoziazio-prozesuan artikulatzeko asmoz (Cumbre Mujeres y Paz, d.g.).

Emakumeen eta feministen mugimenduek etengabe eragin zuten bake-prozesuan eta, nolabait, giro egokia aurkitu zuten beren eskaerak sartzeko. Lehenengoari dagokionez, mugimenduek Habanako negoziazio-mahaiak zein Kongresuak antolatutako foroetan parte hartu zuten. Horietan, negoziazio-agenda egituratzen zuten sei puntuei buruzko proposamenak aurkeztu zituzten<sup>12</sup>. Habanan Gobernuaren eta negoziatzaileen harrera izatea eskatu zuten eta emakume negoziatzaileekin mintzatu ziren. Horren ondorioz, 2014an, Generoko Azpi-Batzordea sortu zen eta hura negoziazioan, akordioetan eta ezarpenean genero-ikuspegia txertatzeaz arduratuko zen (Kolonbiako Gobernua; FARC-EP, 2016).

Giro egoki horri esker, emakumeen erakundeek zein prozesua lagundu zuen nazioarteko erkidegoak NBERen 1325 Ebazpena bere egin zuten. Horri esker, tresna hura gehiago baloratu zen, herriek eta bake-prozesuek jarraitu beharko luketen orientabide gisa; izan ere, emakumeek negoziazioan eta bakearen eraikuntzan modu aktiboan parte hartzea eskatzen zuen. Halaber, hura trantsizioko justizia esplizituki aplikatzen zuen bake-prozesu bat izanik, nazioarteko erkidegoaren presioak biktimengan eta

---

11 Besteak beste, ANMUCIC Kolonbiako Emakume Nekazari, Beltz eta Indigenen Elkarte Nazionala, Emakumeen Ibilbide Baketsua eta IMP bakearen aldeko emakume kolonbiarren ekimena. Beren eskualdeko eta tokiko prozesuak baztertu gabe, Emakumei eta Bakeari buruzko Goi Bileran Nazionala osatzen duten erakundeek 2013an elkartzea erabaki zuten lau helburu hauekin: "Gizarte-justiziaz bakea eraikitzeko eta horren gainean erabakitzeko botere politikoa duen gizarte-kolektiboa osatzea; Kolonbiako Gobernuaren eta FARC-EPren arteko Akordio Orokorrean ituntzaileak izatea eta ez itunduak; gatazkari amaiera emateko Elkarriketen Mahaian eragitea; eta parte hartzeko mekanismoetan eragitea, baita emakumeen eskubideekin lotutako Akordio Orokorra berrestea, egiaztatzea eta ezartzea ere" (Cumbre Mujeres y Paz, d.g.).

12 Negoziazio agenda sei puntu hauen inguruan antolatu zen: 1) Nekazaritza-garapeneko politika integrala; 2) Partaidetza politikoa; 3) Gatazkaren amaiera; 4) Legez kontrako drogen arazoa konpontzea; 5) Biktimak eta 6) Ezarpena, egiaztatpena eta berrespena.

emakumeen eta feministen mugimenduetan arreta jartzera behartu zuen. Gobernuko María Paulina eta FARC-EPko Victoria Sandino negoziatzaileek emakumeen egoerarekiko eta genero ikuspegiarekiko izan zuten sentikortasunak ere giro horri lagundu zion.

Hala ere, honako hau azpimarratu beharra dago: 1990ko hamarkadan garatutako eskarmentu politiko feminista handi hori gabe, giro egokia ez zen nahikoa izango bake-prozesuan emakumeen eta feministen helburuak lortzeko. Izan ere, aurreko bi baldintzak ez ziren nahikoak izan emakumeen eta feministen erakundeen eskaera behar bezala gauzatzeko. Bake Akordioan genero-ikuspegia txertatzeak eta emakumeen eta LGTBI pertsonen eskubideak aitortzeak herrialdean piztu zituzten eztabaidak horren erakusgarri dira. Eztabaida horiek puntu gorenera heldu ziren Akordioa sinatu ondoren eta hura ezartzean.

Akordioa sinatu ondoren gobernuak plebiszitu bat deitu zuen, 2016ko urriaren 2an. Horren bitartez, akordioa onartzen zuten ala ez galdetu zien kolonbiarrei. Galdeketa ezezkoak irabazi zuen. Ezezkoa sustatu zutenek Bake Akordioaren atzean genero-ideologia bat zegoela argudiatu zuten beren kanpainan, eta horrek familiari kalte egiten ziola eta "homosexualitatea sustatzen" zuela (Chaparro eta Martinez, 2016; Gómez, 2017). Berriz ere, emakumeen eta feministen erakundeek eta beste hainbat eragilek eta gizarte-mugimenduk, hala nola ikasleen, biktimen, LGTBI pertsonen eta giza eskubideen aldekoek, kalera irten ziren adostutakoa defendatzeko eta bake-prozesuaren itxaropena bizirik mantentzeko. Izan ere, plebiszituaren ondoren hainbat ekimen antolatu ziren hiri nagusietan, hala nola "La paz se Moviliza" (Bakea mobilizatzen da), "Paz a la Calle" (Bakea kalera) edo "Marcha del Silencio" (Isiltasunaren martxa). Ideas para la paz fundazioaren arabera, urriaren 2tik 25era bitartean, 54 mobilizazio sozial izan ziren eta horietan 50.000 lagun baino gehiago mobilizatu ziren bakearen alde (Álvarez eta Garzón, 2016).

Itxaropena mantentzea arrakasta handia da Kolonbiakoa bezalako testuinguru batean, 60 urte baino gehiago dituen gatazka baten aurrean. Mobilizazio askotan herritar aktibo ez antolatuek parte hartu bazuten ere, emakumeen eta feministen mugimenduek, prozesuaren beste

hainbat momentutan bezala, beren mobilizazio- eta aliantza-ahalmena leheneratu zuten. Gobernuak ezezkoaren aldeko alderdiak deitu zituen, batez ere hainbat eliza, eta emakumeen, feministen eta LGBTI pertsonen erakundeek, bitartean, gertatutakoa aztertzen zuten eta proposamen berriak sortzen saiatzen ziren. Gizarte-mobilizazioa erabakigarria izan zen Akordioa mantentzeko eta horren zentzua aldatu nahi zuten proposamen eta aldaketei aurre egiteko<sup>13</sup>.

Testuinguru horretan. Bake Akordioa defendatzeko funtsezkoa izan zen "La Paz se Moviliza" ekimenaren inguruan sortutako batasuna. Hark hainbat plataforma biltzen zituen eta haren bitartez emakumeen, feministen, LGBTI pertsonen eta biktimen erakunde asko Habanara joan ziren Akordioa eta horretan sartutako generoari eta biktimei buruzko xedapenak babesteko.

#### **4. Lortutakoak piztutako ilusiotik ezarpen eskasak eragindako etsipenera**

Bake Akordioan generoaren arloko ehun neurri baina gehiago sartu ziren (NBE Emakumeak, 2018). Partaidetza politikoari dagokionez, Akordioak aniztasun politikoa eta herritarren parte-hartzerako bermeak garantizatu beharra dagoela aitortzen du, horiek ordezkartza politikoko sistema kontrolatzeko eta Akordioaren ezarpenaren jarraipena egiteko mekanismoa diren aldetik. Aipatutako neurrien artean honako hauek ditugu: gizarte-erakundeen eta -mugimenduen gaitasunak indartzea, batez ere politikatik eta eztabaida demokratikotik baztertutako sektoreenak; beren agendak eta bizitza publikoari egiten dizkieten ekarpenak aintzat hartzea; segurtasun-neurriak eta komunikazio-kanaletarako sarbidea (*ibid.*). Genero-berdintasuna bermatzeko beste neurri batzuek zerikusia dute

---

13 "Generoko Azpi-Batzordeak egindako aurrerapenak aldaketak izan zituzten" arren, Akordioaren eta generoari buruzko xedapenen zentzua mantentzea lortu zen. Hala ere, zenbait ataletan ikuspegi liberal batekin egin zen, gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna aipatuz eta, ondorioz, sexu-orientazioko eta genero-identitateko aniztasuna eta horien araberrako diskriminazioa alde batera utziz (Gómez 2017).

lurra eskuratzeko aukerarekin eta legez kontrako laboreak ordezteko planetan emakumeek ekoizpen-proiektuetan parte hartzearekin.

Biktimen eskubideen arloan, Egia Argitzeko Batzordearen (EAB) baitan genero-lantalde bat eratu zen eta Bakerako Jurisdikzio Berezia (BJB) sexu-indarkeria kasuak ikertzeko talde berezi bat sortuko zela ezarri zen. Ezarpenaren eta egiaztapenaren arloan, Amaierako Akordioaren Ezarpenaren Jarraipen, Sustapen eta Egiaztapen Batzordea (CSIVI) eratu zen, eta horren barruan, Bakean Genero Ikuspegia txertatzeko Emakumeen Instantzia berezia. Hura gizarte zibileko organismo bat da, Akordioaren genero-neurrien ezarpena monitorizatzen duena.

Edukiaz harago, neurri horien garrantzia emakumeak eskubide-subjektu eta eragile sozial eta politiko gisa publikoki aintzat hartzean datza. Izan ere, haiek modu bereizgarri batean bizi izan dute gatazka eta, are gehiago, ezinbestekoak dira herrialdean bakea eraikitzeko. Beraz, neurri horiek aitortzen dute emakumeak partaidetza sozial eta politikoko prozesuetatik baztertuak izan direla historikoki, eta bazterketa hori konpontzea onuragarria dela demokraziarako eta eztabaida publiko eta politikorako (*ibíd.*).

Hala ere, negoziazio-fasean emakumeen eta feministen mugimenduak bakegintzako subjektu politiko gisa aitortzea funtsezko lorpena izan bazen ere, hura erlatibo bihurtu zen plebiszituaren ezezkoak irabazi zuenean eta Ivan Duque presidente bilakatu zenean; izan ere, haren lehendakaritzan hasi behar zen Bake Akordioa ezartzen. Laburbilduz, emakumeen eta feministen mugimenduen lorpenak garrantzitsuak izan ziren gobernuaren eta FARC-EPren arteko negoziazio-prozesuan, baina ez dira nahikoak izan Akordioan sartu zituzten eskaerak eta proposamenak ezarpen-fasean bermatzeko.

Emakumeen Instantzia Bereziaren arabera (Instancia Especial de Mujeres, 2019), emakumeek ez dute praktikan ikusten lurra eskuratzeko, erabiltzeko eta horren titulua edukitzeko benetako aukerarik; eta EAB eta BJBren ezarpena, batez ere lurralde-mailan, oso motela izan da eta aurreikusitako finantzamenduko, egiturako eta langile-kopuruko

bermeen % 50 baino gutxiago izan ditu. Partaidetza politikoaren arloan ez dira garatu parekotasuna eta txandakatzea ezartzen duten arauak eta aldaketa politikoak, hauteskundeetan emakumeek duten ordezkaritza handitzeko helburua dutenak. Hala ere, kezkarriena da liderrek ez dutela gizartean eta politikan parte hartzeko bermerik. CSIVren nazioarteko osagaiari buruzko txostenik berrienaren (Institute Kroc et ál., 2019) eta Giza Eskubideen Nazio Batuen Goi Mandatariaren Bulegoaren datuen arabera, Akordioa sinatu ondoren, 2016tik 2019ra bitartean, 320 lider eta giza eskubideen defendatzaile hil zituzten; horien artean 36 emakumeak ziren eta sei LGBTI komunitateko kideak. Herritarraren Defendatzailearen arabera, 2018ko otsailetik 2019ko maiatzera bitartean, emakume liderren aurkako 447 mehatxu erregistratu ziren (*ibid.*).

Indarkeriaren mantentzen den, partaidetza sozial eta publikorako bermeak ez dauden eta gobernu bake prozesuaren aurkakoa den aldetik, Akordioak aurreikusten dituen genero-neurrien ezarpenak eta bakearen aldeko emakumeen eta feministen mugimenduen helburuek erronka handiak dituzte aurrean. Horietako batek Akordioan "genero-ideologia" dagoelako ideiarekin eta horrek eragindako deslegitimazioarekin du zerikusia. Izan ere, argudio horrek, esan bezala, eragin negatiboa izan zuen 2016ko plebisituaren emaitzetan, eta zailagoa egin du emakumeen eta LGBTI pertsonen eskubideen alde agertzea eta horiek babestea. Beste erronka bat genero-kategoriaren eta -ikuspegiaren eta emakumeen eskubideen erabilera politikoki zuzenarekin lotuta dago. Horrek, bada, errealitatea eraldatzeko ahalmena kentzen die eta politika publikoa egiteko elementu bat gehiago bihurtzen ditu, baina emakumeentzat eta gizarte osoarentzat benetako eraldaketarik eragin gabe (Gómez, 2019).

Testuinguru horretatik sortutako erronka hauen garrantziarekin batera, bakearen aldeko emakumeen eta feministen mugimenduen estrategia eta jarrera ugariak ekarritako lorpenak, ikaspenak eta atzerapausoak aztertu ahal izateko, beharrezkoa da barneko erronkei begiratzea. Horien artean ditugu, lehenik, bakeari eta trantsizio justiziar buruzko ikuspegi liberalak duen nagusitasuna, horrek Estatuarekin eta biktimekin eta hauen antolakuntza-prozesuekin duen harremanean. Ikuspegi horien eraginez, adibidez, legeak eta arau-esparruak egitearen aldeko jarrera dago, baina

hauek egiturazko aldaketak egiteko duten mugak zalantzan jartzen ez duena; eta ez dira kritikatzeko bakearen eta trantsizioko justiziaren diskurtso eta jardunbideetan dauden mendebaldeko matrize liberalak. Azken horrek esan nahi du, halaber, ez direla trantsizioko justiziaren mekanismoen irispenera zalantzan jartzen, ezta eraldaketa eragiteko dituzten ahultasunak. Horren ondorioz, zenbait erakundetan, bakeari eta biktimen eskubideei buruzko eztabaidak eta horien aldeko jarrerak ez daude lotuta eraldaketa ekonomikoekin, garapen-ereduarekin eta nagusi den sistema eta horren oinarri zalantzan jartzearekin.

Bigarrenik, emakumeen eta feministen mugimenduen barruan eta hauen eta beste gizarte-mugimendu batzuen artean dauden botere-harreman hierarkikoak ditugu. Horrek mugimenduen aniztasuna eta antolakuntza-ahalmena eta egiturazko aldaketa sortzeko eta bultzatzeko gaitasuna hondatzen du.

## 5. Ondorioak

Emakumeen eta feministen mugimenduek trantsizioko agertoki eta mekanismoetan eta bakea lortzeko negoziazio-prozesuetan sortutako aukera politikoko egitura baliatzen jakin dute (Ibarra-Melo, 2011). 1990eko hamarkadatik jendarte ez patriarkal eta ez gerrazale batean oinarritutako imajinario politikoak gauzatzeko estrategia politikoak erabiltzen dituzte. Horietan aurkitzen ditugu: a) erakundeak eratzea eta politikoki indartzea; b) gizarte-mobilizazioak; c) emakumeek pairatutako indarkeria dokumentatzea eta sistematizatzea; d) prestakuntza-prozesuak; e) laguntza juridikoa eta psikosoziala; f) bakea eraikitzeko eremuetan eragitea; g) Estatuarekin eta garrantzizko beste eragile batzuekin harreman zuzena izatea; eta h) LGTBI mugimenduarekin eta bakearen aldeko mugimenduko sektore gehiagorekin antolatzeko prozesuak.

Gizarte mobilizazioko, aliantzako eta eragin politikoko estrategia horiek guztiek funtsezko eragile bilakatu zituen emakumeen eta feministen mugimenduak, eta etorkizunean izan daitezkeen negoziazio-prozesuetarako legitimatu zituzten, sozialki eta politikoki. Hala adierazten



du emakumeen eta feministen mugimenduek gobernuaren eta FARC-EPren arteko negoziazio-prozesuan erabilitako leloak: "Emakumeak gabe, bakea ez dabil!". Desberdintasunak eta adierazpen desberdinak gorabehera, bakearen aldeko emakumeen eta feministen mugimenduek antolatzeko gaitasuna dutela erakutsi dute, helburu komunak lortzeko. Halaber, hamarkadak iraun duen eta milaka biktima eragin dituen gatazka armatu horretan itxaropena eta negoziatzeko aukerak bizirik mantentzeko funtsezko rola izan dute. Hori guztia, militarizatutako gizarte batean eta militarki garaitzearen alde zeuden sektore politikoaren eta gobernuaren jardunaren erdian. Izan ere, garaipen hori inoiz lortu ez badute ere, sektore horiek bidezko jendarte bat nahi dutenen aurkako indarkeria soziopolitikoaren larriagotu dute.

Emakumeen eta feministen mugimenduen itxaropen horrek, baita eskuratutako eskarmentuak eta 1990az geroztik erabilitako estrategiek ere, arrakasta handiak ekarri dituzte gobernuaren eta FARC-EPren arteko azken negoziazioan, hala nola mugimendu horiek bakearen aldeko funtsezko eragiletzat hartzea; Habanako mahaian emakume negoziatzaileak egotea; Generoko Azpi-Batzordea sortzea; eta genero-ikuspegia Bake Akordioaren puntu guztietan zeharkakotzea.

Lorpen horiek garrantzitsuak badira ere –batez ere Akordioan genero-ikuspegia zeharkakotzea–, oraindik, emakumeen eta feministen mugimenduek egiten dituzten borroken zentzu politikoari eta interseksionalitateari berriro ekiteko erronkari aurre egin behar diote. Horrek eskatzen du gatazka armatuarekin eta indarkeria soziopolitikoarekin batera gertatutako zapalkuntza-modu ugariak aintzat hartzea, baita bakearen-eraikuntzan ematen diren horiek ere. Hain zuzen ere, bakegintza-agertoki horietan, talka egiten dute mugimendu horien eraldaketa nahiek eta bakeari eta gizarteari buruz duten ikuspegiak, baita bakeari eta trantsizio politikoarekin nolabaiteko zerikusia duten gaiei buruzko ikuspegiak ere, hala nola garapenari eta neoliberalismoari buruzkoek.

Bestalde, emakumeen errealitatea aztertzean begirada interseksionala erabiltzeko honako hau aintzat hartzea eskatzen du: patriarkatuaren,

kolonialismoaren, kapitalismoaren, inperialismoaren, heteronormatibitatearen eta antropozentrismoaren oinarrian dauden botere-harremanek gatazkaren eta indarkeriaren dimentsio nagusiak direla eta, hortaz, negoziazio prozesuen gai nagusia –baina ezkutua–. Izan ere, botere-harremanak emakumeen eta feministen mugimenduen barruan ere ematen dira, eta banaketa sozialak eta batzuentzako botere-abantailak sortzen dituzte. Horregatik, ezinbestekoa da emakumeen eta feministen mugimenduek erabilitako estrategiak eta mugimendua eratzen duten botere- eta antolakuntza-moduak berrikustea, baita bakearen eta biktimen eskubideen aldeko eskaerak egitean helburu dituzten proposamenen eta eskaeren irismena ere.

Berrikusketa horrek, gainera, begirada kritikoa eta eraikitzailea eskatzen du aliantzak eta harremanak garatzeko moduaren gainean, koalizio zabalagoak eta heterogeneoagoak garatzeko borroken interseksionalitatearen ikuspegian (Yuval-Davis 2006) (Espinosa, Gómez eta Ochoa 2014), eta antolakuntza horizontaleko politika batean oinarritzen direnak (Gómez, 2020). Borroken heterogeneotasun hori onartzean, onartu behar dugu borroka guztiak ez direla kokatzen bakegintzako eremu instituzionalizatuetan edo generoak botere-harreman gisa duen nagusitasunean. Are konplexuago, onartu behar dugu borroka askok dauden bake-proposamenen diskurtsoen, jardunbideen, politiken eta programen aurrean alternatibak topatu nahi dituztela (Montealegre, 2020).

## Erreferentziak

Álvarez, E. eta J.C. Garzón (2016): *Radiografía del plebiscito y el Posplebiscito*. Fundación Ideas Para La Paz. <<http://www.ideaspaz.org/especiales/posplebiscito>>.

CCAJAR, Colectivo de Abogados José Alvear Restrepo (2005): *Demanda de Inconstitucionalidad contra la totalidad de la Ley 975 de 2005. Movimiento de Víctimas de Crímenes de Estado*. Bogotá. <<https://www.colectivodeabogados.org/?Demanda-de-inconstitucionalidad,399>>.

- CCJ, Comisión Colombiana de Juristas (2007): *Anotaciones sobre la ley de "justicia y paz". Una Mirada a los derechos de las víctimas*. Bogotá.
- Chaparro, N. eta M. Martínez (2016): *Negociando desde los márgenes: participación política de las mujeres en los procesos de paz en Colombia (1982-2016)*. DeJusticia. <[https://www.dejusticia.org/wp-content/uploads/2017/04/fi\\_name\\_recurso\\_925.pdf](https://www.dejusticia.org/wp-content/uploads/2017/04/fi_name_recurso_925.pdf)>.
- Coll-Agudelo, A. (2015): Acceso de las mujeres a la tierra: realidades de la restitución y el desarrollo rural para las mujeres en Santander, Antioquia y Cauca, Ruta Pacífica de las Mujeres, Bogotá.
- Cumbre Nacional Mujeres y Paz (d.g.): *Quiénes somos*. <<http://cumbrenacionaldemujeresypaz.com/sobre-la-cumbre/quienes-somos>>.
- Espinosa, Y., Gómez, D. eta K. Ochoa (argtz.) (2014): *Tejiendo de otro modo: feminismo, epistemología y apuestas descoloniales en Abya Yala*, Cauca Unibertsitatearen argitaletxea, Popayán.
- Gómez, D. (2015): *Of Love, Blood and the Belly: Politicization of Intimate ties of Caring and Belonging in Colombia* (argitaratu gabeko doktorego-tesia), North Carolinako Unibertsitateko Antropologia Saila, Chapel Hill, AEB.
- (2016): "El encantamiento de la justicia transicional en la actual coyuntura colombiana: entre disputas ontológicas en curso", in G. Pardo eta J. Celis: *Las víctimas, la memoria y la justicia en el contexto de la globalización. Aproximación al debate actual*. Kolonbiako Unibertsitate Nazionalako Instituto de Estudios en Comunicación y Cultura (IECO) eta Red Latinoamericana de Analistas del Discurso (Redlad, Kolonbia).
  - (2017): "Mujeres, género y el Acuerdo de La Habana". *LASA-Forum*, XLVIII(I), 13-17.
  - (2019): "De la inclusión del género a la estructuración de la paz feminista", *XVII Congreso de Antropología en Colombia*. Simposio "De la guerra a la paz: incertidumbres, ¿oportunidades? para la perspectiva de género", ekainaren 13a, Cali, Kolonbia.
  - (2020): "Las mujeres y la perspectiva de género en la Comisión de la Verdad en Colombia: avances y desafíos para el esclarecimiento de la

- verdad", in Mendi Azkue (argtz.) (2020): *Enfoque de género comisiones de la verdad. Experiencias en América Latina y África*, Hegoa Institutua, Bilbao, 135-167. <<https://publicaciones.hegoa.ehu.es/es/publications/433>>.
- Ibarra, M. E. (2007): "Acciones colectivas de las mujeres en contra de la guerra y por la paz en Colombia", *Revista Sociedad y Economía*, 13. zkia., 66-86.
- (2011): "Mujeres, verdad, justicia y reparación en Colombia", *Universitas Humanística*, 72. zkia. <<https://revistas.javeriana.edu.co/index.php/univhumanistica/article/view/2154>>.
- IMP, Iniciativa de Mujeres por la Paz (2002): *Agenda de las Mujeres por la Paz. Constituyente Emancipatoria de Mujeres*, Bogotá.
- Instancia Especial de Mujeres y seguimiento al enfoque de género en la implementación del Acuerdo de paz (2019): *Enfoque de género y paz territorial. Balance a tres años de la firma del Acuerdo de Paz*.
- Instituto Kroc, NBE Emakumeak, Suedia eta FDIM (2019): *Gender equality for sustainable peace. Second Report on the Monitoring of the Gender Perspective in the implementation of the Colombian Peace Accord*. <<http://peaceaccords.nd.edu/wp-content/uploads/2020/04/012820-GENDER-REPORT-DIGITAL.pdf>>.
- Kolonbiako Gobernu eta FARC-EP (2016): *Acuerdo para la terminación del conflicto y la construcción de una paz estable y duradera*. <<https://www.jep.gov.co/Normativa/Paginas/Acuerdo-Final.aspx>>.
- Lamus, D. (2008): "Resistencia contra-hegemónica y polisemia: conformación actual del movimiento de mujeres/feministas en Colombia". *La Manzana de La Discordia*, 3(1), 25. <<https://doi.org/10.25100/lamanzanadeladiscordia.v3i1.1484>>.
- Meertens, D. (2015): *Discursive Frictions: the Transitional Justice Paradigm, Land Restitution and Gender in Colombia*, 20(2), 353-381. <<https://doi.org/10.11144/Javeriana.papo20-2.dftj>>.

Mesa de trabajo Mujer y Conflicto Armado (2002). *Informe sobre violencia sociopolítica contra mujeres, jóvenes y niñas en Colombia*. Hirugarren txostena. Bogotá D.C.

Montealegre, Diana (2020): *Feminismos, Resistencias y Transiciones en Colombia: Posturas políticas de las luchas feministas por la paz* [argitaratu gabeko doktorego-tesi proiektua], Andeetako Unibertsitatea, Bogotá.

Montealegre, D. eta A.J. Bautista (2011): "¿Ha sido la Ley de Justicia y Paz un camino de verdad, justicia y reparación?", in *Ruta Pacífica de las Mujeres: Mujeres, Verdad, justicia y reparación, una deuda pendiente con las mujeres víctimas de las violencias*, Bogotá, 14-40.

NBE Emakumeak (2018): *100 Medidas que incorporan la perspectiva de género en el Acuerdo de Paz entre el Gobierno de Colombia y las FARC-EP para terminar el conflicto y construir la paz estable y duradera*. <<https://www2.unwomen.org/-/media/field%20office%20colombia/documentos/publicaciones/2017/10/internas%20farc-ep.pdf?la=es&ts=4845>>.

Ruta Pacífica de las Mujeres (d.g.): *¿Quiénes somos?*. <[www.rutapacifica.org.co](http://www.rutapacifica.org.co)>.

Sánchez, O. (2006). *Nuevas formas de resistencia civil, de lo privado a lo público. Movilizaciones de la Ruta Pacífica 1996-2003*.

Sisma Mujer (2017): *La luz que nos queda*. <<https://www.sismamujer.org/wp-content/uploads/2018/06/La-luz-que-nos-queda.pdf>>.

Sisma Mujer, Diakonia, Humanas, Casa de la Mujer eta Ruta Pacífica de las Mujeres (2014): *Seminario sobre avances y desafíos de la restitución de Tierras para las mujeres en Colombia*, urriaren 29 eta 30a, Bogotá.

Uprimny, R. et ál. (2006): *¿Justicia transicional sin transición? Verdad, justicia y reparación para Colombia*, Colección ensayos y propuestas. DeJusticia, Ediciones Antropos.

– (2020): Registro de Tierras despojadas y abandonadas forzosamente. Estadísticas de Restitución de Tierras. <<https://www.restituciondetierras.gov.co/estadisticas-de-restitucion-de-tierras>>.

Wills, M. E. (2011): *Mujeres que hacen historia. Tierra, cuerpo y política en el Caribe colombiano*, CNRR-Grupo de Memoria Histórica, Taurus Pensamiento.

Wills, M. E. eta D.M. Gómez (2006): "Los movimientos sociales de mujeres (1970-2005) Innovaciones, estancamientos y nuevas apuestas", in Buitrago, F.L. (argtz.): *En la Encrucijada. Colombia en el Siglo XXI*, Grupo Editorial Norma, 291-322.

Yuval-Davis, N. (2006): "Intersectionality and Feminist Politics", *European Journal of Women's Studies*, 13(3), 193-209.

Argitalpen honek Guatemala eta Kolonbiako gatazka armatuetan giza eskubideen urraketa larriak bizirik iraun dituzten emakumeen justiziarako eta erreparaziorako lanaren alderdi kontzeptual eta praktikoak aztertzea du helburu. Herrialde horietan, emakumeen eta feministen mugimenduak biktimen eta giza eskubideen aldeko mugimenduarekin antolatu dira zigorgabetasunari aurre egiteko eta, hala, eskarmentu handia dute eta sormen eta aniztasun handiko estrategiak inplementatu eta aurrerapenak handiak lortu dituzte.